- Sinatu gabea. "Espetxetik bildutako lana", *Egunkaria (Liluratura)*, 1999-V-29.
- Sinatu gabea. "Idatzi mezulariak", *Gara (Mugalari)*, 1999-VI-29.
- Sinatu gabea. "J. Gaztelumendi, *Haizea mindu gabe*", *Argia* 1717, 1999-V-30, 38 orr.

MUGURUZA, Jabier. *Laura kanpoan da*, Erein, Donostia.

- Aiestaran, A. "J. Muguruza, *Laura kanpoan da*", *Habe* 296, 1996-X, 24 orr.
- Amagoia, Iban. "Fermin Muguruza: 'Ez naiz ausartzen poesia idazten'", *Egunkaria (Bergia)*, 1999-XII-4.
- Carrere Zabala, Josemari. "Non ditugu barru mugak?", *Gara (Mugalari)*, 1999-VII-17.
- Elizondo, Edurne. "Jabier Muguruza: 'Musika inportantea da nire literaturan, eta literatura nire musikan'", *Egunkaria*, 1999-VI-4.

- Etxebarria Iturrate, Arantza. “Besteena hobeia ei dalako”, *Idatz & Mintz* 29, 1999-XII, 45 orr.
- Mendizabal, Iñaki. “Jabier Muguruza: `Begirale amorratua naiz””, *Deia (Ortzadar)*, 1999-VI-11.
- Sinatu gabea. “Bizitzaren pusketak”, *Gara (Mugalari)*, 1999-VI-12.
- Sinatu gabea. “Lehen *Bizitza pusketak* eta orain hau...”, *Deia (Ortzadar)*, 1999-VI-25.
- Sinatu gabea. “Jabier Muguruza: Laura kanpoan da”, *Aizu!* 239, 7 orr.
- Unanaue, Ana. “Jabier Muguruza: ‘Azkenean aurkitu dut nire tokia munduan””, *Aizu!* 228, 1999-XI, 30 orr.
- Zapiain, Markos. “Kantu galduaren bila”, *Egunkaria (Begia)*, 1999-X-9.

OTAMENDI, Jose Luis. *Euri kontuak*, Susa, Zarautz; Iruñea.

- Erostarbe, Gorka. “Jose Luis Otamendi: `Gizarteko erretagoardiako paisaiak islatu nahi izan ditut narrazio labur hauetan””, *Egunkaria*, 1999-X-22.
- Juaristi, Felipe. “Sentimendua”, *El Diario Vasco (Focus)*, 2000-I-29.
- Maia, Jon. “J. L. Otamendi: `Bataila handien atzeko egunerokotasunarekin jokatu dut””, *Gara (Mugalari)*, 1999-X-30.
- Mendizabal, Iñaki. “Jose Luis Otamendi, poeta: Ipuin hauek poesiatik gertuago daude kolpe bakarrekoak direlako””, *Deia (Ortzadar)*, 1999-X-22.
- Sinatu gabea. “Eguneroko kontuak Jose Luis Otamendiren lehen ipuin liburuan”, *Egunkaria (Begia)*, 1999-X-30.
- Sinatu gabea. “Hogei ipuin labur”, *Gara (Mugalari)*, 1999-X-9.
- Zapiain, Markos. “Minaren mapa”, *Egunkaria (Begia)*, 2000-III-4.

RIUS, Felipe. *Bi argazki eta hainbat polaroid*, Pamiela, Iruñea.

- Gutierrez Retolaza, Iratxe. “Oroiminak”, *El País*, 2000-I-22.
- Rojo, Javier. “Ihesi nahian”, *El Correo Español (Territorios)*, 1999-XII-29.
- Sinatu gabea. “Argazkiak eta ipuinak, Felipe Riusen oroimenaren isla liburu honetan”, *Egunkaria (Begia)*, 1999-XII-4.
- Sinatu gabea. “Oroimenak lotzen dituzten ipuinak”, *Gara (Mugalari)*, 2000-I-22.
- Sinatu gabea. “*Bi argazki eta hainbat polaroid*”, *Argia* 1742, 1999-XII-19, 44 orr.

II. IRUZKINETARA BEGIRA

Eleberrigintza eta ipuingintzaren arloei ekin aurretik, hauen definizioei buruzko hainbat ohar eskaintzea egokia iruditu zaigu. Eleberria definitzeko garaian saio ezberdin ugari egon badira ere⁵, guztietan fikziozko istorioa oinarrian izatea hartu izan da baldintza nagusizat. Bestalde, beste honako ezaugarria ere aipatu izan dute, besteak beste, Baquero Goyanes, James, Gide, Cela eta Sábato: malgutasuna. Datosen ataletan hizpide izango ditugun eleberrietan ezaugarri hau nabarmen geratuko da, eleberri batetik besterako aldeak nabarmentzeko baitira.

Ipuina eta eleberria bereizteko, bestalde, luzera hartu izan da kontuan. Ezaugarri bakar honekin honelako bereizketa garrantzitsua egitea zilegi ez dela pentsa badaiteke ere, ezin da ukatu narrazio baten luzerak istorioa garatzeko baliabideak zeharo baldintzatzen dituela. Honela, denbora igaro ahala, ipuingintza eta eleberrigintza bi genero bereiztuztat hartu izan dira, bakoitzaren ezaugarriak zehaztuz joan direlarik. Ipuingintzan, esaterako, bi orrialde edo orrialde bakarreko ipuin laburrak ugarituz joan dira, bere ezaugarri bereziak bereganatuz.

Narrazioa, eta bereziki eleberri modernoa, aniztasunarekin lotzen den garai hauetan sailkapenak egitea oso egokia ez dirudien arren, narrazio ezberdin hauen guztien iruzkinak era ordenatu eta erabilgarriagoan eskaintzeko asmoz honako sailkapena egiteari egokia iritzi diogu.

A. *ELEBERRIGINTZA*

Goraxego aipatu bezala, nahiz eta eleberria definitzeko garaian iritzi ezberdin ugari egon⁶, dirudienez gaur egun fikziozko kontakizun luze baten berri ematea da eleberri baten funtsezko ezaugarria.

⁵ Sullá, Enric (arg.). 1996. *Teoría de la novela: antología de textos del siglo XX*, Crítica, Bartzelona, 13-15 orr.

⁶ Estébanez Calderón, Demetrio. 1996. *Diccionario de términos literarios*, Alianza, Madril, 746 orr.

1. KAPITULUA: Lirikotasuna ardatz duten eleberriak

1.1. Eleberri poematikoak

Eleberri mota hau jorratzen duten idazleek prosa poetikoa deritzonearen ildotik jo ohi dute, formari garrantzia berezia eskainiz.⁷

Íñigo Aranbarri: *Emon biar yako* (1994)

Jada 90. urterako poesia jorratu izanagatik ezaguna zen Íñigo Aranbarriak hizpide dugun hamarkada honetan bere lehen eleberria argitaratu zuen: *Emon biar yako*. Azkoitiarrak bere burua urkatzera doan mutil baten gogoetak ditu kontagai liburu honetan. Julen Azkue deituriko gazteak hausnarketa eta oroitzapenen bidez, erabaki hori hartzera bultzatu duten arrazoiak pixkanaka azaleratzen dizkigu. Julen editorea izaki, liburu bat atontzen dihardu, baina, Zubeldia deituriko argitaratzailea azpijokoetan ibili denez, Julenek liburua legez kanpo argitaratzeko saioa egingo du. Hori dela-eta, eta Bilbora trenez igortzen zituen pakete batzuegatik Julen atxilotu egingo dute. Ondorioz, ziegan hartuko du bere buruaz beste egiteko erabakia.

Narrazioaren egiturari dagokionez, bestalde, pertsonaia nagusiaren gogoetok bi ardatzetan bil ditzakegu: batetik, editore eta zentsorearen arteko harremana; bestetik, idazlearen beraren nortasun eta arazo pertsonalak: hil zaion anaiaren oroimena, maitasun istorioak, gaitxotasuna... Haatik, denborari buruz mintzatzean aipatuko dugun bezala, bi ardatz hauek nahasirik aurkezten zaizkigu, bata bestean tartekatuz. Gainera, idazleak aipatu zuen bezala, bi hari hauek honela uztartzen ditu: “Julen Azkue, edizioaz gain inplikatur dago ezkurtuko lan batean ere, eta hor lantzen dut jokia, zentsura eta klandestinitatea baliatuz.” (Petrikorena: *Argia* 1504)

Tramari begira, eleberri hau honela definitu zuen Jose Luis Ota-mendik:

“Thriller”-a ikusiko genuke agian, Julen Azkue erresistentziako editore heroiko eta Zubeldia zentsore kolaborazionista soil egingo bagenitu. Beharbada, bere osoan ez hartzera, drama existentzialistaz edo kostunbrismo modu baten ekarriaz hitz egingo genuke. (*Aizu!* 155)

⁷ Estébanez Calderón, Demetrio. 1996. *Diccionario de términos literarios*, Alianza, Madril, 758 orr.

Edozein modutan ere, eleberri honen funtsa pertsonaia baten hausnarketak, gogoetak, zalantzak, oroitzapenak... dira. Horien guztien berri emateko, Aranbarrik hirugarren pertsonako narratzailea hautatu du. Narratzaile hau narraziotik kanpo dago, hots, estradietetikoa da, beraz, ez du gertaeretan parte hartzen. Dena den, fokoa Julen Azkue pertsonaia nagusia da, eta honen gertaerak eta gorabeherak fokalizazio iraunkorraren bidez kontatzen dizkigu. Are gehiago, kontakizunaren gidariak batik bat gogoetak direnez, sarritan barne fokalizaziora joko du. Bestalde, batzuetan zaila da bereizten narrazioan txertatzen diren gogoetak pertsonaiaren edo narratzailearen beraren hausnarketak diren. Izan ere, batzuetan narratzailearen eta pertsonaiaren ahotsak bat egiten dutela dirudi. Hortaz, narratzailearen gogoetak ere islatzen direla kontsideratuko bagenu, narratzaile iritziemailea ere izango genuke.

Beraz, pertsonaia biribila aurkezten zaigu eleberri honetan: hots, Julenek zalantza eta barne gatazka ugari ditu. Egileak berak azpimarratu zuenez, “Editoreak berak, bere militantzia ez du oso garbi ikusten, baina halaber, ikusten du egoerak horretara bultzatzen duela, ezin duela beste jarrerarik hartu. Liburuan, zuri eta beltzen arteko gerra izan beharrean, gris asko dago. Pertsonaiak ez dira antagonikoak.” (*Argia* 1504) Are gehiago, gogoeta jarioak pertsonaia gatazkatsu honen sentazioen berri emango digu: bere etsipena, ezinegona, damua,... Hau da, oroitzapenek kontakizunari bizitasuna ematen ez dioten arren, pertsonaiak zehazteko baliagarriak dira: hots, oroitzapenen bidez ezagutzera ematen zaigu bakoitzaren pentsatzeko modua. Juaristik dioenez “Marcel Prousten famatu hartan bezala, edozein objektu asko zaie memoriaren makina martxan jartzeko eta beren burua testuinguru konkretu batean kokatzeko.” (*El Diario Vasco* 1995-IV-8) Honen guztiaren bidez pertsonaien barne munduan sakontzeko aukera eskaintzen badigu ere, askotan erabilitako estilo trinkoak hurbilpen hori zailduko digu.

Bestalde, metaliteraturari buruzko erreferentziak etengabeak dira; ez baitugu ahaztu behar mamiaren harietariko bat editore eta zentsorearen arteko harremana dela. Honela, islatzen den garaiko egoeraren berri emateko literaturaren beraren arriskua aipatu egiten da, literatura eta errealitatearen arteko hika-mika harira ekarriz.

Gogoeta eta oroitzapenek haria gidatzen dutenez, gertaerak aurkezteko orduan ez du teknika linealik erabiltzen, anakronia da nagusi: atzera-aurrera asko daude, irakurleari loturak egitea eskatuz. Narrazioa protagonista bere buruaz beste egitera doan unean hasi eta ekintza hori burutzean amaitzen da. Hortaz, heriotzaren aurretik egi-

niko atzerakako begirada da testurutzen dena. Ondorioz, analepsiek gidatzen dute kontakizuna. Baina, lehen mailako narrazioetat urkatze-ko unea eta ekintza bera hartuz gero, atzera egiteak kanpo analepsiak lirerateke, lehen mailako narrazioetik kanpoko denbora batean kokatzen baitira (lehen kapitulua bera kanpo analepsia genuke). Bestalde, prolepsiak ez ditu sarritan erabili: batik bat, hasieran bere buruaz beste egitera dihoala iragartzen duenean ikus ditzakegu. Hortaz, barne prolepsiak dira gehienak, lehen mailako narrazioaren denboraren barruan kokatzen dira-eta. Hala ere, zenbaitetan kanpo prolepsiak ere topa ditzakegu: esaterako, Julenek bere heriotzaren ondorengo egoerak irudikatzen dituenean, Inesen gogoetak irudikatzean, kasu (19).

Bestalde, behin baino gehiago errepikatzen diren eszenak ere badira. Dena dela, ez dira behin ere era berean deskribatzen, honela oroimenaren aldakortasuna azpimarratuz.

Giroari bagagozkio, pertsonaia hauek 60ko hamarkadako giroan kokatu ditu, nahiz eta narrazioan zehar askotan denbora eta espazioa zehazteke utzi dituen: kronotopo indeterminatua gailentzen da, ezkurtuko giro bat islatzeko egokiena baita. Izan ere, “Iluna da eskenatokia, bakartuak pertsonaia, eta gertaerak minberak. Era klandestinoan jokatzen dira sentimentuak eta euskaltasuna.” (*Aizu!* 155)

Arestian aipatu bezala, ez du batere estilo erraza erabiltzen: esaldi labur eta trinkoak erabili ohi ditu, paradoxa nahiz kontraesan etengabeak sortuz. Idazleak sorturiko irudi iradokitzaileetan, paisaiak leku berezia du, eta batik bat euriak. Azken honen aipamena etengabea da, idazlearen egoera animikoarekin bat eginez.

Idaztinkeraren berri emateko, Felipe Juaristiren hitzak jaso ditugu oraingoan: “ondo zaindutako idazkera da, aberatsa hitzetan, indartsua efektoetan. Esan behar duena esaten du doi, gehiegizko hornidularik gabe, eta horrek, askotan, ilundu egiten du esan nahi dena.” (*El Diario Vasco* 1995-IV-8) Gainera, esaldi trinkoen erabile-
rak hizkuntza zaildu egingo du. Zabalaren ustez, “trinkoegi, zorrotzegi, eliptikoegi, neurtuegi, serioegi, hitsegi, itogarriegi, gupidagabe-
egi irudituko zaio beharbada zenbait eleberri honetako prosa, baina aukera bat besterik ez da, beste edozein aukera bezain zilegi izateaz gain, Aranbarrik kontaktaren gaiari eta giroari –60ko hamarkadako erresistentzia kulturala– ezin hobeto egokitu diona.” (*Egunkaria* 1994-XII-18) Are gehiago, bere aburuz, “plano, garai eta kontzientzia” aniztasun hori baita liburu honen lorpenik behinena, batik bat narrazioari ematen dion “indar adierazkor bereziagatik”.

Era honetan, *Aizu* aldizkariko iruzkingileak egiturari dagokionez, “elkarri lotutako hasiera eta amaiera, irudi eta denbora joko biziak,

elipsiak, behin eta berriz ageri diren oroitzapenak...” (*Aizu!* 155) direla-eta, poema luze bat gogorarazi diola aitortu zuen.

Dena den, honela azaldu zuen azkoitiarrak bere asmoa: “Eleberri zabala da, interpretazio anitzekoa. Nik sarea osatu eta sare horren baitan gauza asko iradoki baino ez ditut egiten, eta irakurleari lan bat eskatzen diot, memoriaren bitartez liburuan dauden zuloak bete ditzan. Jolasa dago.” (*Argia* 1504) Hala ere, liburuaren interpretazioari buruzko bere iritzia honela adierazi zuen: “Julen Azkue zerbait izatekotan askatasuna maite duen pertsonaia da, eta eleberri hau zerbait izatekotan askatasunari buruzko erreflexioa da. Askatasuna nahi aske-aske ez izanda edo aske izan eta askatasunik nahi ez... hor dago.” Gainera, liburuko izenburua Lauaxetaren aipua izatea hortik datorrela aitortzen du. Beste iruzkin batean ere askatasunaren aipua topatu dugu: “Pertsonaren askatasuna eta engaiamendu afektiboa zein zibila daude jokoan hemen.” (*Aizu!* 155)

Antza denez, askatasun aldarrikapen hori eleberriaren egiturara hedatu du, denbora zein espazioak askatasunez aldatuz, eta mundu iradokitzailea sortuz. Horregatik, zenbaitetan giro ilun eta lausotua eratu du, interpretazio anitzerako bideak zabalduz. Ondorioz, arretaz irakurtzea eskatzen duen liburu baten aurrean gaude.

Bestalde, Edorta Jimenezek kritikak liburu honi arretarik eskaini ez izana salatu zuen 1998. urtean: “Kritikarik gabe igaro zela. Hala-ko liburu ezusteko, oso, hausnartu eta mardul batekin aurrez aurre, kritikari edo iruzkingileak arma teorikorik gabe geratzen baikara.” (*Jakin* 105)

Harkaitz Canoren eleberrigintza

Lasartearrak bi eleberri argitaratu ditu 90eko hamarkadan: *Beluna Jazz* (1996) eta *Pasaia Blues* (1999). Bi eleberri hauetan antolaketa eta idaztankera bertsua darabil. Izan ere, bi eleberriak jazz eta blues musikaren erritmoak gogoan izanik sortu dira; eta jazz musikaren sorreran blues musikak garrantzi handia izan zuenez, bi eleberrien arteko antzekotasunak ugariak dira.

Argumentuari dagokionez, bi eleberrietan plano bikoitza aurkezten zaigu. *Beluna Jazz* eleberrian, batetik, Bob Ieregi saxojole ospetsuaren bizipenak kontatzen zaizkigu; eta bestetik, eroetxe bateko giroa du hizpide. Bestalde, liburuaren hasieran hilketa baten berri ematen da: honela, irakurlearen arreta piztea lortzen du.

Pasaia Blues eleberrian, ordea, honako bi plano hauek bereiz ditzakegu: batetik, erakunde armatu baten inguruko ikerketa bere gain

duen ertzainen taldea; bestetik, erakunde armatu bateko kideen arteko harremanak. Kasu honetan, irakurlearen arreta erakartzeko hasieratik aipatzen den erakundeko kide baten eta ertzain baten arteko harreman bitxiak baliatzen da: irakurlea bien arteko harremanaren nondik-norakoan berri izateko adi abiatuko da liburuan barrena. Satorraren irudiak ere irakurleen atentzioa erakartzen du: nor izango ote da? *Beluna Jazzen* aipaturiko hilketarekin gertatzen den bezala, kasu honetan ere egoera hauek guztiak ez dira amaiera arte argituko.

Hala ere, idazleak egoki lortzen du bi plano hauek bata bestearrekin jostea: lehen eleberrian, Bob Ieregi eroetxeko zoroen artean kokatzen du; bigarrenean, era bertsuan, erakunde armatuan sator modura sartu den ertzain bat izango da istilu gehien ardatza. Hortaz, eleberrietan zehar hain bereizturik aurkezten zaizkigun bi plano hauek estuki uztartzen dira istorioek aurrera egin ahala. Are gehiago, lokarri gisa aurkezturiko bi pertsonaia hauek izango dira musikaren berri emango digutenak: Bobek jazz-aren berri emango digu; eta satorrak, aldiz, blues-aren munduan murgilduko gaitu.

Bestalde, Canok askotan istorio nagusitik desbideratzen direla dirudien testu txikiak tartekatzeko joera erakusten du. Baina, gogoeta, ipuin, iradokizun, deskribapen,... hauek guztiak hari nagusitik aldentzen direla badirudi ere, berehala ardatz nagusiari jarraikitzen zaizkiola ohartuko gara. Izan ere, Felipe Juaristik *Beluna Jazzi* buruzko erreseina batean egoki azaltzen duena ere bigarren eleberria deskribatzeko baliagarria da: “adabakiez jositako nobela da. Liburua puzzle handia bailitzan, testu txikiez jositakoa” (*El Diario Vasco* 1996-V-25). Irakurleari dagokio, beraz, puzzle honen piezak diren testu zatiak antolatzea. Dena dela, narratzailearen ahotsaren bidez narrazioan txertaturiko gogoeta eta iritziak lagungarriak dira irakurketan, berau alde baterantz nahiz besterantz bideratuz. Honek guztiak Aranbarriren eleberria gogora dakarkigu: aitzitik, gure aburuz, testu zati ezberdinak lotzeko urratsak Canoren eleberrian argiago adierazten dira Aranbarrirenean baino; gainera, azken honetan indeterminazio guneak ugariagoak dira.

Istorio ezberdin hauek guztiak narratzaile orojakile batek kontaktzen dizkigu, istorioan esku hartzen ez duena: hots, maila estradiageetikoko narratzailea. Hirugarren pertsonako narratzaile hau orojakilea izateaz gain, iritziemailea ere bada: esan bezala, sarri han-hemenka bere gogoetak tartekatzen baititu. Izan ere, narratzailearen ahotsaren bidez kontaktetan txertaturiko gai ezberdinei buruzko gogoetak, azalpenak eta komentarioak istoriotik harago doaz, irakurlearengana hain zuzen ere. Hau da, iruzkinotan auresuposaturik dago irakurlearen parte hartzea.

Hala ere, fokalizazioaren bidez, narratzaileak pertsonaia batetik bestera eramango gaitu, haien barne mundura erabat gerturatuz: fokalizazio orojakilearen bidez pertsonaia gehientsuengana hurbilazteko ahalmena izango du narratzaileak. Honela, foko aldakorren bidez, nagusiak ez diren pertsonaiek narrazioan bere garrantzia azpimarratzea lortuko dute. Batzuetan, halaber, fikziozko pertsonaiei hitza luzatzen die, narratzaile intradiegetikoari bidea irekiz: esate baterako, eroetxeko zoroek beren istorioak azaltzen dituztenean. Gainera, irudi poetikoen bidez pertsonaien izakera ederki islatzen du. Felipe Juaristik dioen modura, “liburuaren lirismoa pertsonaiei ere kutsatu zaie, lausotzeraino batzuetan. Irrealak dirudite, ez errealitatek kanpo daudelako, errealitatearen eta fantasiaren artean aise dabilatzalako baizik” (*El Diario Vasco* 1996-V-25). Haatik, gure aburuz, pertsonaien arteko lokarria bere buruak suntsipenera eramateko duten joera da. Bestalde, *Pasaia Blues* eleberriaz mintzatzean honela adierazi zuen egileak pertsonaiek eleberri honetan betetzen duten lekua:

Nobela honetan gehien interesatu izan zaidana pertsonaien eboluzioa izan da, nola pertsonak ez diren iragazkaitzak, nola batak bestean eragiten duen, askotan itxura eman arren ez dagoela eraginik eta bakoitza bere ideiekin eta bere munduan dagoela. (*Argia* 1739)

Espazioari dagokionez, lasartearrak eleberri batetik bestera aldaketa nabarmena egin du. Hau da, lehen eleberria Euskal Herritik kanpo kokatu du: Rotterdamen, zehazki. Canok elkarrizketa batean adierazi zuen bezala, bi arazo zituen istorio hau Euskal Herrian kokatzeko:

Lehena, hemen ez dagoela jazz kultura handirik. Giroa ez da hain sinesgarria. Bestalde, protagonistaren aita euskalduna da eta kontaktzen den istorioarekin ez litzateke koherentea gertaerak Euskal Herrian kokatzea. (Berasaluze, Garikoitz: *Egun-karia* 1996-IV-18)

Bigarren eleberria, berriz, izenburuan bertan ikus daitekeen bezala, Pasaia Antxon kokatu du. Dirudienez, lehen eleberriko giro lausotu hori Euskal Herriko egoeran ere txerta daitekeela erakutsi nahi izan du. Azken batean, eleberri hauen bidez, Canok bizitzari buruzko estetika baten berri ematen du, eta hori hemen nahiz atzerrian deskriba daitekeela frogatu nahi izan du. Dena den, beharaxeago bi eleberri hauen arteko ezberdintasunak ere izango ditugu hizpide.

Ondoren, denbora izango dugu mintzagai. Arestian aipatu dugun bezala, irakurleak eleberri hauekin topo egitean bere burua puzzle baten aurrean aurkitzen du. Ezaugarri hau berau denboraren iraganen ere aurki dezakegu. Hots, istorioek ez dute jarraipen kronologiko zehatzik: istorioa saltoka kontaktzen zaigu, eta denboran zehar eginiko jauzi horiek elkarrekin jostea irakurlearen lana izango da. Hartara, garai ezberdinetan gertaturiko bi plano tartekaturik doazenez, analepsiak ugariak dira: kanpo zein barne analepsiak.

Orain arte, bi eleberri hauen arteko antzekotasunaz mintzatu gara. Hala ere, Canok elkarrizketa batean aipatu zuen bezala bi eleberri hauen arteko ezberdintasunak ere ugariak dira: batez ere, eleberri bakoitzean sorturiko giro eta mundu txiki hori batetik bestera zeharo aldatu egiten delako. Hona hemen Canoren hitzak:

Zerrenda egiten hasiz gero, badituzte gauza komunak. Hor dago, adibidez, portuko giroa, badira beste batzuk ere...

Baina, bestalde, nik uste dut aldaketa handia dagoela, *Beluna Jazz*-en agertzen zen amets mundu hori, mundu surrealista hori, azken lanean nahiko mugatua dagoelako." (Benito, Jon: *Gara* 2000-I-8)

Nire irakurketak eta nire asmoak mundu onirikotik errealistago batera joan dira orain dela hiru edo lau urte Carver irakurtzen hasi nintzenetik. (*Argia* 1739)

Izan ere, jazz eta blues-aren artean antzekotasunez gain, badira ezberdintasun aipagarriak ere. Egileak berak honela deskribatzen ditu bereizgarri hauek eta hauek eleberrien eraketan izan duten eragina:

Argumentua musikaren similen bitartez dago antolatuta. Adibidez, aurreko nobela, jazz banda bat bezala zegoen antolatuta. Instrumentu bakoitzak bere protagonismoa zuen, baziren kontrabaxua eta bateria, hau da, estruktura erritmiko bat, saxofoiari mugak ipintzen zizkiona eta dena batzen zuena.

Oraingoan bluesaren eragina nabaria da, bluesa askosaz ere mugatuagoa baita. Bluesa lanturu errepikakor bat baita funtsean. Horregatik, nobelaren hariari askosaz ere gehiago lotu natzaio. (Benito, Jon: *Gara* 2000-I-8)

Estiloari begiratuz, ezaugarri hauek guztiak harilkatzeko estilo aberatsa darabil. Batetik, eleberri hauetan poesiaren eragina nabaria da: metafora ugari, irudi poetiko bitxiak, paralelismo harrigarriak...

honela, bere irudimen argia erakutsiz. Irudimenarekin batera ironia zorrotza aurkituko dugu sarritan. Egileak berak bigarren eleberriaz mintzatzean aipatu zuen bezala, “pesimismoa gehi ironia berdin optimismoa-edo” (*Argia* 1739) sortzen omen da. Bestalde, jazz musikaren erritmora egokitu ditu bere hitzak: hau da, eleberri hauetan errepikapenak eta itzulinguruak etengabeak dira: besteak beste, denboraren garapenean, leloen errepikapenean, egoera berdinak ikuspuntu ezberdinetatik berriro kontatzeko joeran... ikus daiteke joera hori. Hori honela izanik ere, erritmo aldaketak ere ugariak dira: batzuetan, narrazioaren erritmoa motelagoa da, beste batzuetan abiadura bizkortu egiten da.

Jose Jabier Fernandezek *Egunkarian* eginiko erreseinan, Canoren eleberrien garapena honela azaldu zuen:

Hiru lanen ondoren, *Beluna Jazz* eleberria eman zuen argitara. Bai berarentzako bai guretzako bere bide labur baino intentsoaren apustu arriskutsuena izan zen. Eta oraindik bere estiloa guztiz libre azaltzen ez bazen ere, liburu bikaina egin zuen Harkaitz Canok. Zati batzuetan pisutsua egiten zen, eta gehiegitan haren poeta jarrera, zoritxarrez, nabariegia azaltzen zen, baina, orokorrean, irakurlea harrapatu eta liluratzen zuen liburua zen.(...)

Aurreko bi liburuak beharrezkoak zirela [*Telefono kaiolatuak* eta *Bizkarrean tatuaturiko mapak*], batez ere estilo alde-tik, Harkaitz Canok bere poesiaren hizkuntza narrazioetara moldatu behar baitzuen. Ez, ez ditu galdu bere ezaugarri nagusiak: beti bezain ongi idazten eta bere istorio eta mundua irudikatzen jarraitzen du: baina orain, gainera, narrazioaren erritmoa eta denbora kontrolatzea lortu du.(...)

Haren luma eta adimenaren ezaugarriak ditu, baina erritmo biziago batekin oraingoan, zinema eta irudi gidoilaritzaren ezaugarrietatik hartuak.

Hori segituan nabaritzen da liburuan. Hitz, metafora eta sinboloz soilik osatutako liburua baino gehiago, Harkaitz Canok oraingo honetan irudietara eta horiek sortzen dituzten erreferentzi jokoetara jo du. Gure irudimena gramatikaz asetzear gain, Canok oraingo honetan irudiz ere hornitzen du. (*Egunkaria* 2000-III-18)

Bukatzeko, idazleak lehen eleberrian Malcon Lowry-ren *Lunar Caustic* liburuaren eragina nabarmentzen dela aitortu du (Berasaluzee, Garikoitz: *Egunkaria* 1996-V-18). Eragina, batik bat eroetxearen

giroan aurki daiteke. Era berean, Javier Rojok Kerouac-en estiloa gogora dakarkiola aipatu zuen: azken honen *The Subterraneans* liburua aipatu zuen erreferentzia moduan.

Bigarren eleberritari buruz, ostera, honakoa aipatzen digu:

Nik uste baino poliziakoagoa izango da. Baina ez da ohiko nobela poliziakoetakoa ere. Hala ere, eleberrri poliziakoen artean bada bereizketa bat. Batetik, poliziako filosofikoak bereizten dira: Hammeten lanak izango liratekeenak, adibidez, pertsonaiaren barne gogoetak eta kezkek gehiago azaltzen dituztenak. Eta, bestetik, akzioari garrantzi handiago ematen diotenak egonen lirateke. Azken hauek lehengoaren antz handiago dute, baina ez dira betetzen generoaren ezaugarri guztiak “Pasaia Blues” ez da akzio hutsezkoa. Nobelak baditu, hala eta guztiz ere, hainbat eta hainbat ezaugarri, nobela beltzen ezaugarriekin bat datozenak, adibidez, badu sintesirako ahalmena, esaldi laburrak erabiltzeko joera... (Benito, Jon: *Gara* 2000-I-8)

Argia aldizkarian ere honakoa aipatu zuen: “hasierako helburua zen pixka bat poliziakoa egitea, nahiz eta gero *falso-poliziakoa* ateraden.” (*Argia* 1739)

Bi eleberrri hauek trilogia baten lehen bi aleak omen dira.

Yolanda Arrieta: *Jostorratza eta haria* (1998)

Eleberrri liriko edo poematikoen artean aipatuko dugun azken honetan, Yolanda Arrieta testu labur ezberdinen eransketaren maila gorenera iritsi da. Dena den, hau guztia eleberrigileak egindako aukerari estuki lotzen zaiola azpimarratu behar dugu. Hain zuzen ere, idazleak jostearen metafora darabil bizitzari buruzko bere ikuspegia emateko, eta ondorioz, josten ikasteko manual gisara antolatu du eleberria bera. Jose Jabier Fernandezek dioen bezala, “jostorratza eta haria bai era metaforikoan baita era zuzenean ere (askotan liburuak josten ikasteko manual itxura hartzen du) erabiltzen baititu idazleak istorio-historioa multzo desberdinak lotzeko.” (*Egunkaria* 1996-X-10) Hortaz, adabaki txikitxoez osaturiko liburua eleberriarren beraren eduki eta xedearekin bat dator. Honela, jostearen inguruko termino ugari ekarriko ditu hizpidera behin eta berriz, lotura gabekoak diruditen hainbat testu aske hauen arteko hurbiltasuna azpimarratuz: hartara, bizitza pusketen bidez osaturiko puzzle gisara aurkezten digu. Funtsean, belaunaldi ezberdinen arteko istorioa da eleberrian

geureganatzen duguna: Argentinara joandako bi euskaldunen arteko maitasuna kontatzen digu. Hauek Ameriketara ezagutu ondoren, Euskal Herrira itzuli eta bertan bere seme-alabekin bizitakoan berri ematen digu. Belaunaldi ezberdinen bizipenak harira ekarriz, eta historiaurreko gizakiei erreferentzia eginez, unibertsaltasuna aldarrikatzen saiatzen dela dirudi. Izan ere, istorio honetako pertsonaiek berek ere sexuaren arabera besterik ez dira bereiztuko: honela, emakumezkoak Mari deiturarekin izendatu ditu, eta gizonezkoak Txomin (edo honen aldakiak diren, Maria, Miren, Domingo...). Beraz, agerian geratzen da bizitzari buruzko ikuspegi historikoa emateko asmoa. Dakusagunez, pertsonaia bizitzaren ikuskera bat emateko aitzakiak direnez, ez du hauen ezaugarrietan sakontzeko ahalegin handiegirik egingo, pertsonaia lauak eraikiz: bizitzari aurre egiteko aholkuak baitira ipuin honetako zutabe nagusiak.

Ikuspuntuari begiratuz, aniztasuna dakusagu. Izan ere, erabat argiak ez badira ere, gure irakurketaren arabera, hiru maila narratibo bereiz daitezke. Batetik, hirugarren pertsonako narratzaile estradiegetikoa dugu; bestetik, bi narratzaile intradiegetiko izango genituzke: lehena, amaren papera betetzen duen narratzaile autodiegetikoa; bigarrena, amaren papera betetzen duen narratzaile metadiegetikoa, bizkaieraz mintzo dena eta bere esanak letra etzanez azpimarratuz bereizten dituenak. Narratzaile intradiegetiko hauek, bestalde, narratarioari zuzenean mintzatzen zaizkio. Narratario hori ama modura irudikatu dugun narratzaile autodiegetikoaren semea edo alaba litzateke. Gainera, elkarrizketez osaturiko zenbait pasartetan seme nahiz alaba honen ahotsa zuzenean iristen zaigu.

Esanahiari begiratuz gero, sinbologiaz beteriko eleberria dugu: koloreek, esaterako, konnotazio bereziak eransten dizkiote kontaktuzunari. Hala nola, etengabea da soineko beltzaren aipamena, batzuetan pertsonaia baten aurrean gaudelako irudipena izatera iritsiz. Gainera, kolore beltzaren bidez narrazioaren *leit-motiva* den heriotzari erreferentzia egiten dio. Bizitzari buruzko gogoetak eskaintzen ditueenez, heriotzari nola aurre egin ere azaltzen ari da. Izan ere, askotan aipatu izan den bezala, bizitza hiltzen joatea baino ez denez, heriotzerantz doan bidaia horretan, antza denez, bizitza dugu heriotzari aurre egiteko bide bakarra. Ondorioz, heriotz horrek gure bizitzan duen pisua adierazteko etengabeak dira *leit-motiv* hau gogora ekarriko diguten elementuak: gaua, iluntasuna, kolore beltza... Are gehiago, hauek guztiak ere ilusioaren heriotza irudika lezakete. Dena den, heriotzera denboraren iragaiteak garamatzanez honi buruzko erreferentziak ere ugariak dira. Honela, belaunaldi ezberdinen joan eto-

rriak denboraren sinbologia izango lirateke. Aitzitik, denborak aurre-
ra egin arren, belaunaldi berrien bizitzak funtsean aurrekoen ildotik
jarraitzen duela adierazi nahi duela dirudi. Hots, sentimenduen, bel-
durren, zalantzen, ilusioen,... betierekotasuna adieraziz. Izan ere,
gizaki guztiok dugu geure bizitza josteko zeregina. Bestalde, josto-
rratza eta hariak ere sexu harremanak sinbologizatzen dituzte: ba-
tzuetan, lotura hau iradoki besterik ez du egingo, eta beste batzuetan,
zuzenean adieraziko du sexua eta jostearen arteko identifikazioa. Soi-
nekoak, bestalde, gizartearen baloreak eta *canonak* irudikatuko
lituzke: honen bidez, balore horiek etengabe desjosi eta josteko beha-
rra ere aipatzen du. Hortaz, batik bat bizitzaren zirkulartasuna eta
gizartearen baloreak ditu hizpide.

Honen guztiaren berri emateko, batzuetan kronotopo zehaztua eta
besteetan zehazgabea darabil. Zehazgabetasuna batez ere historiau-
rreko pasarteetan ikus daiteke, eta zehaztasuna garaikideak diren
pasarteetan. Gainera, mende honetan kokatzen diren gertakizunetan
kronotopoak garrantzia berezia du. Garai honetako gertakizunetan
batik bat bi espazio bereiz daitezke (Argentina eta Euskal Herria), eta
hautako bakoitzean gertatzen direnak garai batekin hertsiki uztar-
turik daude. Honela, Ameriketako pasarteak gutxi gorabehera 1925.
urtean koka ditzakegu (urte honen aipua egiten baitu), eta Euskal
Herrikoak, berriz, Francoren garaitik gaur egun arteko epean. Ondo-
rioz, askotan denbora espazioaren aipamenaren bidez egituratu deza-
kegu. Izan ere, eleberri honetan anakroniak ugariak direnez, beha-
rrezkoa dugu denbora eta espazioaren arteko identifikazioa egitea
gertakizunak bata bestearen ondoan egoki txertatzeko. Gertakizunak
garai jakin hauetan girotzen baditu ere, testuinguruak ez du leku
berezirik beteko, (nahiz eta garaiko giroaren aipuak badauden: mani-
festazioak, Francoren heriotza, ...) bizitzaren aurreko aholku uni-
bertsalak baitira eleberri honen euskarriak.

Teknikari bagagozkio, molde anitzeko testuak aurki ditzakegu:
elkarrizketak, irakas metodoak, galde-erantzun gisara eraturiko ira-
kasaldiak, hiztegiak... Hartara, aniztasun honek askotan irakurketa
zailduko du, izan ere, batzuetan istorioaren berri emateko hainbeste
itzulinguru erabiltzen dituenek, badirudi irakurlea galtzeko arriskua
dagoela. Askotan zaila dirudi loturak egitea, eta hausnarketa eta
gogoeta batzuen aurrean egoteko sentazioa besterik ez zaigu gera-
tzen. Dirudienek, Fernandez ere iritzi berekoa da:

Eleberriak irakurtzeko orduan ohituta gauden patroiarekin
hautsi egiten du beste bat sortuz, baina berri honetan galtzeko

arrisku handia dago. Irakurlea gogoz hasten da jostorratza eta haria jarraituz, baina hainbeste bira eta jira eman ondoren bidea galdu, interesa erori eta istorioa bera eleberraren pisu guztia sustengatzeko arazoekin aurkitzen da. (Fernandez, Jose Jabier: *Egunkaria* 1996-X-10)

Izan ere, eleberrri hau modu bitxian egituratua dagoenez, istorio hauek guztiak lotzea askotan zaila izaten da, irakurketa pausatua eskatuz. Aitzitik, arretaz eginiko irakurketa baten bidez Arrietak eskaintzen digun mundu iradokitzailea barneratzeko zailtasunik ez dugu izango. Gainera, patro berri honen erabileraren atzean, ezarri-riko *canon* edo ereduak desjosi eta berriro josteko beharraren aldarrikapena ere ikus genezake.

Itxuraz, eleberrri honek galdera honi erantzun nahi dio: “Zer gara? Berez gurekin datorrena ala, bizitzan zehar egiten goazena?” (Fernandez, Jose Jabier: *Egunkaria* 1996-X-10) Aurretik aipaturikoa aintzat hartuz, bizitza jostearen prozesu bera eskatzen duen ekintza dela esan genezake. Ondorioz, norbera litzateke bere bizitza josteko jostunik egokiena, eta bere bizitzaren oihala josteko ahalmena izango lukeen bakarra, jostearekin batera desjostearen beharra aldarrikatuz. Gorago adierazi bezala, josteko aholkuak bizitzeko aholku gisara uler daitezke.

1.2. Amodiozko eleberrriak

Deiturak berak argi erakusten duen bezala, oinarrian maitasunezko istorio bat duen eleberrriari deritzaio honela.

Migel Anjel Mintegi: *Udazkena (urtearen lehena eta azkena)* (1991)

Mingel Anjel Mintegik urteko lau sasoietan oinarrituz, honako maitasun-istorioa kontatzen digu bere lehen eleberrri honetan: lagun minak izaniko Amaia eta Andoniren topaketa. Amaia ezkondua dagoenean eta bi seme-alaba dituenean, Andonik eleberrian literatur saria jaso duela irakurtzen du egunkarian. Honen ondorioz, iragane-ko sentimenduen indarrak bultzatuz Andoni ikusteko ahalegina egingo du. Urtarock kontakizunaren nondik norakoak gidatuko dituzte: honela, udara maitasun betearen sasoi izango da eta udazkena maitasunaren agorraldiaren sasoi. Harreman hau bi pertsonaiek ilusio xume baten modura biziko dute, izan ere, pertsonaiek bizitzaren aurrean sentitzen duten nekea, asperdura, ilusiorik eza... ahazteko bide gisa aurkezten baita maitasuna. Baina, narrazioaren bukaeran

ametsetik ihes egiteko joerari eutsiz betiko bizimodura bueltatzeko erabakia hartuko dute.

Bestalde, arestian aipatu bezala, istorioaren garapena erabat loturik doa naturarekin, zehazki urtaroen iragaitearekin:

Udazkenean hasi eta udazkenean bukatzen den bidaia sentibera aurkezten du Mintegik urtearen lehena eta urtearen azkena sinbolizatzen dituen udazkenaren gainean. (...) Eta horretarako, nostalgiaz jositako liburu samurra dakar, udazkenetik udazkenera berezia izango den urte baten kontakizuna tarteko. (*Egunkaria* 1992-XI-22)

Hortaz, eleberri honetan zirkulartasuna ageri da, bizitzeko gogoia pizten duten ilusioen joan-etorri etengabea sinbolizatzen duena. Urtaroen erabilera honek Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) dakarkigu gogora.

Istorio honen berri emateko idazleak hirugarren pertsonan mintzatzen den narratziotik at dagoen narratzaile orojakilea darabil, narratzaile estradiegetikoa. Modu honetara, fokalizazioaren bidez, bi maitaleen ikuspegitik eskaini dakiguke narrazioa. Fokoaren mugimenduaren bidez, narratzaileak bereziki bi pertsonaiengana gerturatuko gaitu, bi maitaleengana. Haatik, pertsonaia hauen hausnarketa, zalantza... batzuk deskribatzen bazaizkigu ere, ez dugu bi pertsonaia hauen barne munduan sakontzeko ahalegin berezirik antzematen. Hau da, batik bat istorioaren gorabeherak hobeki ulertzeko beharrezkoa dugun informazioa azaltzen zaigu. Oro har, kontalariak hirugarren pertsonan hitz egiten duela esan dugun arren, oroitzapenen berri ematean narratzaile intradiegetikora igarotzen da. Izan ere, bi plano bereizten baitira: narratzaile estradiegetikoak bi maitaleen oraineko harremana narratzen digu; eta narratzaile intradiegetikoak iraganeko gertaeren berri ematen digu. Narratzaile intradiegetiko honek gertaeretan parte hartzen du, Andoni bera da, eta narratario intradiegetikoari zuzentzen dizkio bere hitzak, hau da, istorioaren protagonista bati: Amaiari. Honela, denbora aldaketa (narrazioaren iragana eta oraina) nahiz narrazio aldaketa azpimarra ditzake. Hots, narratzailearen zehaztasun honen bidez, iragan eta orainaldia, bi plano ezberdin hauek erabat bereiztea erdiesten du.

Corago aipatu dugun bezala, atalak urtaroen arabera banatu ditu. Istorioaren garapena urtaroeekin hertsiki loturik doanez, maitasun istorio honetan ez dugu ezustekorik aurkituko. Urtaroen garapenak baldintzatuko ditu gertaerak. Izan ere, narrazioak aurrera egin ahal, maitaleen maitasuna udarara gerturatuz gero piztuz doala antze-

mango dugu: udarako argitasuna maitaleen alaitasunarekin bat dator. Hortaz, gertaerak udazkenerantz gerturatzen diren heinean, irakurleoi liburuaren amaiera aurreikusteko bidea iradokitzen zaigu. Izan ere, irakurleon igurikimenak betetzen baitira.

Urtaroak oinarri diren joko honetan, beraz, istorioari egiantzekotasuna eskaintzeko asmoz, garapen kronologikoa gailentzen bada ere, askotan denboran atzera-jauziak ageri dira; hots, analepsi ugari aurkituko ditugu. Oroitzapenen bitartez, lehen mailako narrazioaren denboratik ihes egin eta honen aurreko denbora batera salto egiten du (kanpo analepsiak, beraz). Espazioan ere, errealismoaren bidea hautatu du, gertaerak Euskal Herrian kokatuz: Donostia, Durango, Getaria, iparraldea... Beraz, kronotopo determinatua irudikatu du maitasun loraldi honen berri emateko. Izan ere, sinesgarritasuna islatu nahi duela dirudi.

Abelin Linazisoro: *Axun* (1995)

Abelin Linazisorok ere gaztaroko amodioa izango du hizpide bere eleberrian. Hartara, lehen amodioaren lilurak mugituko du eleberri labur honen pertsonaia. Pedrok, lantegian arazoak izan dituela-eta, abokatu batengana joko du. Pedrok abokatua ezagutzearan honen antza izugarria zuen aspaldiko maitale baten irudia datorkio gogora. Emakume gazte honek ere, aspaldiko bere maitaleak bezala, Axun du izena. Honela, bi emakume hauek senideak direla ohartuko da, eta Axun iraganeko maitearen lekua betetzen joango da. Istorioa aurrera joan ahala, gertatu behar dena berehala igarri egiten da, izan ere, *Udazkena* eleberrian bezala, ez dago ezustekorik. Hala ere, eleberri honetan inguruneak pertsonaiengan Mintegiren eleberrian baino eragin handiagoa izango du; zenbait ikutu sozialek ziprizzintzen baitute erlatua. Hau da, eleberri honetan garaiko egoerak neurri txiki batean pertsonaien jarrerak eta ekintzak bideratuko ditu: bai gizarte egoerak, bai gertakari politikoek. Hauek guztiak, batez ere narrazioaren amaieran nagusitzen dira.

Oro har, pertsonaia ezberdinen berri eman ahal izateko narratzaile orojakilea aurki badezakegu ere, batzuetan, bere iraganeko pasarte batzuen berri ematerakoan, Pedro pertsonaiak hartuko du hitza lehen pertsonan. Honela, bi maila narratibo bereiz daitezke: batetik, orojakilea den narratzaile estradiegetikoa izango dugu; bestetik, maila intradiegetikoko narratzaile autodiegetikoa, berau istoriaren pertsonaia nagusia baita. Bi maila narratibo hauen bereizketarekin,

beraz, denboran ere bereizketa egiten da. Lehenengo maila narrati-
boan jarraipen kronologikoa nagusitzen da. Baina, bigarren maila
narratiboaren pasarteak tartekatu egiten dira bertan, honela, kanpo
analepsiak sortuz.

Gertakizunak sinesgarriak gertatzeko, denbora eta leku jakin eta
ezagunetan kokatu ditu: hots, kronotopo determinatua erabili du.
Amodiozko istorio hau gaur egungo giro batean kokatu nahi izan
duenez, garaiko ezaugarri askoren inguruko aipamenak egiten ditu:
anorexia, gai politikoak, langile mugimendua... Hartara, bi maitale-
en arteko istorioaz gain, garai bateko egoera sozial eta politikoaren
alderdi bat ere islatuko da liburuan. Sinesgarritasuna eta egiantzeko-
tasuna irudikatuzko asmoz, noski, gertaera guztiak herri ezagunetan
kokatu ditu: besteak beste, Zumaia, Donostia, Bilbo aipatzen dira.

Maitasunezko bi eleberri hauetan ikusi ahal izan dugun modura,
iragan zoriotsuari begiratzen diote pertsonaiek ilusio txikien bila.
Baina, azkenean harremana aurrera eramateko ahaleginak hutsalak
izango dira, eta bakoitzak bere bideari ekingo dio.

Istorioaren tonuari dagokionez, Felipe Juaristik esandakorekin bat
egiten dugu : “ez da triste ez da alai, zertxobait idealizatuta agertzen
zaigu Axun bera, gazte-denboran, idealizazio-joera handia baitago.
Bukaera, horrelako istorioak behar duen gisakoa, tristea, alegia”.(*El
Diario Vasco* 1995-X-28)

Ondoren, idaztankaera izango dugu komentagai. Eleberria egitu-
ratzeko estilo irakurterraza darabil. Edorta Jimenezek honela gorai-
patzen du Linazisororen lorpena: “Zein erraz hasten den kondatzen,
eta gero zelan sortzen dituen hari berriak, halako moduan non ira-
kurlea ikaratu egiten den, jakingo ote duenentz idazleak guztietatik
armoniatu tenk egiten. Jakin, jakin du, alajaina” (*Egunkaria* 1995-
XI-18)

Beheraxeago, eleberriaren generoarengatik inguruko ohar hau gehitzen
du: “itxuraz larroxaren usainekoa zenaren bidez irakurlea arantza
zaurien minez kutsatzera iristen da.” Abelin Linazisorok, bestalde,
bere eleberria eleberri lirikotzat du. (Zabala, Juan Luis: *Egunkaria*
1995-IX-28)

Beste alde batetik, Abelin Linazisorok bere irakurketen artean
honakoak aipatu zituen:

Euskal literaturan, nik bene-benetan gustukoak Sarrionan-
diaren ipuinak ditut.(...) Atxagaren *Obabakoak* ere bai; gero
egin dituenak ez hainbeste...; Hasieran, berriz, Gabriel Aresti,
Xabier Lete eta garaiko euskal idazleak irakurtzen nituen...

Kanpoko literaturan, García Márquez, Neruda, Cortazar, Carpentier, Dostoievski... Baina ez dakit nire liburuan horien arrastorik ageriko den. (Zabala, Juan Luis: *Egunkaria* 1995-IX-28)

Hortaz, hona hemen maitasunezko istorioak gustuko dituzten irakurleontzat bi aukera.

1.3. *Testimonialak*

Pertsonaia baten bizikizun baten inguruan eraturiko narrazioak izango ditugu hizpide atal honetan.

Mailuix Legorburu: *Zozoaren kanta* (1993)

Mailuix Legorburuk bere lehen eleberri honetan nekazaritza giroan kokaturiko istorio bat du kontagai. Honela laburbildu zuen argumentua Jon Casenavek *Maiatz* aldizkariko iruzkin batean:

Elaberri labor hortan, mende hunen hastapenean gertatu istorio arrado bat kondatzen digu idazle berri horrek, Artola familia ezagutarazten ere, eta bereziki Iñaki etxeko semea. Hunen haur denbora erakusten dauku eta bide batez, laborarien bizi moldeari buruz ainitz xehetasun emaiten, hots, baserriko lanak, plazerrak eta ez-beharrak. Etxekoak ere hor daude, Iñaki seme bakarraren inguruan, ordu heietan hemen gaindi aurkitzen ziren hiru belaunaldiak orotarot: aitatxi ta amatxi zaharrak, bat bertzearen ondotik denbora laburrez itzaliko direnak, gero Matin, aita, eta Maite, Iñakiren ama. Semea aski herabea da berenaz, nahiz frango azkarra den adineko. Eskolan ez da luzaz ibili, nekez ikasten baitzuen; beraz laborantxari lotu da burrasoen segida hartu beharrez.

Iñaki, mutiko perestua da biziki, bainan ez da arras besteak bezalakoa eta jendeek ez dute ulertzen ez eta ere onartzen zozotzat hartzen baitute.(...) Jendekilan ezin akomidatuz, abere batekin adixkidetzen da Iñaki, zozo batekin hain zuzen. (*Maiatz* 22)

Hartara, kultura eta naturaren arteko lehia ikus daiteke. Iñaki eskolak irudikatzen duen kultur mundura egokitzen ez denez, baserrian lanean jarraitu beharko du. Baina, kultur munduan murgildu eta egokiturikoek ez dute bere jarrera onartuko, baztertu egiten dute. Iñakik naturarekin duen harremana azpimarratzeko zozoarekin duen

harremana irudikatzen zaigu: zozoarekin ongi konpontzen da, baita naturarekin ere:

Īnakik adixkide baita ere maisutzat hartzen du xoria, horrek ordainez naturaren lege ezkutua erakusten dizkio sasi-pean duten gordagian. Zentzuak pizten zaizkio mutikoari, bizia dastatzen eta gozatzen ikasten du, emeki emeki, baina zorigaitzez, ihiztari batzuek bizia andeatzen diote sekulako. (*Maiatz* 22)

Are gehiago, mutikoa zozoarekin harremantzen denean biluztu egiten da. Beraz, gizarteak zorotzat hartzen du, zoro eta zozo hitzen arteko jolasa eginez. Baina, gazte batek zozoa hiltzean, Īnakik amorruez gaztea hilko du. Honela, lehenik kartzelara eta gero eroetxera daramate. Hortaz, antza denez, zozoa ilusioaren islada da, eta are gehiago, istorio honen bidez elkarrenganako begirunearen beharra azpimarratzen dela ere esan genezake. Izan ere, honakoa aipatzen da eleberriko pasarte batean: “Hori baita dena bakotzak bereak estimatuz, bertzearena errespetatu.” Hau da eleberriko mezua, beraz.

Bestalde, natura eta kulturaren arteko bereizketa honek Bernardo Atxagaren *Obabakoak* (1988) ipuin-bilduma dakarkigu gogora. Bertan ere, naturarekin bat eginez bizi direnak, marginatu edo baztertuak izan ohi dira.

Ikuspuntuari dagokionez, istorio hau guztia narrazioan parte hartzen duen pertsonaia batek kontatzen digu. Izan ere, narratzaileari Īnakik berak bere istorioaren berri eman ziola aitortzen du. Beraz, Īnakiren istorioa kontatzen ez duenean, baina honen berri nola izan zuen azaltzean, narrazioan parte hartzen duen narratzailea dugu. Bestalde, askotan Īnakik berak hartuko du hitza, maila metadiegetikora jauzi eginez.

Denbora eta espazioari dagokionez, han hemenka aipamen ugari egiten badira ere, oro har kronotopo indeterminatua gailentzen da. Istorioa iparraldean kokatzen da Sara herria aipatu egiten baita eta euskara eta frantsesaren erabilera ere nabarmena baita. Haatik, ez dira kokaleku jakinari buruzko aipu zehatzak aurkitzen.

Denboraren jarraikortasunari begiratuz gero, jarraikortasunaren iraulketa nabaria da, batik bat atzera jauziak soma daitezkeelarik. Bestalde, erritmoa bizkortuz doa eleberraren bukaera aldera, tentsioa areagotuz.

Testuartekotasunari dagokionez, honela mintzatu zen Jon Casenave: “Dakarren deskribapen soziologikoak mende ondar huntan gure alderdian egiten den literaturan oihartzun handia badu. E. Etxa-

mendi eta D. Landart, besteak beste, eremu hortan ari zaizkigu azken urte hauetan.” (*Maiatz* 22)

Bukatzeko, hendaiarrak erabilitako euskalkia izango dugu komentagai: “kostaldeko euskalkia erabiltzen du idazle Hendaiarrak, baina ez da traba handirik alde hortarik eta kondaketan sartuz gero, ororen buru, irakurt errexa da testoa.” (*Maiatz* 22)

Karlos Gorrindoren eleberrigintza

90eko hamarkadan bi eleberri argitaratu ditu Karlos Gorrindok: *Ni naizen hori* (1992) eta *Amaren begietan* (1995). Bi eleberri haue-
tan oso gai ezberdinak jorratzen dituen arren, badira bietan errepika-
tzen diren hainbat ezaugarri: batetik, bietan pertsonaia nagusien
sentimenduei garrantzia berezia eskaintzen zaie; bestetik, bietan estila
irakurterraza eta zuzenaren bidez adierazten dizkigu gertakizunak;
azkenik, bi eleberrietan gai politikoa aipatu egiten da, bigarren maila-
ko pertsonaiei loturik joan ohi dena.

Gorrindoren lehen eleberrian, emakume sentitzen den gizon baten
istorioa kontatzen zaigu. Honela, honek dituen lotsak gaingintzeko
igaro beharreko bidea azaltzen digu. Horretarako, putetxeen giroa,
Bilboko gau giroa, ETako kide batekin duen harremana... aurkeztu-
ko dizkigu. Liburua, bestalde, ukitu sentimentalez josia dago.

Aipatu bezala, une batean Mariok bere nortasunaren inguruko
zalantza ugari izango ditu. Ondorioz, pertsonaia gatazkatsu honen
bilakaerak gidatu eta bilbatuko ditu gertakizunak. Belaundek egoki
azaldu du pertsonaia honen barne munduaren desorekaren zergatia:
“Tradiziozko baloreak, batzuetan zentzurik gabekoak, gorai patzen
dituen errealitateak norberaren sentimenduak zapuztuz eta pertsona-
ren barru mundua deuseztatuz, frustrazio pertsonala baino ez dakar.”
(*Egunkaria* 1992-X-9) Azkenean, Mario Afrika bere lagun trabestia-
ren laguntzaz Marilyn bihurtzeko beharrezko indarra eskuratuko du.
Bestalde, bere nortasun berria zeharo bermatzeko beharrezkoa zuen
lehen harreman sexuala Kepa deituriko ETakide batekin izango du.
Honela, hasieran bereizirik aurkezten zaizkigun hiru plano hauen
bateratzearekin ezohiko harreman hauen berri ematen zaigu. Hiru
plano hauetako istorioak pertsonaia ez den narratzaile estradiegetiko
batek kontatzen dizkigu: hots, estradiegetiko-heterodiegetikoa. Ele-
berri honen egituraketaz jardutean, Edorta Jimenezek ere hiru hari
bereizi zituen: “ehun eta hirurogeitik gora foliotako oihal zuria, zei-
netan hiru hari ezberdin eta orratz bakarra –idazluma– baliatuz, iku-
tu sentimentalez hornituriko brodatu errealista burutu duen.” (*Egun-*

karia 1993-I-10) Itziar Belaunderen aburuz, bestalde, une batean bat egiten duten bi hari besterik ez daude: batetik, Mariok bere sexualitatearekin duen arazoa planteatzen zaigu, hemen bertan sartuko luke Afrikarekin duen harremana, honek lagunduko baitio bere arazoa gaintitzen; beste aldetik, poliziarengandik ihesi dabilen Keparen istorioa genuke. Arestian esan bezala, Kepa eta Marioren harremanarekin aurreko bi planoak uztartzea lortzen da. Are gehiago, Itziar Belaundek eginiko iruzkinean liburu honetan aurki daitezkeen bikoiztasunak azpimarratzen dira. Bere iruzkinean aipaturiko bi plano horien bereizketaz aritzeaz gain, plano bakoitzeko pertsonaia bakoitzak pairatu behar duen bikoiztasuna azpimarratzen du: hots, Mario jaio dena eta sentitzen denaren bikoiztasunean bizi da; eta Keparen bikoiztasuna, ordea, ezkutuko eta azaleko bizitzan oinarritzen da. Izan ere, “biek ezkututzen dute beraien nortasunaren alde garrantzitsu eta funtsezko bat” (*Egunkaria* 1992-X-9). Honela, narrazioan pertsonaia nagusiaren gatazkarekin batera, Jimenezek dioen bezala, “beren sexu-nortasunaren bila dabiltzan hiru pertsonaia dakarzkigu Gorrindok.” (*Egunkaria* 1993-I-10)

Edozein modutan ere, errealismo handiz irudikatzen dizkigu harreman hauek. “Beti ere Karlos Gorrindoren ikuspegi zorrotz eta pertsonaletik miatua.” (Erauskin: *Deia* 1994-III-20).

Esan bezala, horretarako hirugarren pertsonako narratzaile estradiegetikoa darabil. Honek fokalizazioaren bidez hiru pertsonaia ezberdin hauen sentimendu eta egoeren berri emango digu. “Autorearen komentarioei esker haien ekintzak, ideiak eta eritziak objektiboki jakitera ematen zaizkigu, eta horrela ezohizko bizimodua daramaten istorioaren protagonistak pertsona arruntak bezala ikusi ahal ditugu.” (Belaunde: *Egunkaria* 1992-X-9)

Lehenago adierazi dugun legez, Bilbo Handian kokatu ditu eleberrri honen gertaerak. Las Corteseko auzoan, zehazki. (Honek gogora dakarkigu beste hainbat narraziotan deskribaturiko giroa: *Manhattan* -ikus 4.2.-, eta *Speed gauak* -ikus 2.2.-, esaterako). Gainera, oso gertutik deskribatzen digu mundu hori bertan aurki daitezkeen samurtasun eta adiskidetasunaren berri emanaz. Honela, irakurle batzuentzat urruna eta ezezaguna den mundu horrekiko hurbiltasuna sentiaraztea lortzen du.

Itziar Belaunderen ustez, “itxura baino gehiago edukiari begiratu behar zaio, gaur egungo gizartean hain gogor finkatutako baloreak zalantzan jartzeko gauza delako elaberri hau, eta baita ere, pil-pilean dauden oso gai ezberdin eta interesgarriak hautatu dituelako, ondo kokatuta benetazko inguru batean.” (*Egunkaria* 1992-X-9)

Gorrindok bere bigarren eleberri laburrean, *Amaren begietan* eleberrian, berriro ere pertsonaia baten sentimenduetan sakontzen saiatu da. Eleberri honen istorioa kontatzeko berriro ere hirugarren pertsonako narratzaile estradiegetikoa darabilen arren, amaren ikuspuntutik kontaturiko narrazio baten aurrean gaudela: pertsonaia hau izango da fokoa, pertsonaia honen ezaugarrien berri emateko batik bat barne fokalizazioa erabiliz. Honela, bi seme-alaba dituen andre baten bizipenak aipatuko ditu: Karmenen bizipenak. Azken boladan nahiko gaixorik sentitzen da, menopausiaren eraginez edo. Bestalde, bere alabak ezkontzeko asmoa du eta horrek urduri jarri du. Baina, espero ez zuen gertakizun batek bere benetako oinazea ekarriko dio: bere semea, Eneko, atxilotu dute, ETako kidea delakoan. Egoera berri honen aurreko amaren sentipenak islatu nahi dizkigu idazleak. Idazlearen beraren hitzetan “emakumearen sentimendu unibertuala nahi izan dut isladatu, ama baten ikuspegitik.” (Zabala, Juan Luis: *Egunkaria* 1995-XI-5) Hortaz, erakunde armatuaren inguruko aipamenak, batez ere, egoera horien aurreko amaren jarrera azaleratzeko baino ez ditu aipatzen.

Nahiz eta eleberri osoa amaren ikuspuntuaren arabera egituratua egon, azken zatian amaren pertsonaia desagertzean, Enekoren begietara hurbiltzen da narratzailea. Honela, barne fokalizazio iraunkorra hautsi eta fokalizazio aldakorrari bidea irekitzen dio. Antza denez, amaierako fokalizazio aldaketa hau egin ahal izateko aukeratu du egileak hirugarren pertsonako kontalari orojakilea, eta ez sentimenduak adierazteko ohikoagoa den lehen pertsona.

Baina, nahiz eta idazlea amaren barne munduan sakontzen saiatu den, ez du gauza bera egingo gainerako pertsonaiekin. Ez dira hauen gogoeta eta pentsamenduak azaltzen, ez dakigu egin dutena egitera zein arrazoik bultzatu dituzten. Azaleko aipamen batzuk besterik ez dira egiten. Hortaz, Karmen da eleberri honetako pertsonaia biribil bakarra, semearen atxilotetak barne ezinegona sortaraziko baitio.

Oro har, garapen kronologikoaren arabera harilkatzen dira eleberriko gertakizunak, atzera egite gutxi batzuk besterik ez daude-eta. Bizkaiko herri txiki batean kokatzen da narrazioa, haatik, ez du honen deskribapenik eskaintzen, ez aipamen berezirik. Kontakizunean zehar aipatzen diren beste herriak ere Bizkaian kokatzen dira: Muxika, Basauri... Baina, ez dio espazioari arreta berezirik eskainiko, ez denborari ere, kronotopoa zehazteke utziaz.

Amaren sentimenduen errepikapenek nahiko nobela triste eta melankoniatsua bihurtzen dute. Gorrindok bere bigarren eleberri honetan berriro ere errealismoaren ildotik aritzea hautatu badu ere,

ez du inguruko giroa xehetasunez azalduko. Izan ere, bere lehen eleberrian giroak eta inguruak bideratuko dituzte pertsonaien sentimendu eta bilakaerak; oraingo honetan, ordea, gertaera jakin batek sortaraziko du bereziki amaren oinazea. Gainera, *Ni naizen hori* eleberrian pertsonaien garapena zehazki irudikatzen du, bilakaera nabarmena izanik. Bigarren eleberri honetan, ostera, sentimenduak adierazi arren, ez dugu aldaketarik antzematen amaren izakeran.

1.4. Eleberri psikologikoak

Eleberri psikologikoetan pertsonaia baten barne munduan, bere garapen psikologikoan, sakontzeko ahalegina nabarmentzen da.⁸ Ondorioz, eleberri hauetako pertsonaia nagusi guztiak pertsonaia biribilak izango dira.

Jokin Muñoz: *Joan zaretenean* (1997)

Jokin Muñozen lehen eleberriaren sailkapenari dagokionez, honakoa aipatu izan da. Lutxo Egiaren ustez, “eleberriari kutsu existentzialista dario.” (*Deia* 1998-I-9) Xabier Aldai ere honela mintzatu zen eleberri honetaz: “nobela existentzialista hutsa da, bere aberastasun eta kontraesan guztiekien.” (*Egunkaria* 1997-X-11) Izan ere, orrialde hauetan Alvaro Egiazabalen gogoetak dira nagusi. Alvaro bere neska-laguna izandako Helenari mintzaten zaio: Helenari bere kezka, beldurrak, gogoetak, hausnarketak... ezagutarazten dizkio. Beraz, Alvaro bera da istorioaren kontalaria eta bigarren pertsonan zuzentzen zaio bere maitalea izandakoari: beraz, istorioaren pertsonaia nagusia den narratzaile intradiegetikoa dugu; hots, narratzaile autodiegetikoa. Era berean, narratariora intradiegetikoa da, istorioan parte hartzen duen pertsonaia baita: Helena. Gainera, narratariora irreferentzia zuzena egiten zaio. Hau guztia ikusirik, bakarrizketa luze baten aurrean gaudela esan genezake. Gainera, narratzaileak eleberri psikologikoetan ohikoa den bezala, barne fokalizazioa darabil pertsonaiaren barne munduaren berri emateko. Kasu honetan, barne fokalizazio hori iraunkorra da, Alvaro izango baita fokoa eleberri osoan zehar.

Gogoeta hauen artean Helenarekin izandako harremanaren berri emateaz gain, bere aspaldiko lagun batekin gertatu zaiona kontatuko

⁸ Estébanez Calderón, Demetrio. 1996. *Diccionario de Términos literarios*, Alianza, Madril, 764 orr.

du: Mikeli, Madrilen atentatu batean parte hartu ondoren, etxean ostatu eman dio. Are gehiago, hau izango da aitzakia narratiboa. Honela azaltzen ditu Lutxo Egiak Mikeli atea ireki izanaren arrazoiak: “Haurtzaro eta gaztaroko lagun honi ateak irekitzera bultzatu duten arrazoiak adostasunetik edo elkartasunetik urrun daude. Alvaroren beraren baitan daude, estu-estu lotuta bere porrotei.” (*Deia* 1998-I-9) Alegia, barne sentipenek bideratuko dituzte pertsonaiaren ekintzak, eta sentipen horien artean sarritan galtzailearen sentipenak aginduko du. Are gehiago, Alvaro sentimendu horri aurre egin nahian dabil. Beranduago, Mikel atxilotu dutela jakitean, Alvarok Donostia-ra, bere jaioterrira alde egingo du, bertan nerabezaroko hainbat gertakari gogora ekarriko dituelarik. Hortaz, gogoeta hauek guztiak izango dira eleberriaren funtsa. Hots, gogoetok hartuko dute garrantzia eta ez ekintzek, Luis Mari Mujikak aipatu bezala: “Ekintza baino gehiago –nahiz aktibismoari loturiko ekintzak ez falta bertan– (gertakariak baino harantzago) sor daitezkeen erreakzioak, andana intimoen ikuspegia eskaintzen digu, gehienbat.” (*Egan* 50) Bestalde, Alvaro margolaria denez, askotan marrazkiek beteko dute bere gogoeten gidari lana. Hala ere, eleberri honetan barnekoitasunak duen garrantzia azpimarratzeko egokia iruditu zaigu Luis Mari Mujikaren hitzok bertaratzea:

Era berean, liburuan zehar sentimenduak xalo eta natural jalgitzen dira, giza esperientziaren aldeak ahalik eta aberatzen isladatuz. Eleberri osoan, barnekoitasun aipatua, kanpotik eta azpitik doan hari datualaren ondoan doa, nobela inoiz ere tragiko, ikaragarri, barroko edo uholdetsu azaltzen ez delarik. (*Egan* 50)

Kokapenari dagokionez, gogoetoi egiantzekotasuna erantsi asmoz, leku errealak hautatu ditu. Tramaren zatirik nagusia Donostian gertatzen da, nahiz eta Madril ere maiz aipatzen den. Hala ere, leku hauen eginkizuna gogoeten norabidea gidatzea izan ohi da, batez ere bi funtzio hauen bidez; batetik, oroitzapenak gogora ekarri; eta bestetik, paisaia eta egoera animikoaren arteko lotura eginez. Hona hemen honen guztiaren inguruko hainbat iruzkin:

Euskal hiriburuko aldarte gehienak –parte zaharrear, kaian, hondartzan, Ondarretan, Gros aldean– txertatzen dira aniztasunez, nahiz eta akzioa ez izan bertako narrazioaren giltza nagusia. Gehiago isladatzen dira, bada, bertan amodioa, ekintza aktiboen –atentatuen, esate baterako– adierazpen psi-

kologikoak; planu desberdinen loturek beti halako oihartzun intimista dute. (*Egan* 50)

Gauza jakina da, paisajearekin transposizio egin daitekeela, eta benetako estetek paisajea aurkitzen dutela baitako egoeren islada garbiena. Hemen prozesu intimistak kanpokoa barnera ekarriko du. (...) Paisajearekin barneratze prozedurak garatzea –poesian batez ere–, ohikoa da, eta eleberri honetan, poesia eta narrazioaren mugak itzalita azaltzen dira, maiz. (*Egan* 50)

Gogoetetan oinarrituriko narrazioetan ohikoa den bezala, denboran atzera egiteak ugariak dira, batez ere, bere nerabezaroko zenbait pasarteren berri ematean. Kanpo analepsi hauek pertsonaiaren izaera ezagutzen laguntzen digute. Are gehiago, oroitzapen hauek antolatuz eta interpretatuz pertsonaiak berak bere burua ezagutzeko bideari ekiten dio. Bestalde, denboraren jarraikortasun ezak askotan jada aipaturiko zenbait pasarteren errepikapena dakar. Luis Mari Mujikak honako iritzia du errepikapen hauei dagokienez: “Orri batzuetan idazkeraren joera errepikakor eta gogoetsuak asperrera jotzen du, baina makur hori oso errealista –edo akzioz oso betea ez den– edozein narraziori gerta dakioko.” (*Egan* 50) Haatik, errepikapen hauek, askotan jazo dena irudikatzen laguntzen digute, eta errepikatzen den egoera hori ez du beti efektu bera sortarazten: izan ere, testuaren leku ezberdinetan egoteak sentazio ezberdinak dakartza, batetik bestera dugun informazioa aldatuz baitoa: narrazioaren munduari buruzko gure ezagutza ezberdina baita.

Egunkariako iruzkinean aipatzen zen bezala (1997-X-11), nerabezaroko oroitzapenek bi bide irekitzen dituzte: batetik, Alvaroren izaera ezagutarazteko lekukotasunak eskaintzen dizkigute: “izan ere, protagonista eta bere koadrilaren artean bada horrelako inkomunikazioa galarazten duen murrurik, Alvaro hainbat alditan bakardadearen bila ihes egitera behartzen dutenak.”; bestetik, belaunaldi jakin baten lekukotza eskaintzen digu, horretarako beste pertsonaia batzuk gehituz:

Ekintza horrek [inkomunikazioarenak] hein handi batean Alvaro ez dela bere belaunaldiaren portabozik egokiena iradokitzen duela deritzot. Horregatik nik uste justifikatzen dela generazio horren argazkia osatzeko Lupi, Alvaroren arreba eta Mikelen neskalaguna izandako pertsonaia. (*Egunkaria* 1997-X-11)

Estiloari dagokionez, honakoa aipatzen digu Xabier Aldaik: “hizkuntzaz aberatsa, eta dotore idatzita, nahiz eta narrazioa zenbait pasartetan apur bat gehiago konprimitzea eskatzen duen.” (*Egunkaria* 1997-X-11) Luis Mari Mujikak intimismoan ikusten du eleberrri honen lorpenik behinena:

Gertakariak pertsonaien ariman –eta erresorte psikologiko konplexu eta luze harilkatuetan– txertatzen dira. Euskaldunon arima bilusteko ohiko pudorea gaingitzen da trazo ongi lortuetan, eta gertakizunen hariak inguruko beste sare egituratuago –eta narrazioan garrantzitsuagoa den– trama intimora, ehun barnekoiagora ihes egiten du, behin eta berriz. (*Egan* 50)

Manu Erzilla: *Ez* (1999)

Liburu honen aurkezpenean egileak berak aipatu bezala, izenburua Thomas Bernhard-en *Bai* lanaren haritik doa: “Bernharden lanean ageri den protagonistak “bai” esateko azken aukera du. Nire lanean justu kontrakoa gertatzen da, eta horrela jarri nion *Ez*”. (Iban, Amagoia: *Egunkaria* 1999-V-27).

Hain zuzen ere, pertsonaia batek erabaki bat hartu aurretik izandako zalantzak eta beldurrak dira eleberrri honen ardatza. Zehazki, umezurtz geratu den mutil baten gomutak aurki ditzakegu. Gurasoen heriotza dela-eta, bere patrimonioa salmentan jartzea erabaki du. Notario jaunaren aurrean eroslearen zain dagoela, bere bizitokian, Pirinioetako Aspe haranean igarotako uneak gogora dakartza. Hone-la, eskualde horrek bere nortasun edo bizitzan esanahi berezia duela ohartuko da. “Eskualde hori bilakatu da norberaren axioma existentzialak egiaztatzeko inguru egokiena. Naturaleza malkar eta elkor horretan beste nehon baino eskuera handiagoa du norbere abalmenak oro, hala nola asmamena, adimena, jakin-mina... erabiltzeko.” (*Habe* 295) Horregatik, lurralde horretatik ezin izango du ihes egin eta erabaki bat hartu beharko du. Irakurleoi erabakia zein izango den izenburutik bertatik adierazten zaigunez, idazleak erabakiari berari garrantzia eman baino, nahiago izan du patrimonioa salgai jartzeak pertsonariari sortarazi dizkion sentimendu, oroitzapen eta gogoetak islatzen saiatzea. Hori lortzeko “hainbat gairi buruzko aipamen eta hausnarketak ere, Saint-John Perse nobel-saridun poeta frantsesaren aipuekin eta Jaun Notarioaren ikuspuntu existentzialista ezezkorrarekin nahastuta” darabiltza. (Benito, Jon: *Gara* 1999-VI-12)

Inazio Mujikaren ustez, “istorioak badu halako eri kutsu bat. Arimazko eritasun baten kutsua. Giro etsia eta itxia azaltzen du nola-bait, arrotza.” (Iban, Amagoia: *Egunkaria* 1999-V-27). Bestalde, euskal literaturan horrelako gogoeta-jario narratiboa irakurtzearen ezohikotasuna iruzkin gehienetan azpimarratu da.

Pertsonaiaren gatazken berri emateko, egile honek ere bakarrizketa baten modura egituratu du kontakizuna. Narratzailea, hortaz, lehenengo pertsonan mintzatzen da eta istorian parte hartzen duen pertsonaia nagusia da: narratzaile autodiegetikoa, beraz. Barne bakarrizketa hauetan barne fokalizazioa iraunkorra eta erabatekoa da.

Denborari dagokionez, oso epe laburra da azaltzen zaiguna. Oro har, narrazioaren denbora lineala da, oroitzapenetan izan ezik: haue-tan atzera-saltoak nabariak dira, noski. Kasu gehienetan, kanpo analepsiak erabiltzen ditu, erabakia hartu aurreko gertaeren berri eman- ez. Epe labur horretan ez da gauza gehiegirik gertatzen, ekintzak baino, pertsonaiaren barne mundua baita garrantzitsua: bere psikologian sakontzea du helburu idazleak.

Besteak beste, Pirinioetako munduaren berri ematen digu gogoeta hauekin. “Aspe bezalako ibar batekoa, hiritik urrun, baina ikuspegi hiritarretik ere begiratuta”.(Fernandez, Jose Jabier: *Egunkaria* 1999-VII-31)

Liburu honek kontaturiko istorioaz gain badu beste berritasun aipagarri bat: hizkera. Izan ere, aho hizkeratik urrun dagoen idaz- moldea erabili du bere lana osatzeko. Hona hemen Mendiguren Eli- zegik eginiko azalpena:

Erzillaren lana zehazteko datu bat jakitea komeni da: Federiko Krutwigek sortu eta gidatzen zuen Jakintza Baitha taldeko kidea dela (edo zela; ez dakit sortzailea hilez geroztik taldeak jarraitzen duen); horrek gutxienez hizkuntza modu jakin bat hautatzera eramán du: hizkuntza kultura, periodo luzeetakoa, mailegu anitz darabiltzana, zehaztasun lexikal eta sintaktikoaren onetan, euskara batuaren arauak betez nolnani ere. Efektua bitxi samarra da, aitortu behar dut, baina gutxi gorabehera horrelatsu imajina liteke izango litekeela euskara idatzia Joanes Leizarragaren bideak aurre- ra egin balu.

Idazkera jantzi eta zail samar hori bat dator egilearen esti- loarekin ere: oso gutxi dira nobelako gertakariak, batere ez elkarrizketak, barne gogoeta eta analisi xehe, zehatz ia obsesi- bo bat da testua, irakurleak lehenengo orrietan aspertuta alde

batera uzten ez badu azkenerako ahalmen hipnotiko bat ere izan dezakeena. (*Jakin* 113)

Edozein modutan ere, oso argia da hizkera berezi hau sortzeko euskal literatura tradizionalako zenbait testutara jo duela, eta “egungo osagarriekin eguneratzen saiatu”, idazleak berak aitortu zuen bezala. (Iban, Amagoia: *Egunkaria* 1999-V-27).

Jon Benitok dioen bezala, “zinez poliki irakurri eta ahoan gozatzeko modukoa baita, batzuetan kontzientzi-ernagarri bilakatu daitekeen arriskua izanik.” (*Gara* 1999-VI-12) Gainera, Jose Jabier Fernandezekin bat eginez, “liburu honetan helburua edota helmuga baino bidea baita garrantzitsu eta interesgarriagoa”. (*Egunkaria* 1999-VII-31) Agi denez, aukeraturiko edukia hausnarketa eta sentimendu jariorako aitzakia baino ez da.

Lourdes Oñederra: *Eta emakumeari sugeak esan zion* (1999)

Lourdes Oñederrak Donostiatik Europa erdialdeko hiri batera ihesi doan emakume baten barne mundua aurkezten digu. Izan ere, nolabaiteko ilusioaren bila bere ohiko bizimodutik alde egiten du Teresak, baina, ezin izango du ilusio eza gainditu, bizitzaren aurrean duen nekea gainditu. Hau da, bidaia bikoitza islatzen da: batetik, bidaia fisikoa, W.ra (Viena omen dena adierazteko erabilia); bestetik, barne bidaia, ilusioaren bilaketa. Honela mintzatu zen Felipe Juaristi gai honen inguruan:

Garbi dago bidaia guztiak, munduan zeharkakoak izanik ere, munduaren larruan batera edo bestera jotzen dutenak, barnekoak ere badirela neurri handian, denboran aurrera eta atzera egiten baitute. Geure baitatik ihes egiteko, edo bestela geure burua aurkitu ahal izateko, egiten dugu bidaia. (*El Diario Vasco* 2000-III-25)

Are gehiago, ilusioaren bilaketak eragingo du bidaia fisikoa. Gainera, “bukaeran barne ezinegon areagotu horrek luzatu egiten du bidaia fisikoa, berriro gertaraziz.” (*Egunkaria* 1999-XII-5). Izan ere, Mari Jose Olaziregik aipatzen duen bezala, “protagonistaren erabaki ausarta amaieran, guztiarekin eten eta berriro hastera bultzatzen duena” (*Egunkaria* 2000-III-25) nabarmentzekoa da, erabaki hau hartu izanak luzatuko baitu bidaia fisikoa. Erzillaren eleberrian legez, barne munduak gidatzen ditu bai ekintzak, bai sentimenduak, bai gogoetak. Eta gogoeten bidez, zalantzak, izuak, desioak, galderak, ... azaleratzen ditu. Jon Benitoren aburuz, bakardadea da pertsonaia nagusiaren sentimendurik larriena:

Sosegurik ezak Andresengandik Luisengana, lehendabizi, eta bizitzaren muturreraino, geroago, eramango du protagonista. Oroitzapena, Debatik Donostiarako bidean zihoan autobusean izaniko sentimendu hura (zoriona?), birjintasuna galdutako memento haiek, Andresekiko hoztasuna, Luisekiko gero eta gertutasun handiagoak... Hori guztia bakardadea sentitzeraino. Ez bakardade fisikoa. Bakardadea, badakizue zuek. Bestelakoa. Sentimendu, gertakari eta gogoeta ezberdinak nahasten dira barne bidaia horretan. (*Gara* 2000-II-26)

Donostiarraren aburuz, honako hauek dira liburuan jorratzen diren gai nagusiak: batetik, “Evak Paradisuan sugearekin izandako pasadizoari egiten dio erreferentzia izenburuak, erruaren eta zigorraren figurak baititu eleberririk ardatz nagusitzat”; bestetik, “gizakion arteko komunikazioarena, gizakion arteko erlazioak eta hor sortzen diren ulertu eta ezin ulertuak” (*Egunkaria* 1999-XII-5). Olaziregik gizon-emakumeen arteko inkomunikazioaz dihardu:

Alferrikakoa zaie nobelako pertsonaia maskulinoei haren-gana hurbiltzen ahalegintzea, urruti, oso urruti baitago. (...) emakumezkoen eta gizonezkoen arteko urruntasuna, bizitzeko eta sentitzeko modu desberdintasuna, ezinulertu erabatekoa. (*Egunkaria* 2000-III-25)

Bestalde, Oñederrak honako beste gai hauek jorratu nahi izan zituela ere aipatu zuen:

Harreman sexualetan etab... ematen diren komunikazio ezinak-eta gai interesgarriak iruditzen zaizkit, finean horretan ezinak ematen badira askotan norberak bere buruarekin komunikazio falta duelako izaten baita. (...)

Sexu harremanak, maitemina erakargarritasuna duten harremanak dira, esperantza irekitzen dutenak; ematen du bizitzak askoz gehiago eman behar duela, baina askotan ez da horrela izaten, eta nire ustez horregatik datoz haserreak, agre-sibitatea eta hainbat gauza. (*Gara* 2000-I-29)

Ikuspuntuari dagokionez, narratzaile orojakile batek ematen digu gogoeta hauen guztien berri. Are gehiago, narratzaile hau Teresa modura irudika dezakegun narratariorari mintzatzen zaio. Beraz, istoriaren pertsonaia nagusia izango litzateke eleberririk honetako narratariorik intradiegetikoa. Bestalde, narratzaile honek batzuetan fokalizazioa erabiltzen du beste pertsonaien gogoeten berri emateko. Itxuraz,

gainerako pertsonaien sentsazioak adierazi ahal izateko darabil narratzaile orojakilea, eta ez lehenengo pertsonan diharduen kontalaria. Izan ere, lehenengo pertsonako narratzaile baten bidez hirugarren pertsonako narratzailearekin baino gehiago murrizten baita esparrua. Amagoia Iban honela mintzatzen da ikuspuntuari dagokionez: sarritan “narratzailearen hirugarren pertsona hori Teresaren barne pentsamenduarekin bat datorrela, halako sinbiosi prozesu baten bitartez.” (*Egunkaria* 2000-I-15) Beraz, narratarioari zuzenean mintzaztearen bidez efektu hau lortu du.

Orokorrean, hiru pertsonaia besterik ez zaizkigu deskribatzen eleberri osoan zehar. Batetik, bere senarra “Andres, profesionalki eta sozialki garaitzat jo dezakegun gizona”: bere maitalea, “Luis, aspaldiko lagun min eta maitea”; eta azkenik, Teresa bera. Bi hauengan ilusioa berreskuratzen nahiko du, baina, azkenean ilusioa norberarengan bilatzeko beharraz ohartuko da. Teresa kazetaria da, eta ilusio ezak erretzen dion ezinegonak idazteko gaitasuna deuseztatu dio. “Sormenaren iturria agortua du, antzu, bere gorputza bezala, ez baitu hilerokorik ere izaten jada.” (*Egunkaria* 2000-I-15) Hortaz, ilusioaren bilaketa ere, bilaketa antzua izango da. Bestalde, ilusio txiki horien bila iraganera joko du:

Memoria ametsen osagai garrantzitsua ere bada, eta baita orainari ihes egiteko aitzakia moduko bat ere. Beharbada nire liburuko pertsonaiari hori gertatzen zaio, orainari ekiteko gero eta gogo eta indar gutxiago duela, eta lehenaldira jotzen du, lehenengoaren eragina du. (...)

Finean, dena osotasun batean dago, lehena eta oraina, elementu pila baten batuketa gara: nitasun bat behar dugu baina ez gara gauza monolitiko bat. (...)

Liburuko pertsonaia nagusiak, agian, lehenaldiaren pisua-
ren desoreka dauka barnean. (*Gara* 2000-I-29)

Hau guztia kronotopo zehaztu batean txertatu du: izan ere, W.n eta Donostian kokatzen ditu gertaera nagusiak, eta garai jakin batean. Giroari dagokionez, egileak berak aipatu bezala, “nobelana badaude aipu batzuk gure belaunaldiaren autobiografikoak: lehenengo porroak, lehenengo sexu harreman haiek, lehen feministak... nire garaiko kontestua agertzen da apur bat.” (*Gara* 2000-I-29)

Denboraren jarraikortasunari dagokionez, gogoetek jarraipen kronologikoa badute ere, oroitzenak eranstea ohikoa den bezala, itzulitako ugarirekin topo egingo dugu. Izan ere, bere iragana oroitze beharrezkoak dira analepsiak, hau da, denboran atzera egiteak;

bestalde, bukaera iragarriko duten hainbat aurrerapen aipagarri ere badira. Esaterako, bidaiaren iragarpenaren zantzuak etengabeak dira: hortaz, iragarpen hau zuzena denean, prolepsis baten aurrean egongo ginateke.

Amagoia Ibanek honako interpretazioa egin zuen:

Bizitza baten zikloa da azken finean agertzen zaiguna, bizitza askorena izan daitekeena. Xalotasuna, minak eragindako gogortasuna, gogortasunak eragindako minak, minak gainditzeko beharrezkoa den barne ezagutza eta onarpena: bakardadearen ezinbestekotasuna. Eta ziklo hori liburuan hedatu ahal izateko, urtaroen zikloa hartu du oinarri Oñederak. (*Egunkaria* 2000-I-15)

Beste alde batetik, idazleak narrazioa urtaroka antolatuz, eta hauetan egunak eta orduak bereiziz, jarraikortasuna xehetasun handiz adieraztea lortuko du. Izendapen hauen bidez, liburua hasieran azpimarratzen duen ideari erreferentzia egiten dio: hasierako aipu batean, hitzak eta izenak zerbaiti eusteko behararen ondorioz ezartzen ditugula aipatzen du. Hots, desorekatuak orekatzeko asmoarekin sortzen ditugun antolaketak direla. Desoreka eta orekaren arteko kontrastea egoki islatzen da eleberrin honetan: urtaroen eta denboraren antolaketa zehatzaren ondoan, Teresaren gogoeten noraeza agertzen baitzaigu. Era honetara, “Kanpo denbora barne denborarekin alderatzen da, kanpoko mezuak oroimenean gordeekin alderatzen diren bezalaxe.” (*Egunkaria* 2000-I-15) Izan ere, kanpo denbora ordenatu eta orekatu badaiteke ere, barne denbora kontrolaezina eta ordenaezina da.

Estiloari dagokionez, idazkera erraza hautatu du: oso estilo bizia eta adierazkorra. Perpaus laburrak, eskematikoak, baina indartsuak. Hitz joko ugari ere erabiltzeko joera erakutsi du. Gainera, han hemenka irudiz osaturiko poema modura antolaturiko zatiak oso iradokitzaileak dira.

Gainera, beste idazle, musikari, margolari, e.a.en erreferentziak etengabeak dira. Batzuk aipatzeko asmoz, Olaziregiren hitzak jasotzea egokia iruditu zaigu:

Hasieratik bertatik aipatzen zaizkigun irudi eta erreferentzietan (*The four season*-en (1986) gizakiaren adin desberdina margotu zituen Jaspers Johns margolaria, A. Vivaldi edo F. De André-ren kanta), badakigu heriotza izan ezean, beste helmugarik ez duen bidaia baten aurrean gaudela.(...)

Eta Vienan gaudenez, mende hasieran Habsburgotarren dekadentzia bizi izan zuen hirian, ulergarria da L. Wittgenstein aipatzea. Bera izan zen adierazpide artistiko desberdinetan hedatuz zihoazen aire berritzaileak hizkuntzaren filosofiarren eremura eramanez zituena. (*Egunkaria* 2000-III-25)

Estiloari dagokionez, *Egunkariako* beste iruzkingile honek adierazitakoaren iritzi berekoak gara gu ere:

Baliabide literario moduan erabili du, gainera, oraingoan behartu gabeko etorri hori, harantzago eramanez hitz jarioaren iturria, protagonista nagusiaren (Teresa) pentsamenduak ahalik eta modu natural eta egiazkoagoan eskaini ahal izateko irakurleari.” Izan ere, gogoeta-jarioak “ez du hizkera kargaturik onartzen, pedanteria ez erortzearen. Narrazioaren pulstu bizkorrak plano aldaketak jostun gisa harilkatzea behartu du idazlea, eta ez da makal ibili. (*Egunkaria* 2000-I-15)

Oñederrak, hortaz, egiantzekotasuna eskaini nahi izan du. Erzi-llaren aukerarekin alderatuz, idazle hauen helburuak bestelakoak zirela nabarmena da: Erzilla gogoeten bidez hizkuntza lantzeko aukerari lan egin du; Oñederrak, aldiz, gogoeten bidez sinesgarritasunez pertsonaia baten gogoetetara hurbildu, eta ezinegona adierazi nahi izan digu. Bi jomuga ezberdin, bi saio ezberdin.

Testuartekotasunari dagokionez, Jon Kortazarrek eleberriak jasotako Espainiako Kritika saria zela-eta, Marguerite Duras eta Doris Lessingen literaturarekin lotu zuen. (*Egunkaria* 2000-IV-9)

2. KAPITULUA: Errealismoa

Arestian aipatu bezala, fikziozko istorioak kontatzea da eleberrigintzaren oinarria; hots, fikziozko munduak sortzea. Baina, fikziozko istorio hori geureganatu ahal izateko, eleberritik at ezaguna dugun errealitateaz baliatu behar dugu, eleberrian eskaintzen zaigun mundu hori irudikatu ahal izateko: idazleak utziriko hutsuneak betetzeko, aipaturiko erreferentzia ezagunak irudikatzeko,... Are gehiago, zenbaitetan errealitate horri erreferentzia zuzena egiten dioten elementuak ageri dira (datu historikoak, pertsonaia ezagunak, esaterako), eta hau ezagutu ezean, zailagoa egingo zaigu fikziozko mundua ulertzea edo irudikatzea (batzuetan hutsune batzuk betetzea oso zaila edo ezinezkoa izango baitugu).

Itxura denez, irakurleok ez dugu fikziozko errealismoaren inguruan eraikitako mundua zientzia fikziozko mundua baino errazago irudikatze ahalmunik. Izan ere, biak sortzeko eleberritik kanpogure ezagutzatik hartzen ditugu erreferentziak. Baina, batzuetan fikzio horri egiantzekotasuna erantsi nahiz errealitateko munduko elementuei erreferentzia zuzena egiten zaie. Hartara, sinesgarritasuna eta egiantzekotasuna helburu duten eleberriak izango ditugu hizpide errealismoaz⁹ hitz egitean. Hots, errealitatearen ahalik eta imitaziorik leialena egiteko asmoa erakutsi dutenak.

2.1. Fikziozko autobiografiak

Honako bi eleberrri hauetan fikziozko pertsonaia batek bere bizitza kontatuko digu, ohiko autobiografiaren bideak jarraituz.

Joxe Belmonte: *Ez dira ilunak* (1990)

Joxe Belmonteren lehen eleberrri honen trama nagusia honetan datza: beneditarren eskola maisua den Joan heresiagatik bota egiten dute. Hemendik aurrera mendeku goseak bideratuko ditu Joanen ekintzak, eta hauek egin izana, bestalde, bere bizitzaren bidea zehaztuko dute. Mendekua liburuko sentimendurik errepikatuen izango da.

Hasierako mendeku hori dela-eta, protagonistak ihes egin beharko du, eta herri ezberdinetan bizitzen egon ondoren, Urduñan ezkondu eta seme-alabak izango ditu. Dirua eskuratzeko, merkataritzan lanean hasiko da bere bi lagunekin, Tomas eta Ferminekin. Baina, Urduñan gertaera tamalgarri batean parte hartu beharko du, eta herritik kanporatuko dute. Kanpoan merkataritzan ibili ondoren, Bilbora doa bizitzera. Eleberrria han hemenka egileari jazoriko hainbat abentura eta azpijokoren kontaketa oinarritzen da. Honela laburbiltzen ditu kontakizun honetako elementu garrantzitsuenak *Egunkariako* iruzkingileak: “mendekuak, heriotzak, amorioak, ihesaldiak, leinuen arteko gatazkak, bahiketak, tribuak,...” (*Egunkaria* 1991-I-12)

Arestian esandakoaren haritik, narratzailea lehenengo pertsona aritzen da eta kontakizuneko pertsonaia nagusia da. Hortaz, narra-

⁹ Zehaztasun gehiagorako ikus bedi: Estébanez Calderón, *Diccionario de Términos literarios*, 900 orr.; Antonio Garrido Domínguez. 1997. *Teorías de la ficción literaria*, Lecturas/Arco; Sullá, Enric (arg.). 1996. *Teoría de la novela: antología de textos del siglo XX*, Crítica, Bartzelona.

tzaile autodiegetikoa aukeratu du hurbiltasuna areagotuz. Gainera, eleberriaren hasieratik azpimarratzen da pertsonaia nagusiak bere bizitza kontatzeko duen asmoa. Hots, pertsonaia nagusia izango da nobela honen kontalaria, era honetan narratzailearen ikuspuntua murriztuz. Narratzaile autodiegetikoa definizioz, maila intradiegetikoan kokatzen denez, narratzaile intradiegetiko-homodiegetikoa erabili du egileak. Izan ere, iragana kontatzen duen pertsonaia nagusiaren orainaldiko nia da maila estradiegetikoko narratzailea, baina, iraganeko niaren gorabeherak kontagai dituen heinean, maila intradiegetikora jauzi egiten du. Hau da, istorioa ezagutarazten digun ahotsa orainaldiko ni narratzailea litzateke, eta iraganeko nia, aldiz, fokoa.

Bestalde, narratzailea narratario estradiegetiko zehazgabe bati zuzentzen zaio, kontatu behar duena benetan gertaturiko istorio bat dela adierazteko.

Pertsonaia nagusia, noski, Joan narratzailea bera da. Nahiz eta pertsonaia nagusiak bere bizitzaren berri eman, ez du bere barnean sakontzeko ahaleginik egiten, izan ere, batik bat ekintzak axola zaizkio. Hots, bere bizitzan jazorikoari ematen dio lehentasuna, eta kanpo fokalizazioaren bidez aurkezten dizkigu gertakizunak. Beraz, pertsonaia biribila izatetik urrun dago, ez da garapen zehatzik sumatzen. Eleberriko gainerako pertsonaiak ere lauak dira: Josepa bere emaztea, Tomas eta Fermin bere lagunak,... Izan ere, mendekua izango da ekintzen gidari bakarra.

Denboraren iraganean, jarraikortasuna da nagusi. Haatik, zenbaitetan oroitzapenak alde batean utzi eta narratzaileak bere orainaldiko egoerari egiten dio erreferentzia, prolepsiak han hemenka tartekatuz. Biografia honi sinesgarritasuna emateko, noski, kronotopo determinatua darabil. Batetik, istorioak garai jakin batean kokatu ditu: pertsonaiak berak bere jaiotze data eta urte kopurua ezagutarazten dizkigu eleberriaren hasieran: narratzaileak 1502. urtean ekiten dio kontakizunari, 60 bat urte dituela. Beraz, urte jakin batzuetan kokatzen ditu gertaerak: 1440-1500 arteko epea izango dugu eleberri honetan kontagai. Garaiaren inguruko erreferentziak, noski, ugariak dira. Bai garraiobideei dagokienez, bai jantziei dagokienez, bai bizi-moduari dagokionez,...

Bestetik, lekuak ere zehaztasunez azaltzen dira. Gainera, atal bakoitzaren izenburua herri baten izena da. Hain zuzen ere, atal bakoitzaren hasieran bertan kontatuko dena non kokatu behar den hasieratik zehazten digu, bidaia fisikoaren adierazgarri. Bidaia hauen bidez garai hartako euskaldunak irekiak zirela adierazi nahi izan du

egileak: “Garai oso irekia izan zen. Itsasoari beldurra galdu zitzaion.” (*Argia* 1318-1319) Izan ere, honen hitzetan “Liburuaren bi ardatzek Erdi Aroa ez dela hain iluna eta euskaldunak ez garela itxiak adierazten dute.” (*Argia* 1318-1319)

Eleberri honi buruzko iritzi honekin topo egin dugu:

Agian, abentura mota gehiegi nahasten da nobelan, agian, zenbait puntu geratu da argitzeke... baina hala ere, irudimena eta kontatzeko grina ezin zaizkio ukatu egiteko honetan hasi berria den Joxe Belmonteri. (*Egunkaria* 1991-I-12)

Testuartekotasunei dagokienez, honakoa aipatu zuen Belmontek: “Esan didate, eta beharbada egia izango da, nire lehenengo zatian Ecoren eragina jaso dudala.” (*Argia* 1318-1319) Izan ere, eleberria idaztean Umberto Ecoren *Arrosaren izena* irakurtzen ziharduen.

Jon Urrujulegi: *Arragoa* (1997)

Eleberri honetako pertsonaiaren bizitza gure garaitik hurbilago kokatua dago. Igantzi deituriko gazte baten bizipenak kontatzen zaizkigu: Arantzazun igarotako haurtzaroa, Donostiara lan bila doanean, ETA erakundeko kideekin dituen lehenengo hartu emanak,... Zalantza askoren ondoren, erakundean sartzea erabakitzen du eta mugan ikurrina batzuk eramateagatik atxilotuko dute. Martutenetik ateratzean iparraldera alde egingo du eta handik Parisera. Bertan, ETako mintegietan esku hartuko du. Beraz, sinesgarritasun handiz osaturiko gertaerak kontatzen zaizkigu. Hau guztia 60ko hamarkadan girotua:

Fernando Barrena Txalapartako arduradunak liburuaren aurkezpenean esan zuenez, belaunaldi baten islada da liburua, orain 40-50 urte inguru dituen belaunaldiarena, hain justu. Autobiografikotik asko ei duen nobela hau, komentua, sexu grina, militantzia abertzalea, erbestea eta ekintza armatuaren inguruan hezurmamitua izan da, eta egileak, polemikoa izan daitekeela aurreratu zuen. (*Jakin* 101)

Urrujulegiren hitzetan, intimotasuna, errealismoa eta abertzaletasuna dira liburuaren hiru ardatz nagusiak: “Nobela intimista egin nahi izan dut, oso intimista. Honelako nobela bat idaztea irakurlegoaren aurrean erantztea bezala da”; bigarrenik, “irakurleari errealismoaren sentsazioa txertatzen saiatu naiz”; azkenik, “abertzaletasuna bete-betean tratatu dut. Pasarte batzuek polemika sor dezakete”

(Ubeda, Joxi: *Egunkaria* 1997-IV-22) Gure aburuz, intimitasun hori zertan datzan azpimarratu beharko litzateke: izan ere, eleberrian ez baitugu pertsonaiaren mundu intimo horretan sakontzeko ahalegin berezirik aurkezten. Urrujulegi intimismoaz aritzean, eleberri honen pasarteek berak bizitakoarekin duten loturaz ari dela uste dugu.

Autobiografia fikzionatu baten aurrean gaudenez, pertsonaia nagusia den narratzailea lehenengo pertsonan mintzatzen zaigu. Berriro ere, beraz, narratzailea eta pertsonaia nagusia, Igantzi, bat bera dira; hots, narratzaile autodiegetikoa hautatu du. Hala ere, badi-ra narratzailearen ikuspuntutik nolabaiteko kontraesanak, parapsia baitarabil. Izan ere, eleberriaren gainontzeko ezaugarriengatik egilearen asmoa errealismoz idaztea dela dirudi. Baina, zenbaitetan lehenengo pertsonako narratzailea orojakilea bihurtzen da, pertsonaia honen kanpoko hainbat sentimendu eta gertaeren berri eskaintzen zaigularik: esate baterako, ama kartzelara bisitan doanean, Bardeak Igantzi hizpide dutenean,... Hortaz, biografia baten aurrean gaudela dirudien arren, batzuetan, uste hau hankamotz uzten duten hainbat pasarte topatzen ditugu. Gauza bera azpimarratu zuen Rojok: “Narratzailea pertsonaia nagusia ere bada nobela honetan, baina ikuspuntuaren aldetik batzutan ez da batere kontsekuentea. Pertsonaia batzuk agertu eta desagertu egiten dira, inolako koherentzia narratiborik gabe.” (*El Correo* 1997-VIII-7).

Belmonteren eleberriko Joanen antzera, Igantzi pertsonaia nagusiak pertsonaia ezberdin ugari aurkeztuko dizkigu, haren antzera alde batetik bestera dabilen gaztea baitugu hau ere. Beraz, bigarren mailako pertsonaia asko ezagutzeko aukera izango dugu. Edozein modutan ere, hauen guztien barne munduari buruzko ezer gutxi aipatzen zaigu, kanpo fokalizazioa nagusi baita. Hau da, pertsonaia lauak ditugu oraingoan ere. Itxuraz, idazleak 60ko belaunaldiko lekukotasun txiki bat irudikatzeari eskaini dio lanik gehiena. Horretarako, egiantzekotasuna islatzeko ohiko bideak landu ditu: batetik, teknika lineala erabili du; bestetik, leku erreal, hurbil eta ezagunetan girotu ditu gertaera guztiak, ekintzak Euskal Herrian nahiz kanpoan kokatuz: Arantzazu, Donostia, Paris,...

Bere estiloari buruz hitz egiteko Mujikaren hitzak jaso ditugu. Iruzkinaren hasieran “hizkera sendo, aniztun eta nabarra” darabilela aipatzen du, eta beheraxeago honela mintzo da:

Elaberriaren alde formaletara pasata, hizkeraren alde morfologiko ziurraz aparte, nabarmentzekoa autoreak hartu bide duen ildo estilistiko detailista. Esanen litzateke egileak apostua

egin duela, han hemen, euskararen ahalbide espresiboak zenbait alorretan garatzeko. Ikustekoa da ahalegin horretan, adibidez, autoreak alde formal zenbait adierazteko azaldu duen abilezia. Garapen hori nabari, batez ere, sentsualismoaren alorrean. (*Egan* 44)

Bestalde, egiantzekotasunari eusteko elkarrizketetan hizkera ezberdinak erabili ditu, kontaketa bizitasuna erantsiz.

Mujika zein Lutxo Egiaren ustez, batzuetan irakurketa astuna egiten da. Hona hemen Lutxo Egiaren iruzkina:

Hala eta guztiz ere, zenbaitetan idazleak luzeegi jarduten du gai edo gertaera baten aurrean. Urrujulegi historioaren haria eten eta kontaketa luzeetan galtzen da. Horrelakoetan irakurketa galtzen da. ETako mintegiaren pasarteak, esate baterako, gure ustez, luzeegia izateaz gain, galga jartzen dio eleberriaren erritmoari. Ezin esan gauza bera Igantzik Parisen ezagututako sexu harremanei dagokienez. Idazleak maisutasunez deskribatzen ditu Mari-Eve eta Igantziren arteko jokoak. (*Deia* 1997-X-31)

Rojok ere antzeko iritzia adierazi du: “Liburua digresioz josita dago, edozein gai dela eta. Batzutan ekintzak noiz gertatzen diren ahaztu bide zaio idazleari, anakronismoak sortuz.” (*El Correo* 1997-VIII-7).

Dirudienez, Urrujulegik ez du jakin narrazioaren erritmoari eusten, batzuetan erritmoa gehiegi motelduz.

2.2. Errealismo zikina

Bill Buford-ek *Granta*¹⁰ aldizkarian *Dirty Realism* deitutakoari eman diogu errealismo zikina izena. Beraz, Estatu Batuetan hedaturiko korronea dugu hizpide, besteak beste honako idazleek jorratu zutena: Jayne Anne Phillips, Raymond Carver, Frederick Barthelm eta Ann Beattie.

Honako hau, azalckerian oinarrituriko literatura dugu; hots, sakontasunik gabekoa. Antza denez, narrazio hauetan ageri den sakontasunik eza, islatu nahi den gizartearen beraren azalckerian oinarriturik legoke. Hau da, inongo baliorik gabeko gizartea eraikitzen da; Gotzon Garatek zioen bezala “balio gehiegi eskaintzen dire-

¹⁰ Ikus *Granta* aldizkariaren 8 eta 19. zenbakietan eskainiriko antologiak.

lako, balio guztiak gutietsiak dauden gizartea” eskaintzen zaigu. (*Deia* 1987-VIII-4)

Ondorioz, datozen liburu hauetan ikusi ahal izango dugunez, pertsonaia arruntei jazotzen zaizkien gertaera eta pasadizo arruntak kontatzen zaizkigu: gizon-emakume batzuen bizitzaren hainbat une ezberdin. Askotan pertsonaia hauek droga, alkoholarekin arazoak dituzte eta bere inguruari ilusiorik gabe begiratzen diote: indar moralik gabeko pertsonaiak, kritikarako gaitasunik gabekoak,... lirateke.

Errealitate pusketa baten krudeltasuna eskaintzen zaigu, hortaz.

Edorta Jimenez: *Speed gauak* (1991)

Eleberrri hau hogeita bat kapitulu labur eta eranskin batek osatzen dute. Bertan, Jimenezek *Atoiuntzia* (1990) deituriko bere lehen narrazio liburuan aurkezturiko itsas mundutik urrundu, eta Bilbo hirian gertaturiko lapurketa baten nondik norakoak kontatzen dizkigu.

Narrazioaren pertsonaia nagusiak emango digu lehen pertsona gertaturikoaren berri, hots, narratzaile autodiegetikoak: izan ere, kartzelaratuia izan aurreko gorabeherak ditu kontagai. Pertsonaia nagusi hau kutzazain automatikoetan lo egin ohi duen mutil gazte bat da, eta horietariko gau batean neska batekin harremanetan has-teko aukera izango du. Kutzazainean jolasean ari direla, polizia dator eta ihes egin beharko dute. Honela, neskaren lagun baten etxera joan beharrean egongo dira, eta bertan jantzi baten lapurretaren berri izango dute. Beraz, neska hura ezagutzearekin batera, lapurreta bitxi batean korapilaturik aurkituko du bere burua. Giro honi eusteko, bestalde, Jimenezek hasieratik pertsonaia kartzelaratuia dagoela eza-gutaraziz jakinmina sortaraziko du. Aitzitik, narratzaile autodiegeti-koak hasiera batean ez du aitortzen kartzelan dagoenik. Baina, narrazioaren tartean, zehazki bigarren atalean, kartzelaratu dutela azaltzen du. Kartzelaratzea narrazioaren erdian txertatuz, gure aburuz, irakurleak gertaera horri arreta berezia eskaintzea dakar. Izan ere, hasieratik aipatu izan balu, agian, irakurleoi ez litzaiguke hain deigarria egingo. Era honetara, kartzelan egotearen arrazoiak jakiteko asmoz, irakurleok arretaz ekingo diogu irakurketari. Genero ezberdinen arteko nahasketa gisa definitzen du autoreak berak: “Poliziakoa da, halako intriga dagoelako, zerbaiten ondoren dabil-tzalako, historikoa da atzerako uneak ematen direlako; erotikoa ere bada pasarte batzuetan... eta dena ironiaz eta umorez egina. (*Egun-karia* 1991-XII-7)

Gure aburuz, osterara, elementu hauekin guztiakin osatu badu ere, errealismo zikinaren ildoarekin pareka genezake. Besteak beste, pertsonaien sakontasunik eza nabaria da.

Denborari bagagozkio, eleberriaren hasieratik amaierara arte garapen kronologiko nagusi den arren, bigarren atal honetan kartzeleratzearen berri ematean, kanpo prolepsi baten bidez jakinmina sortzea lortzen du. Haatik, garapen kronologiko honetan zenbaitetan denbora bera errepikatu egiten da, gertaerak beste ikuspuntu batetik emanaz. Ondorioz, lehen pertsonako narratzaile autodiegetikoa, hiru-garren pertsona erabiltzen du fokoa beste pertsonaia batzuegana gerturatuz. Honela, hainbat paralepsi ikus genitzake: izan ere, narratzaileak orojakilea balitz bezala jokutzen du zenbait pasartetan, nahiz eta hasiera batean ikuspuntua murriztu egin duen.

Fokalizazioari dagokionez, pertsonaia lauak aurkezteko ohikoa den kanpo fokalizazioa hautatu du. Era honetara, pertsonaien barne gatazkei ez zaie arreta berezirik eskainiko, eta pertsonaia lauak aurkezten zaizkigu. Arestian aipatu bezala, errealismo zikinaren ildotik idatziriko narrazioek ez dute pertsonaien garapen psikologikoan sakontzeko asmorik. Gainera, giroa eta ekintzak dira eleberri honen oinarria, eta ez pertsonaiak. Izan ere, Bilboko gau giroa islatzea da liburu honen ardatzik garrantzitsua: “hiritartasuna eta kaletartasuna aldarrikatu du.” (*Egunkaria* 1991-XII-7)

Istorioren bidez, Bilboko gaueko giroa islatzen denez, kronotopo zehaztua darabil: eleberria idatzi zuen garaiko Bilboko gauak baititu kontagai. Are gehiago, data ere zehazten du: maiatzak 13. Garai hartan hiri bateko gaueko giroa eleberri batean islatzea berritasuna zen. Geroztik, ugariak izan dira Bilbo hiriaren gauak hizpidetzat hartu dituzten idazleak: hala nola, goraxeago aipatuko dugun Gorrindoren *Ni naizen hori* eta ondoren aipatuko dugun Iturriagaren *Berandu da gelditzeko*. Hauetan guztietan Las Corteseko giroari erreferentzia egiten zaio. Bilboren aukeraketa honela azaldu zuen Edorta Jimenezek:

Egun zoriotsuak eman nituen han, Alde Zaharrean, Katedrale inguruan, Museoan... Horretaz gain, Bilbok duen Ondare Historikoaren hondamendia salatzen nahi dut, ez dago batere zaindurik eta galzorian dago. Obra honetan aipatzen diren lekuak errealak dira, nere esperientzien lekuko, eta beren nor-tasuna dute. (*Argia* 1365)

Bilboko gau giroaren iluntasunarekin batera, zenbait pasartetan absurduaren ikutua ere nabaria da. Giroaren inguruko adierazpen hauek egin zituen egileak:

“begi kolpea edo, horrelako surrealismoa badago.” Hala ere, eta izenburuak diotenaren aurka, surrealismoak ez du speedak eragiten. “Gaua da garrantzitsua, ez speeda. Gau guztiak dira speedatuak”, aipatu du. (*Egunkaria* 1991-XII-7)

Idaztankerari begiratuz, euskara aberatsa, bizia eta adierazkorra aukeratu du. Noski, Jimenezen idazkerari darion bizkaieraren kutsuari eutsiz:

Hizkuntza berria aldarrikatu du Edorta Jimenezek, hiria euskaraz deskribatuko duen hizkuntza. “Eta gero obrak motzak badira euskaren aldetik edo, bilaketaren ondorioz lortuko dugu geure obrak sinesgarriak izatea. (*Egunkaria* 1991-XII-7)

Ur Apalategi: *Gauak eta hiriak* (1997)

Ur Apalategik bere lehen eleberri honetan hiru gazteren arteko harremanen gazi-gozaok kontatzen dizkigu: Felix, Antton eta Murielen artean eratzen den harreman sare horrek osatuko ditu eleberri honen gaiak: maitasuna, gorrotoa, adiskidetasuna, menpekotasuna, gezurra, mesfidantza, jeloskortasuna,... Izan ere, pertsonaia ezberdin hauengan sortzen diren sentimendu ezberdin hauek guztiek zeharo nahastuko dituzte. Gainera, eleberri honetan “Sentimendu hitza funtsezkoa da, gertakizun guztien gidaria” (A.A.A.: *Pergola* 66) Hiru gazte hauen bidez, ikasleen mundu horren berri eman nahi izan du, eta zehazki, gazteen gaueko irteeren berri. Beraz, bizitzaren gertuko plano bat eskaintzen zaigu:

Gauak eta hiriak aldi berean luma gaiztoz eta maitasunez idatzitako liburua, protagonista gazteak dituen, baina gure inguruetakoa literaturetan adolezente berankorrek idatzitako *bloof*-etatik urrun. Gazteen arteko harremanak eta hauen bilakaera azaltzean, gorroto, maitasun, inbiria eta desio kontrajarriek osaturiko istorioa ongi amaraundurik egoteaz gain, hainbat erreflesio jasotzen dira, ez ironiatik erabat aske, baina beti pertsonaia guztiekiko samurtasuna gailenduz.” (*Jakin* 100)

Bestalde, hiru lagun hauen arteko harremanak harilkatzeko eleberrian Lugi Bordoniren *Gauak eta hiriak* filmea darabil *leit-motiv* gisara. Liburuaren hasierako aipuan ematen zaigu honen berri lehen aldiz, eta narrazioak aurrera egin ahala ugariagoak izango dira honen aipamenak.

Hiru pertsonaia hauen aurkezpena hirugarren pertsonan mintzatzaren den narratzaile orojakile batek egiten du. Aitzitik, gutxitan bada ere, zenbaitetan narratzailea lehenengo pertsonara igarotzen da. Ondorioz, hasiera batean istorioa narratzaile estradiegetiko batek kontatzen digulako ustea badugu ere, azkenean, narratzaile eta pertsonaien arteko joko ezkutu baten berri izan ahalko du irakurleak, narratzaile estradiegetikotzat zuena, egiazki narratzaile autodiegetikoa dela ikusiz. Ezusteko amaiera eskaintzen zaigu, beraz. Hasiera batean narratzaile estradiegetikotzat dugun narratzaile orojakileak kanpo eta barne fokalizazioa darabil pertsonaien gorabeheren berri emateko. Ondoren ikusiko dugun bezala, barne fokalizazio horren bidez, pertsonaien sentimendu, zalantza eta beldurrak ezagutaraziko dizkigu. Are gehiago, zenbaitetan pertsonaiei hitza ematen die: hau da, narratzaile autodiegetikoari bidea zabaltzen dio. Hala ere, ez dugu ahaztu behar, hasieran estradiegetikotzat izan dugun narratzailea, istorioaren amaieraren arabera, intradiegetikotzat eta autodiegetikotzat badugu, pertsonaiek hitza hartzean maila metadiegetikoan mintzatzaren arituko lirakeela.

Apalategik berak elkarrizketa batean aitortu zuen bezala, “pertsonaien baitan sakontasun psikologikoa ematea izan” du helburu: “pertsonaien pertsonalitateak nondik datozen eta zergatik diren hola-koak”. (Asurmendi, Mikel: *Argia* 1626) Ondorioz, barne gatazka etengabeak dituzten gazteen aurrean gaude: hots, pertsonaia biribilak irudikatu nahi izan ditu idazleak.

Sinesgarritasuna islatu nahi duen eleberri honetan, hiri erreal batzuetan kokatzen dira ekintzak: Bordele, Donostia eta Baionan batez ere. Hauen deskribapenak ere errealismoz egiten ditu. Data zehatza ere aipatzen du: 1990eko ekainaren 25. Hartara, kronotopo determinatua hautatu du istorioa kokatzeko.

Jose Jabier Fernandezek iritziak, idazle honek antierrromantizismoa hautatu du:

Honela, liburuan oso gauza interesgarriak esaten badira eta oso ondo idatzita badago ere, ikuspegi triste eta antierrromantiko honek funtsik gabe uzten du istorioa une askotan. Hau da, liburuak gora-behera asko ditu eta soilik pasio pixkat azaltzen denean interesgarri bihurtzen da, liluragarri. Besteetan, hoztasunak kalte egiten dio, antierrromantizismoa bertute baino gehiago eragozpen bihurtzen da, istorioa urrundu egiten baita. Ez luke, ordea, horrela izan beharrik. Hots, antierrromantizismoa erabiliz, gauza interesgarriak eta ederrak kontatu daitezkeelako. (*Egunkaria* 1997-IV-12)

Pergolako iruzkinean ere honi erreferentzia egiten zaio: “Azpimarratzekoa da deskribapen askotan nabaritzen den hoztasuna.” (A.A.A.: *Pergola* 66)

Kritiko guztiak, noski, ez dira iritzi berekoak. “Gauzak honela, egileak, ironia lagun, erromantizismoa baztertzeo ahaleginak egiten ditu, baina batzutan ezinezkoa gertatzen” zaiola uste du Javier Rojok. (*El Correo* 1997-IX-4) Honen iritziz, hiru gazte hauen harremanek René Girard-en teoria dakarte gogora: hau da, beste batek desiratzen duena desiratu ohi dugula.

Xabier Mendiguren Elizegiren aburuz, aldiz, Flaubert-en *L'Éducation sentimentale* bezala *Gauak eta hiriak* heziketa sentimental bat da eta “idazlea horren gaztea izanda harrigarria egiten zaio irakurle zaharxeagoari zein sakon eta barnetik ezagutzen dituen giza erlazioen miseriak, nahi eta ezinak, mozorro-jokoak, jokabide ustelak...” (ikus liburuaren hitzaurrea).

Apalategik dioenez, sentimenduei buruzko nobela bat egiten saiatu da; ez eleberriz sentimental bat. Haatik, egileak dioskunez, “nahiko garratza da, eta ironiaz bete; batere ez idealista.” (Asurmendi, Mikel: *Argia*) “Gero, ironiarekin batera, samurtasuna ere badagoela” aitortu zuen. (Berasaluze, Garikoitz: *Egunkaria* 1997-V-1) Honela, maitasun harremanak idealizaziorik gabe aurkezten dizkigula ikus dezakegu.

Egunkarian egin zioten elkarrizketa horretan errealismo psikologikoa egin nahi izan duela ere adierazi zuen. (Berasaluze, Garikoitz: *Egunkaria* 1997-V-1) Hots, bere asmoa irakurleek pertsonaiak egunero kalean ikus ditzakeen horien modukoak direlako ustea beregana dezaten nahi izatea da. Argumentuaren kokalekua egiantzekotasunez deskribatzeaz gain, pertsonaien jarrerak ere egiantzekotasuna sortu nahian irudikatzean datza lorpen hori.

Intertestualitateari dagokionez, XIX. mendeko nobelagileak aipatu zituen: Flaubert, Stendhal, Dostoievski... (*Habe* 272)

Unai Iturriaga: *Berandu da gelditzeko* (1999)

Unai Iturriagak Bilbon kokaturiko istorio bat kontaktzen digu bere lehen eleberrian. Izan ere, egileak aitortu zuen moduan, “istorio urbanoa kontaktzen dut eta Euskal Herriko hiri bat aukeratzeko ez nuen zalantzarik izan.” (*Argia* 1716) Egileak eleberriz hitz hauekin deskribatu zuen: Bilbo, parranda, rock & rolla, egunerokotasuna eta konpromisoa. “Liburuaren protagonistaren inguruan, gainera, ez da arrotza maitasuna, droga, polizia edota borroka armatua.” (*Hitzak*

eta ideiak 3) Hauek guztiek eleberriaren hezurdura osatuko lukete. Idazlearen iritziz, “gai guztiek eszenografia osatzen dute, non pertsonaiak sartu eta ateratzen diren.” (Arregi, Montse: *Egunkaria* 1999-IV-23)

Honako eskenatokian narratzen digu ondorengo istorioa: ikasketak bukatu berri dituen gazte baten bizimoduaren berri ematen digu. Mikelek, gazte honek, ez du lanik egiten eta Bilbon bizi da Dionisos bere lagunaren lepotik. Mikel, Zuria Beltz taldeko baxujolea da eta musikaz gain, parrandan besterik ez dabil. Gau horietariko batean ETArekin zerikusia duen gazte bat ezagutuko du, eta era inkonsziente batez, itzalbiderik ez duen egoera batean sartuta ikusiko du bere burua.

Istoria bategi ere Mikelen ikuspuntutik kontatzen bazaigu ere, narratzaile orojakile batek hitz egiten digu. Hau da, narratzaile estradiegetiko batek kanpo fokalizazioa darabil pertsonaia nagusia deskribatzeko. Honela, zenbaitetan hirugarren pertsonatik lehen pertsonara igarotzen da narratzailea. Lehenengo pertsonan narratzaile estradiegetikoaren beraren gogoetak ezagutarazten zaizkigu eta narratarioari irakurle izenaz zuzentzen zaio, gehienetan atalen hasieretan. Hainbat egunkaritan narratzailea aipatzean honakoa adierazi zuten: “Nobela honetako narratzaileak zirikatatu egingo du irakurlea, trufatuko da bere pertsonaiez, irainduko ditu gogaikarriak.” (*Gara* 1999-IV-24) Beraz, zenbaitetan narratzaile eta narratarioaren arteko harreman zuzena nabarmentzen da.

Liburua, bestalde, hogeitazatituri eskaintzen zaigu. Hala ere, atal hauen artean badira ezberdintasunak. Hogeitazatituri hamazazpitan Mikelen gorabeherak testurazten zaizkigu. Eta horien tartean badira beste plano ezberdin batean kokaturiko hiru kapitulu *Dionisos* modura izendatuak. Bertan, Dionisosen iraganeko pasarte bat aurkezten zaigu, oroitzapen modura edo: bertan, borroka armatua utzi aurretik sator modura lanean zebilen bat hiltzeko erabakia nola hartu zuen kontatzen zaigu. Beraz, plano bat bestearen barruan txerta badezakegu ere, bi plano ezberdin hauek zeharo bereizirik eskaintzen zaizkigu: Mikelen oraina eta Dionisosen iragana. Aitzitik, gure ustetan, ez da batere argia bigarren plano horrek eleberrian betetzen duen lekua. Antza denez, Dionisosen jokaera ulertzeko giltza azaldu nahian dabil, baina, horretarako beharrezkoa izango litzatekeen pertsonaiaren barne munduan sakontzeko ahaleginik ez du egiten. Bestalde, gainerako pertsonaien hainbat gogoetaren berri ematen badigu ere, ez da beraien barne munduan sakontzeko ahaleginik sumatzen, pertsonaia lauak aurkeztu nahi dizkigu-eta. Ez da garapen

psikologikorik islatzen, barne hausnarketa ugariren berri eman arren. Izan ere, pertsonaien kezka era sinplean ezagutarazten saiatzen da. Juaristiren hitzek egoki azaltzen dute eleberri honetako pertsonaien nolakotasuna:

Pertsonaien indarra beren indarezan datza. Bizi dira, zergatik bizi diren jakiteke; jan eta edaten dute (edan galanki), kalez kale ibiltzen dira beste zer egin haundirik gabe. Ez da berebiziko historiarik, pertsonaia gogoangarririk. Ez dut uste, horregatik, gaur egungo gazteen isla izan daitezkeenik pertsonaia horiek. Unai Iturriagaren inguruan mugitzen denarena beharbada, baina esajeratuegiak iruditzen zaizkit. (...)

Ez digu argazki konpliturik ekartzen, baizik eta argazki erdia, alde batetik argia eta iluna bestetik. (*Pergola* 87)

Are gehiago, Juaristik berak aipatu zuen bezala, “Unai Iturriagaren azken nobelan, hezur-haragizko pertsonaiek adina indar du hiriak, Bilbok alegia.” (*Pergola* 87) Gainera, hiria bera da eleberrian zehar zehazkien deskribatzen dena. Izan ere, atal gehienen hasieran Bilboko auzo ezberdinen ezaugarri zenbaiten deskribapen edo aipamenak egiten dira. Bestalde, Mikel Somera kaleko pisu batean bizi dela aipatu behar da, inguru hori baita batik bat islatzen dena. Nahiz eta trama gehiena Bilbon gertatu, beste zenbait leku ere aipatzen dira eleberrian zehar: besteak beste, Antzuola, Gasteiz, Paris,... Azken honetara ihes egingo du Mikelek atxiloketen berri izatean. Eta amaiera irekia duela esan daiteke, ez baitakigu Parisen Mikelek zer egingo duen.

Gaur egungo giroan kokatu du Iturriagak eleberri honen kontaktizuna. Data zehatzik aipatzen ez bada ere, pentsatzekoa da 1990eko hamarkadaren bukaeran kokatu daitekeela: 2000. urtea iristear dagoela aipatzen du, hiriko giroa, *Egin* egunkaria aipatzen da...

Egunkari ezberdinetan estiloari buruzko hainbat iritzirekin topo egin dugu. Juaristiren aburuz, “ez da gaizki idatzitako nobela, areago esango nuke, erraz irakurtzen da, hasi eta buka esaten den bezala; baina ez du gaur egun euskal nobelagintzak batik bat lortu duen maila erdietsi.” (*Pergola* 87) Garikoitz Berasaluze, ordea, honela mintzatzen da:

Estiloa ere sortu duela esango genuke. Juan Luis Zabala, Bukowski, garai bateko Montoia, Enrico Brizzi eta beste batzuk datozkigu burura, Iturriagaren lehen nobela hau alderatzerakoan, baina ez da erraza antzekorik topatzea. (*Gara* 1999-V-15)

Eta beheraxeago honela dio: “atsegina, freskoa, orekatua, errealista eta ona baita eleberria.”

Mendiguren Elizegik, bestalde, honako testuartekotasunak aipatzen ditu: “Niri Bukowski bururatu zitzaidan irakurtzean. Bestelako konparazioak entzun ditut han-hemen: Espainia aldean orain urte batzuk modan egondako kronen-mania, Italiako *Gioventù Cannibale* delakoa...” (*Jakin* 112)

Hala ere, bada bere idazteko moduan azpimarratu beharreko baliabide aberats bat: elkarrizketa biziak. Hizkera ezberdinak erabiliz, kaleko eta gaueko giro horren berri ematen saiatzen da. Berasaluzeren aburuz, “elkarrizketak dira, gainera, liburuaren oinarri sendoenetarikoak”.

Eleberri honetan, bestalde, ironia zirtolariaren erabilera nabaria da. “Hainbat dira *Berandu da gelditzeko* nobelan ageri diren gaiak, umorez, zorroztasunez eta ironiaz azalduak.” (Arregi, Montse: *Egunkaria* 1999-IV-23). Honela dihardu egileak gai hau aipatzean:

Ironia nahiko dago pertsonaiak zein gaiak tratatzerakoan. Askotan gairik absurdoenak seriotasun handiz tratatzen ditut eta garrantzitsuenak berriz, ironiaz. Azken batean, bizitza ere horrelakoa da. Gauza absurdo batengatik eztabaida gogorra sor daiteke eta beste batzuetan gauza serioak arin tratatzen ditugu. (*Argia* 1999-V-23)

Hona hemen Mendiguren Elizegik Iturriagaren eleberriari ikusiriko hutsuneak:

Aitzakiaren bat jartzekotan, parrandak ugariegiak eta apur bat errepikakorrak gertatzen dira; pasarteak batzuetan luzee-
giak (hasiera aldean batez ere, bost lerrotan ondo esana gelditu dena beste hainbesterekin puztuz), eta narratzailearen tarte-
tekako iruzkin subjektiboak lekuz kanpokoak agian, edo ez behintzat oso ortodoxoak ikuspegi literario ohikotik begiratu-
ta. (*Jakin* 112)

Liburu honen beste ardatzetariko bat egunerokotasuna dugu. “Iturriagaren ustez, egunerokotasunaz idazteak ez dakar derrigorrez azalckerietan ibiltzea.” (Arregi, Montse: *Egunkaria* 1999-IV-23). Gure aburuz, bestalde, Iturriagak azalckeria darabil eleberriko istorioaren berri emateko. Honek ez du esan nahi, azalckeria islatu nahi izan duenik, izan ere, azalckeria horren berri ematearekin, gizartearen baloreen kritika egitea izan baitzezakeen helburu.

2.3. Garai historiko jakin bat oinarritzat duten eleberriak

Atal honetan sailkatu ditugun eleberri guztietan argumentua garai historiko jakin batean zehaztasun handiz kokatua izan da. Gainera, garai konkretu horretan kokatu izanak baldintzatzen ditu eleberri hauen gainerako ezaugarriak.

Edorta Jimenez: *Azken fusila* (1993)

Mundakarrak bere bigarren eleberriari nobela historikoaren ikutua erantsi nahi izan dio, beti ere kostaldea ahaztu gabe. *Egunkaria*-ko iruzkin batean eginiko laburpenaz baliatuko gara eleberriaren argumentuaren berri emateko:

Gerra zibila amaitu eta 15 urtera, 1952ko negu hotzeko gau elurtsu batean, Bizkaiko kostaldeko herri batean, maki batek aspaldiko lagun eta adiskide duen kapitain baten etxeke atea jotzen du, eleberri honetan jasotako fikziozko gertaerei hasiera emanez. Gerran parte hartu ez bazuen ere, makien gora-beheretan nahastuko da aurrerantzean Onofre kapitaina eta, jende eta kontu berrien ezagupidea emateaz gain, bere burua hobeto ezagutzen eta ulertzen ere lagunduko dio berak nahi izan gabe egindako lotura horrek, nahiz eta bere buruaren ezagutzak ez duen, jakina, pertsonaia baikor bihurtuko. (*Egunkaria* 1994-I-16)

Ñaki Petxarromanen ustez, “sinbologia eta errealtatearen arteko nahasketa eder batean, *Azken fusila* itxaropenaren sinboloa da; gerra galdu ostean, oraindik dena galduta ez dagoela adierazten duen sinboloa.” (*Hika*) Sinbologia honekin bat etorritz gero, txapelokerrek garaipena irudikatuko lukete; burdinbidea eraikitzen ari diren presoak, berriz, galtzaileen mendearen irudia izango lirateke. Iruzingile honek aipatzen duenez, “bi arlo –politikoa eta pertsonala– elkarrengandik ezin aldenturik azaltzen zaizkigu.”

Bestalde, maitasunak ere pertsonaiari barne gatazka ugari sortarazten dizkio. Izan ere, bere emazteak, Anitak, etxetik alde egin du, eta protagonistak zalantza ugari izango ditu.

Hortaz, narratzaileak pertsonaia gatazkatsuak, hau da, biribilak irudikatuko ditu. Pertsonaia nagusia aintzat hartuz, esaterako, “Zalantza, ezinegona, beldurra eta barruko nahasdura dira Edorta Jimenezen pertsonaia arketipikotzat ere jo dezakegun Onofreren ezaugarri nagusietako batzuk.” (*Egunkaria* 1994-I-16) Hartara, pertsonaien mundu aberatsa azaltzen da, sentimendu, kezkek, gatazkak, bakardadea,...

Ikuspuntuari dagokionez, narratzaile estradiegetikoa hautatu du istorioaren berri emateko. Honela, barne eta kanpo fokalizazioaren bidez deskribatuko ditu pertsonaiak eta hauen sentimenduak.

Jarraikotasunari begiratuz gero, hainbatetan barne analepsiak darabiltzala ikus dezakegu. Ondorioz, narrazio barruan jada kontaturiko hainbat gertaerari erreferentzia eginez, gertakizunak lotzeko saioa errazten digu. Hala ere, oro har, garapen kronologikoa gailentzen da.

Eleberri historikoetan ohikoa den kokapen zehaztasuna ikus dezakegu. Denborari dagokionez, laburpenean aipatzen zen bezala, Frankismo garaiko Euskal Herrian girotu ditu gertakizunak, Bizkaian bereziki (Bilbo, Gastelugatxe...). Nahiz eta xehetasun hauen bidez eta kronotopo determinatuaren erabileraren bidez, sinesgarritasunera hurbildu, Jimenezek narrazioa egituratzeko aukeratu dituen baliabideak direla-eta, giro ilun eta lausotu samarra nagusi da. *Egun-kariako* iruzkingileak ere honi erreferentzia egin zion:

Ilun eta zalantzakoa den giroa landu du Edortak liburu honen hasieratik amaieraraino, babesgabetasun fisiko zein existentziala sentiarazten duen giro hitsa, desasoseguzkoa, gerraosteko galtzailtzari lotua, eta giro horrek ematen dio kontaketa osoari trinkotasuna, indarra eta bizitasuna. (...)

Alderdi alaiak ere –erromeriak, jazzbandak, txakolina...–, agertzen direla eleberrian, baina den-dena lehen aipatutako giro ilun eta hits horren filtrotik iragazia begitantzen zaio irakurleari. (*Egunkaria* 1994-I-16)

Estiloari dagokionez, honela mintzatu zen Juan Luis Zabala:

Bere zenbait lanetan baino gehiago zaindu eta landu du alde hau, eta adierazkortasun edo aberastasunik galdu gabe ulerterraztasunean irabazi egin ote duen iruditu zait niri behintzat, inoiz edo behin pasarte benetan iluniki ere aurkitu dudari arren. Gainera, erregistro diferentziak markatu ditu, narratzailearen bizkaitar kutsu nabarmeneko estandarren eta pertsonaien bizkaiera gordinagoaren artean batez ere, eta hizkera eleberriaren giroaren eta trinkotasunaren aldeko lanean ezarri. (*Egunkaria* 1994-I-16)

Bestalde, eleberri trinko honetan idazleak elkarrizketa biziak hantzenka txertatuz erritmoa ematen lagundu du. Giroari dagokionez, 60ko hamarkadan kokaturiko *Emon biar yako* eleberria gogorarazi digu.

Edorta Jimenez: *Baleen barbaroa* (1997)

Edorta Jimenezen eleberri honetan intrigazko istorio bat kontatzen bazaigu ere, une historiko jakin bati etengabeko erreferentzia egiteagatik eleberri historikoen artean kokatzea erabaki dugu. Izan ere, XVI. mendean kokaturiko *thriller* historikotzat hartua izan da.

Hain zuzen ere, XVI. mendeko ohituren berri ematen digu, horretarako Sebastian deituriko pertsonaia baten bizipenak gogora ekarri. Gainera, ohituren deskribapenak eta gertakari guztien gorabeherak hilketa batek eragindako jakinminaz harilkatuko ditu. Izan ere, Ezkertiren heriotz bitxiak Sebastianen susmoak piztuaraziko ditu, hilketa hau argitu arte gelditu gabe arituz. Aitor Bengoak hone-la laburbildu zuen argumentua:

Bere berezkoak ditu askatasun eta justizia egarria ezagumen gutxikoa bada ere, XVI. mendeak ekarri zuen mundu eraberrituan jakintzak eta sineskeriak, handikien asmoak eta herri xehearen eguneroko epopeiak tupust egiten dute Bizkai-kostaldean. (*Hitzak eta ideiak* 3)

Beheraxeago, honakoa gehitzen du iruzkingile honek: “ideia nagusi modura geratu zaiguna zera izan da: zalantza eszeptikoaren bidetik dela soilik posible egiaren gailurrera ailegatzea, jakinmina ezinbestekoa delarik. Kapitain Trumoiaren estiloko heroiak barrengarri geratzen dira. (*Hitzak eta ideiak* 3)

Sebastianek aldaketa historiko garrantzitsuak biziko ditu, eta honela bere gorabeheri besteak beste honako gertaera hauek guztiak gehitzen zaizkio: balearen ehiza, kofradiako kontuak, Inkisizioaren erasoak eta gogoz kontra Ingalaterrako Jornadarako Armadan erroldatu beharrean diren gazteen gorabeherak.

Bestalde, garai hartako egoera islatu nahian “boterearen amarauna ongi asko definituta dago (Erregea, Jauntxoak, Prebostea, Lehorreko alkatea, Ustrumana, Inkisizioaren komisarioa, Maiordomoa, herri xehea...), hala nola jokabide eta portaera guztien logika.” (Egia, Lutxo: *Deia* 1998-V-15)

Garai historiko honen berri emateko, noski, kronotopo determinatua darabil. Izan ere, gertaera hauek Mundakan kokatzen ditu; eta protagonistak 1571. urtean jaio zela ere azaltzen digu. Orduetik aurrera denboraren tarte guztiak zehaztuak emango ditu. Garai hartako gertaeren berri emateko dokumentazio lan handia egin zuela ere aitortu zuen idazleak.

Pertsonaiak bere bizitza kontatzen digu: beraz, iraganean diharduen lehen pertsonako narratzaile autodiegetikoa dugu. Haatik,

nobelan zehar jarraikortasuna gailentzen den arren, askotan atzera egiteak ere badira, bere senitartekoen gertaerei erreferentzia egitean. Hortaz, kanpo analepsiak kontatzen dizkigu, bere senideen berri emateko. Beste batzuetan, bestalde, iragarpenak ere egiten dira, narrazioaren denbora eta iragana parekatuz. Prolepsi hauen bidez, narrazioaileak oroitzapenak eta narrazioaren denborako egoerak alde-ratzen ditu.

Bestalde, nahiz eta pertsonaiak bere gertaeren berri eman, ez dugu inolako garapenik sumatzen bere izakeran. Izan ere, Jimenezek garai hartako hainbat gertaera eta ohitura deskribatzea izan baitu helburu nagusitzat, ez pertsonaia biribilak aurkeztea.

Eleberri honetan ere, Edorta Jimenezek bere estilo aberats eta biziari eutsi dio, baita bizkaieraren kutsuari ere. Aitzitik, eleberri honetan aurrekoetan baino deskribapen gehiago tartekatuko ditu, garai hartako ohituren berri emateari berebiziko garrantzia eman baitio. Lutxo Egiak adierazi zuen bezala, “*Baleen barbaroa* izugarri ondo girotutako eta euskara ederrez idatzitako eleberria da.” (*Deia* 1998-V-15)

Testuartekotasuna ere aipatu zuen iruzkin berean: “Batzuetan James Clavell-en euskal *Shogun*-aren aurrean nengoela iruditu zait; beste batzuetan, berriz, Umberto Ecoren *Arrosaren izena*-rekin dantzat.” (*Deia* 1998-V-15)

Bere gainerako lanak aintzat hartuz gero, bere narrazioetan behin eta berriro errepikatzen diren elementuak ikus ditzakegu eleberri honetan ere: itsasoa, uhartea, arrantzaleak, portua,...

Egileak berak aitortu zuenez, eleberri honek tetralogia baten hasiera izateko asmoa du.

Luis Mari Mujikaren eleberrigintza

Hiszide dugun hamarkada honetan Luis Mari Mujikak bost eleberri kaleratu zituen; lehenik, trilogia bat argitaratu zuen: *Loitzu herrian uda partean* (1992), *Udarbe eta Urtuella lekuko* (1995), eta *Bidean ihes...* (1996). Trilogia honetaz gain, *Hiru egun Larburun* (1996) eta *Ladix Petrirenkoa* (1998) eleberriak ere argitaratu zituen.

Trilogia osatzen duten eleberrietan antzekotasun ugari aurki daitetzke. Tramari dagokionez, hiruretan gertaerak une historiko jakin batean harilkatuz garai jakin batzuk islatu nahi izan ditu; hezkuntza erlijiosoak eta mundu erruralak garrantzia handia dute bere eleberrietan; plano ezberdinak erabiltzeko joera erakusten du; eta munduak bitan banatu ohi ditu, mundu manikeoak eraikiz.

Lehenengo eleberraren argumentua honela laburbil daiteke:

Abertzaletasunaren gorazarre sentikorra da, dudarik gabe, egileak lan honen bidez egin diguna. Euskal Herriari hainbeste oinaze ekarri zion 1936ko gerran kokatua eta urte batzuk geroagoko –ETAren sorrera garaiko, hain zuzen ere– bigarren kontaketa batez lagundua. Garai ezberdinetan kokatuta ezezik era diferentetan kontatuta ere badauden arren, lotura estua dute elkarren artean bi kontaketa horiek: lehendabizikoan Txomin eta bigarrenean Eneko bere semea, batean zein bestean gizonezko protagonista nagusia aberriaren aldeko nolabaiteko borrokan hilko da; eta lehenengoan zein bigarrenean bataren maitale eta bestearen ama den Axunek oinazearen zaporerik mingotsena dastatuko du, ezintasun eta etsipenez. (...)

Gipuzkoatik gertu kokatutako herri nafar batean bizi zen giroa ere isladatzen du eleberriak. (*Egunkaria* 1994-II-13)

Ikuspuntuari dagokionez, narraziotik at dagoen hirugarren pertsonako narratzaile orojakilea aukeratu du: hots, narratzaile estradiegetikoa:

Fikzioan zehar, hirugarren pertsonan egindako kontakizuna nagusi baldin bada ere, sarri agertzen dira elkarrizketa bizi-biziak, eta baita ere barne-bakarrizketak, nolerebait ohizko ezaugarriak eta berriak nahasiaz, orekan. (*Egan* 46)

Istorian parte hartzen duten pertsonaiek zenbaitetan hitza hartzen badute ere, oro har, narratzaile estradiegetikoa gailentzen da. Narratzaile intradiegetikoak, oso noizbehinka agertzen dira-eta. Bestalde, narratzaile orojakile honek ere bere iritziak emateko joera du, beraz, narratzaile iritziemailea ere izanik.

Mujikak plano ezberdinak eratzeko duen joerari jarraiki, lehen eleberrri honetan ere bi plano eskaintzen dizkigu:

Autoreak, Hego Amerikako nobela korrontearen eraginari nolabait jarraituz, bi plano desberdinetan eman digu fikzioa, bi espazio eta bi denbora desberdinetan, baina bi alderdiak elkarren osagarri gertatzen direnak. Bata Loitzu herrian eta gudu garaian ematen diren gertakariak, bizpahiru hilabeteren buruan eta bestea, gure garaitsuko egunetan ematen dena, hainbat aldiz erabilitako tren geltoki batean. Bigarrena, lehenengoaren ondorio gisara ezarria dago, neure iduriz errealismo

eta egiantzekotasun haundiz. (...) Hirugarren bat ere ageri da “posludioan” Imanol Iraetaren kontakizuna Amerikan ematen baita. (Etxeberria, Gillermo: *Egan* 46)

Bi plano hauen gertaerak egoki tartekatzeo, liburuaren atalak ere bi zatitan banaturik daude, hauen hasieran zenbait autoreren zitak eskaintzen zaizkigularik. Honela, gerra garaiari dagozkion atalak zenbaki erromatarrez adierazten dira, eta bigarren planokoa, aldiz, italieraz emandako izendapenez. Goraxeago aipatu bezala, Axun izango da bere parte hartze eta orotzapenen bidez, bi planoak uztartuko dituen pertsonaia. Gainera, bi plano hauetariko bakoitzean mundu manikeoak aurkezten dizkigu, nahiz eta bi munduen arteko zubia egiten duten pertsonaia eta gertaera ugari ere badiren. Mundu ezberdin hauetara gerturatzeko fokalizazioa darabil, batik bat kanpo fokalizazioa. Are gehiago, ondoren zehaztuko dugun bezala, mundu bakoitzari bere kokaleku jakina ezarriko dio:

Kasu honetan bata “abertzaleak” eta, besteak, “karlistak” eta nazionalak.(...) Abertzaleen aldetik “Iraeta” tarrak, “Txomin” buru delarik. Eta, bestea, “karlistak”, Murua-tarrak, “Jenaro” alkatea buru.(...) Bakoitzak ditu bere espazioak. Halanola “Iraeta” tarren ildotik dabiltzanek, abertzaleek, badute bere “Batzokia”, “Perutegi” taberna, eta “besteak” berriz, boterearen nagusi direnek, “Udaletxea”, “Karlisten zirkulua” eta “Sastrenea” taberna, besteak beste.” (Etxebarria, Gillermo: *Egan* 46)

Leku hauek guztiak, bestalde, Loitzu herrian kokaturik daude: beraz, kronotopo determinatua darabil, bai denbora bai espazioa zehaztu baititu. Jarraikortasuna aintzat hartuz, plano bakoitzean gertaerak kronologikoki narratzen diren arren, plano bat bestearekin tartekatuz eskaintzen zaigunez, aurrera eta atzera egiteak ugariak dira.

Honela mintzatu zen Juan Luis Zabala idaztankeraren inguruan:

Kontaketa modua, hala ere, hitz batean esateko, antigoalekoa iruditu zait, *dezimononikoa* ez esatearren. Kontalariaren eta pertsonaien baitan dago, nire ustez, antigoalekotasun horren zama nagusia: kontalaria, omnisziente edo orojakile ezezik, esplizitoegi eta ingenuo samarra ere bada zenbait pasartetan: pertsonaiak, berriz, planoegiak, simpleegiak, barne gatazka handirik gabekoak, ez beharbada erabat zuhur eta

gisakoak zintzoen rola dutenak, baina bai pitzadurarik gabeko dolorkeria baten jabe gaiztoak eta beren kideak (kontalari orojakileak Jenaro eta Errufinoren barrenera sartu eta haien pentsamenduen berri izateko aukera ematen digun arren, ez dugu une bakar batez ere ikusten euren jokabide arimagabeokori buruzko zalantza izpirik meharrena ere dutenik). (*Egunkaria* 1994-II-13)

Hartara, pertsonaia lauak irudikatu ditu, barne gatazkarik gabekoak, hots, garapen psikologikorik gabekoak.

Bestalde, Gillerimo Etxeberriaren ustez, Mujikak deskribapeneta-rako erakutsi ohi duen trebetasuna erakutsi digu eleberri honetan ere:

Ikus daitezke, sarritan, deskribapen paregabeak, bai pertsonaiak bereizterakoan, hauen barne-gatazka adierazterakoan, bai natura deskribatzerakoan, bai zenbait ohitura, gorroto, amodio, eliztarren izakera. Hein batean, lehentasunez tratatzen ditu autoreak euskal ohitura, izakera, etxe, eta hiri errural baten alderdi on eta txarrak.(...)

Nobela honen fikzioa, tragedia bat denez gero, etengabe ematen dizkigu zeharka eta zuzenki tragedia horren zantzua areagotzen duten datuak. (*Egan* 46)

Beraz, *Aizuko* iruzkingileak Mujikaren obraz hitz egitean aipatzen zituen ezaugarriak, jada bere lehen eleberrian bertan aurki ditzakegu: “bere obran alde kontraesankorrek, paisaien testuinguru magikoa eta bizitzaren ildo sakona dira ezaugarri nabarmenenak” (*Aizu!* 216).

Bigarren eleberrian, *Udarbe eta Urtuella lekuko* liburuan, denboran atzera egin du, baina berriro ere mundu kontrajarri bat aurkeztu digu:

Aurrekoaren ildotik, ekintza Euskal Herrian garatu du autoreak; oraingo honetan, ostera, denboran atzera egin eta XIX. mendearen bukaerara eraman ditu hirurehun orrialde baino gehiagoko bizitza izango duten pertsonaiak. (Grandes, Leticia: *Egan* 48)

Hartara, gutxi gorabehera 1895etik 1903rako denbora tartean koka genitzake gertakizunak. Bertan, jauntxo baten menpe dagoen herrixka batean, jauntxo eta nekazarien artean gertaturiko gatazka testuratzen dira:

Errealismo handiz narratuta baitaude XIX. mendearen bukaera eta XX. mendearen hasiera bitartean Euskal Herriak jasan zituen arazo nagusiak: Nazionalismoaren sorrera, sozialismoaren indarra, tradizioarekiko haustea, jauntxokeria... baina, batez ere erdal eta euskal kulturen arteko estraineko enkontru garrantzitsua, industrializazioak eraginda neurri handi batean.

Bi kultura eta ideologia anitzek topo egitean pizten diren arazoak eta jasaten diren aldaketak onuragarriak bezain kaltegarriak izan daitezke.(...)

Honakoa ez baita nobela historiko bat, kontzeptuaren zentzu hertsian. Garai zehatz baten islada eskaini arren, garai historiko horretan girotutako fikzioa besterik ez da *Udarbe eta Urtuella lekuko* nobela. Idazleak sortutako fikziozko pertsonaiak, Euskal Herriko errealitatean bizi izan zen –bizi ohi denzenbait auzi planteatzen badituzte ere, fikzioa baino ez dira, fikzioari baino ez dagozkio. (Grandes, Leticia: *Egan* 46)

Hortaz, oraingo honetan Bizkaiko bi herrietan girotu du eleberria: Urtuella eta Udarbe. “hurbil, Bizkaian daudelako biak; urrun, etengabeko aldakuntzek bien arteko zubi iragangaitza eraikiz joango delako.” (*Egan* 48) Honela, herri bakoitzaren egoera zerbaiten adierazle litzateke: “Udarbe dugu tradizioa eta euskaltasuna adierazten dituen nekazal herria. Urtuellaren ardatza, berriz, meatzean dago, industrializazioan eta baita ideia berrietan ere.” (*Egan* 48) Antza denez, gertu dauden bi herri hauen arteko urruntasuna deskribatzeko asmoz, bi mundu erabat ezberdin deskribatu dizkigu.

Bestalde, nahiz eta denbora tarte jakin bat kontatzen zaigun, diakronia puskatzen du, linealtasun eza nagusituz. Honela, herri batetik bestera salto egingo du atal batetik bestera, baina, denboraren jarraipenari begiratu gabe:

Elaberriaren egiturak Joan Mari Irigoienek *Babilonia* eta *Consummatum est* nobela zoragarriekin gogorarazten du, honakoa ere kronologikoki lotutako bi istorio (garai berean agitzen baitira) izango baititu abiapuntu liburuak: batetik, Udarben hasten dena (Jaxinto gazteak On Ernestoren jauntxokeriari aurre egitea erabakitzen duenean), eta, bestetik, Urtuellan hasiera ematen zaiona (Jaxinto, Juxto anaiaren eraginagatik eta On Ernestorengandik ihes egitearren Urtuellara lan bila joaten denean). Jaxinto eta Juxto anaia udarbetarrak izango

dira irakurleari bi herrien elkar topatzea ahalbideratuko diotenak. (*Egan* 48)

Beraz, berriro ere pertsonaia baten bidez loturiko bi plano izango genituzke. Eleberri honetan, bestalde, “pertsonaiek dute pisu gehiena: haiek baitira gertakizunak eragiten dituztenak eta haien ahotik jasotzen baitugu arestian aitatutako inguruko errealitate hori.” (*Egan* 48) Haatik, pertsonaia lauak izaten jarraitzen dute.

Honela adierazi zuen idazleak bere helburua:

Erakutsi nahi izan dut, batetik hasierako abertzaletasun intransigentearen eragina, eta bestetik, sozialismo arrotzaren nagusiek euskal kulturaren aurka erakutsi zuten jarrera. Hau da, bi zapalkuntzak kritikatu nahi izan ditut. (*Egan* 48)

Dakusagunez, bigarren eleberri honetan lehen eleberriko ezaugarriak errepikatzen dira. Eta gauza bera ikusiko dugu, trilogiaren hirugarren eleberrian ere: *Bidean ihes...* (1996)

Eleberri honetan ere gerrate baten testuratzia eta plano ezberdinen erabilera ikus ditzakegu:

Lan hau Espainiako Gerra Zibilean Euskal Herriko lurretan kokatuta dago. Hala ere, ez du kokagune bakarra hiru baitzik: Erandioko kanposantua, Argentina, eta Gipuzkoa eta Bizkaia arteko ibilaldi bat. Azken kokagune honetan gertatzen da eleberriaren istorio garrantzitsuena. Hirurek gerra badute ere ardatz, azken honetan ezagutzen du irakurleak gerra bera eta bere bilakaera eta garapena Euskal Herrian.

Hala ere, hiru leku hauek erlazonaturik daude, eta ez gerragatik soilik, baita hirurek pertsonaia komun bat dutelako ere. Honela, Fidel, protagonista izateaz gain hiru istorioak elkartuko dituen pertsonaia ere izango da. Fidel Ameriketara bizi den euskalduna da, gaztetan hara joandakoa. Euskal Herrira itzultzea erabakitzen duenean, berriz, gerrarako bidea ere pizten ari da eta orduan hasten da eleberria. (*Egunkaria* 1998-V-2)

Hiru kokagune hauek txandakatuz eta tartekatuz eskaintzen zaizkigu, aurreko eleberrietan bezala, kasu honetan ere plano ezberdinak pertsonaia baten bidez lotuz: Fidel. Hartara, maila narratibo ezberdinak ikus ditzakegu plano bakoitzean: batetik, narratzaile intradiegetiko-heterodiegetiko batek kontatzen dizkigu kanposantuko gertaerak; bestetik, narratzaile autodiegetikoak beste bi planoko gertaeren

berri emango digu: bata, Argentinako bizipenak; eta bestea, Donostiatic Bilborako ibilbidea. Bestalde, narratzaile intradiegetiko heterodiegetikoa narratarioari zuzenean mintzatuko zaio.

Fidelekin batera honako hauek dira pertsonaia nagusiak: bere iloba den Donostiako neska anarkista CNTkoa, eta bahituta hartzen duten fraile karmeldar inozo bat. Berriro ere pertsonaiek gidatuko dituzte gertaerak. Hiru pertsonaia nagusien arteko elkarrizketak baitira eleberriarren muin nagusia: “Elkarrizketen bitartez hainbat kontraesan erakutsi nahi izan ditut.” (*Egunkaria* 1997-XI-26) Aitzitik, ez da pertsonaien garapenik deskribatzen.

Berriro ere, “estilistikoki, berezitasuna egileak jorratzen dituen aldeetan dago: alde deskriptiboan eta alde psikologikoan.(...) Guztia ekintzekin azaltzen da, era bisual batean, deskripzioak eta psikologiak hitzez azaldu gabe.” (Fernandez, Jose Jabier: *Egunkaria* 1998-V-2) *Garako* iruzkingileak, bestalde, honako alderdiak azpimarratu zituen: “Idazkera aberatsa eta orijinala, gudaren nolabaiteko kronika etena, errealismo majikoaren ikutuak eta zenbait ustekabeko sorpresa bertan.” (*Gara* 1999-III-6)

Laburbiltzeko, trilogia honetako eleberrietan aurkitu ditugun antzekotasunak bilduko ditugu: plano ezberdinen erabilera, eta hauek pertsonaia nagusi baten agerpenaren bidez lotzeko joera; nekazal mundua; pertsonaia lauak; denboraren jarraikortasuna plano ezberdinetan bada ere; paisaiaren deskribapen nagusitasuna; eta polifonia: hainbat pasartetan gaztelera tartekatzen baitu.

Arestian aipatu bezala, 1996. urtean *Hiru egun Larburun* eleberrira argitaratu zuen. Liburu honetan, seminarista baten gogoetak dira mami nagusia. Migel seminaristak hiru eguneko baimena izan du etxeako ikustera joateko. Beraz, hiru egun horietan zehar dituen sentipen, oroitzapen, gogoeta,... kontatzen zaizkigu. Ostiraletik igandera hiru eguneko iraupen hori 1962 urte inguruan kokatzen da. Eleberririk honetan ere Mujikak kokapen historikoari garrantzia berezia eman dio: “Izan ere, ekintza diktadura garaian kokatzen eta garatzen da, 60ko hamarkadaren inguruan. Migeli jaiotetxeak gogorarazten dizkio oroitzapenen haritik, bada, epe horretako egoeraren tentsioa isladatuta geratuko da.” (Grandes, Leticia: *Egan* 49)

Mujikaren eleberririk gehienetan bezala, honetan ere plano ezberdinak darabiltza gertakizunen berri emateko. Liburu honetan, beraz, plano horiek lotzen dituena, pertsonaia eta narratzaile nagusia bera izango da: Migel. Aitzitik, ez dira aurreko eleberrietan bezain nabarmen bereizirik agertuko. Migel bera izango da istorio honen narratzaile autodiegetikoa. Bere gogoetak eta pentsamenduak eguneratuz,

beste plano batzuk aurkezten dizkigu: bere maitalea Isabelekin izandako harremanak, bere arreben bizipenak, eta bereziki, osaba Antselmoren egunkariaren irakurketa. Azken honen irakurketarekin beste maila narratibo batera jauzi egiten du: maila metadiegetikora. Honela, istorio ezberdin hauek tartekatuz doaz eleberrian barrena, baina ez dira atal ezberdinen bidez bereizten.

Hiru egun hauen berri emateko hika darabilen narratzaile auto-diegetikoa dugu: hots, narrazioan esku hartzen duen narratzailea. Hika erabiltzeak bizitasuna, adierazkortasuna eta hurbiltasuna erantsiko dizkio narrazioari. Bestalde, narrataria Migel bera izango litzateke. Honela, narratzailea eta narratariaoren ahotsek askotan bat egiten dute: Migel bere buruari mintzo zaiola baitirudi.

Pertsonaien artean, noski, Migel da gatazkatsuen. Bere gogoeten bidez bere zalantza eta sentsazioak ezagutarazten dizkigu. Batez ere, borroka batek ez dio lasaitasunik emango: amari zin egindakoaren alde egin (hots, apaiz sartu), edo Isabelekiko sentitzen duenaren alde egin. Baina, erabakia hartzen duenerako, beranduegi izango da. Beraz, ezbairik gabe, hiru egun horiek erabakiorrak izango dira zalantzak agertzeko. Bestalde, Leticia Grandesek adierazi bezala, “seminarista kezkatzen duenaz jabetzen goazen neurrian, besteak kezkatzen dituzten arazoez ere ohartzen goaz.” (*Egan* 49)

Narrazioaren haria gogoetek bideratzen dutenez, hiru egunetan egituraturiko narrazio honetan linealtasun eza da nagusi: “denboran zeharkako jauziek iragana nahasten dute orainaldiarekin, gogoeta batzuk beste oroitzapen batzuekin...” (*Egan* 49) Beraz, kanpo analipsi ugari egiten ditu narrazioan zehar.

Bere aurreko eleberrietan ikusten den ideologia bikoiztasuna hemen ere ikus daiteke:

Aitak gerra egin du Francoren alde, karlista baita. Bere aurrean ezin da Euskadi zer den aipatu. Amaren aldetik, aldiz, nazionalistak dira. Ama horren bi anaia hil ziren, gainera, gerrakoan: bata, Lemoako haitzetan hiltzen da gudari. Bestea, Santoñaoko espetxean. (*Deia* 1996-VIII-18)

Idaztankerari dagokionez, “idazleak, ohi bezala, hiztegi aberatsez eta zehetasun handiko deskripzioz (hainbatetan astunegiak izango zirenak, istorioak berak pizten duen interesagatik izango ez balitz) baliatu da aurreko elaberrietan sortutako antzeko egoera eta pertsonaiak eratzeko orduan.” (*Egan* 49) Bestalde, elkarrizketei egiantzekotasuna eransteke, errejistro ezberdinak erabiltzen ditu: “Aita Goie-rrri aldean jaioa denez, hango errejistroan daude bere jardunak. Bai-

na oso era nabarian, hitzak moztuz hitzegiterakoan... Bigarren arre-
bak hiriburuan bizi delako, Donostian edo Bilbon, erdera erabat txar-
toa dauka, erdera eta euskera nahastuz.” (*Deia* 1996-VIII-18)

Leticia Grandesen ustez honako mezu ezkutua du eleberriak:
“ideologiak zein maitasunak nor berak gidatuak izan behar dutela,
egin nahia eta bete-beharraren arteko gatatzka saihestuko bada, nos-
ki.” (*Egan* 49)

Javier Rojori, bestalde, eleberri honek J.A. Arrietaren *Abuztuaren hamabosteko bazkalondoa* ekarri zion gogora: “Bietan hasierako ego-
era (nobela abiadan jartzen duen gertaera) familia ospakizun bat da. Bietan pertsonaiak oroitzapenen zurrunbiloan sartzen dira. Eta, inportanteena, bietan narratzaileek hitanoa erabiltzen dute istorioa kontatzeko.” (*El Correo* 1997-I-9)

Beheraxeago, honakoa gehitu zuen: “Mujikaren nobela hau, dena den, nahiko irregularra iruditu zait; bada atal interesgarrien ondoan funtzionalitate handirik aurkitu ez diedan pasarteak, beste nonbaitetik ekarria indarrez sartutakoak edo, agertzen dira.” (*El Correo* 1997-I-9)

Ladix Petrirenekoa (1998) dugu Mujikak 90eko hamarkadan argitaratu zuen azken eleberria.

Lizarbe herrixkan mirari baten inguruan gertaturikoak kontatzen dizkigu. Nobela honek bi pertsonaia nagusi ditu: bata, Ladix Petrirenekoa da, bera baita Santa Luzia ikusiko duen pertsonaia bakarra (Santa Luzia ermitatik alde egin ondoren); bigarren pertsonaia nagusia On Benjamin apaiza da. Hau pertsonaia gatatzakatsua da, izan ere, fedearen inguruko zalantzak izango baititu, liburuan zehar zalantza hauen nondik norakoak ikusi ahal izango ditugu. Hau izango da, hortaz, pertsonaiarik gatatzakatsuen:

Apaiz desmitifikatzailea, protestanteen baitan ematen den jarreratik hurbil, “fedea galtzeraino heltzen da. Motza den gazte bat du itxaropen bakarra, Ladix protagonista. Ume sotil hori baliatuz agian berrekar daiteke lehengo posiziotara, eta hala lortzen du” Mujikaren ustez. (*Egunkaria* 1998-V-17)

Hala ere, gertakari hauekin batera badago beste hirugarren hari bat: Maria Lurdesen bortxaketa. (Argumentuaren xehetasun gehiagorako jo bedi: *Egan* 51) Beraz, eleberri honetan ere plano ezberdinak aurkeztuko dizkigu: hiru dira hari nagusiak; Ladixen miraria, Maria Lurdesen bortxaketa eta On Benjaminen zalantzak.

Bestalde, herrian izurritea zabaldu denez, abereak hiltzen ari dira, eta beraz, jendea oso kezkatuta dago, eta mirariaren inguruko gertaerek are gehiago aztoratuko dituzte biztanleak.

Giroari bagagozkio, garai jakin batean girotu ditu gertaerak: Primo de Riveraren diktadura garaian: 1932. urteko Nafarroa euskaldunean, beraz. Eleberri honetan, noski, garai historiko hori islatzen saiatuko da:

Nobelan isladatzen den giroa funtsean, Primo de Rivera, diktadorearen garaiko baserriarren sinesmenetan oinarritzen da. Batetik, erlijio kutsukoa; eta bestetik, mitologiaren inguruan hedatzen dena. XX. mendearen haserako Euskal Herria aurkezten digu.(...)

Euskal Herria baserriar eta menditarra aurkezten digu. Gizarte arazoak ere isladatzen dira, hots, gizarte-mailaketa horretan dagoen ierarkia: herri xumea,azienda handiko nagusiak, erretorea, tratalaria, al baitaria..., eta, batez ere, erlijioaren alde magikoa. (*Egan* 51)

Kokalekua Lizarbe herrixka bada ere, horretaz gain, Maite Zulaiak dioen bezala, narrazio hau nagusiki lau eskenatoki ezberdinetan garatzen dela esan daiteke:

1. Santa Luziaren ermitan. Bortxaketaren eskenatokia eta bertako emakumeen biltokia.
2. Tabernan. Herriko gizonzkoen biltokia, eta zenbait eztabaidaren sorgunea.
3. Gaztainondoan. Lehendabiziko mirariaren agerlekua eta Santa ikusteko lekua. Sorkoin aldeko gaztainadia mirariaren agerleku eta Ladixen heriotzaren lekuko da.
4. Ikuiluan. Zorigaitzaren sorlekua, izurriaren tokia. (*Egan* 51)

Ondorioz, denbora eta espazioa xehetasun handiz deskribatu eta aipatzen dituenek, kronotopo determinatua darabilela esango dugu.

Iraupenari begira, dirudienek bederatzi hilabete edo igaro dira, eleberri hasieran Maria Lurdesen bortxaketa aipatzen baita, eta bukaeran bere haurraren jaiotza. Bestalde, oro har, linealtasuna erabiliz kontatzen zaizkigu bederatzi hilabete hauetako gertakizunak, oso gutxitan baitaude denboran atzera edo aurrera jauziak:

Esan daiteke, narrazioaren denbora eta fikzioarena ia batera dihoaztela nobelan zehar gertaeren kontaketa nahasian suertatu arren. Fikzioaren kontaketa gertatzen den momentuan egiten da. Narrazioa jarraikakoa eta zuzena bada ere, fikzio mailan, noiz edo noiz, etenak ematen dira iraganeko gertakizun batzuk kontatzeko. (...)

Gertakizunak linealki aurreratzen dira. Gertakizunak nahasian badaude ere, kontaera bakoitzak linealki aurreratzen du. Dena den, narratzaileak ematen dizkigun denbora xehetasunak nahiko ilunak dira, gertakizun batzuetatik besteetara igarotzen den denboraldia ez digu garbi adierazten. (*Egan* 51)

Estiloari dagokionez, honela mintzatu zen Jose Jabier Fernandez:

Mujika euskal literaturan ezaguna da, eta gehienbat, estilo aldetik, Hego Amerikatik heldutako errealismo majikotik egon da gertu. Baina oraingoan desberdina da. Errealismoak eta majikotasunak lanaren ardatza izaten jarraitzen badute ere, eleberrian betetzen duten funtzioa desberdina da.

Oraín, Mujikaren ikuspuntua objetiboagoa da. Bere beste lanetan hurbiltasun handiagoa ikusten zitzaion. Majikotasuna badago, noski, baina estiloan baino gehiago gaian nabaritzen da. Gainera, gaia bera Mujikaren literatur bidean majikotasun gehien duen argudioa da. Badirudi kontraesana dela, baina horrela da. Istorioak gaiaren aldetik majikotasuna irabazi du, baina estilo aldetik, bestalde, galdu egin du. Gaiak duen majikotasunak estilo objetiboa, zuzena eta gogorragoa eskatu dio oraingoan Mujikari.

Irrealitatetik gertu dagoen gai hau errealitatetik gertuago egotea Ladix pertsonaiaren karakterizazioak asko lagundu du. (*Egunkaria* 1998-X-31)

Beste iruzkingile honek ere estilo aldaketari erreferentzia egiten dio: “estiloarekin hautsi du.” “Estilo soilagora joan omen da.” (Iban, Amagoia: *Egunkaria* 1998-V-17)

Hala ere, deskribapenak egiteko joerarekin jarraitu du: bai pertsonaienak, bai paisaiarenak. Azken hauekin, egoera animikoa deskribatzeko asmoa nabarmentzen da. Elkarrizketa ugari ere badira han hemenka txertatuak, deskribapenez beteriko narrazioari bizitasuna erantsiz.

Javier Rojok honela adierazi zuen eleberri honi buruz zuen iritzia:

Gai honekin Luis Mari Mujikak eleberri interesgarria sortzea lortu du. Pertsonaiak eta gertakariak askotarikoak badira ere, hari narratibo bakarrean biltzen jakin du. Bigarren mailako pertsonaia batzuen jokaera, agian, ez dago garatuegia eta oso sinpleak eman lezakete, batez ere On Benjaminekin konparatzen baditugu. Eleberria, oro har, gustatu zaidan arren, esan behar dut, baita ere, puntu bat ez dudala hain gustukoa

izan: bukaera efektistegia izan da nire iritziz. (*El Correo* 1998-V-13)

Bestalde, Luis Mari Mujikak “García Marquez, Vargas Llosa, Cela... izan omen ditu gogoan liburu hau idaztean.” (*Egunkaria* 1998-V-17) Hala ere, gure aburuz, gertuago dago Irigoienek ekarri-riko ekarpenetatik.

Andoni Egaña: *Pausoa noiz luzatu* (1998)

Kritikaren aipamen ugari ekarri zituen Andoni Egañaren lehen eleberri honek. Horietaz baliatuko gara, beraz, eleberri honen berri emateko. Argumentua honela laburbildu zuen Gari Berasaluzek:

Zarauzko Lanbide Eskolako sortzaile eta zuzendari izan zen fraidea hartu du oinarri horretarako Andoni Egañak, haren bi argazki ikusi eta gero. Francoren aurrean ageri da bietan Egañak eleberrian Frai Kandido deitu duena. Lehenengo argazkia epaiketa bati dagokio. Franco epaileen artean da eta Frai Kandido, berriz, akusatuen aulkian 1930eko abenduan Jacan Errepublikaren alde matxinaturiko soldaduei burua berotzea eta matxinadan parte hartzea da akusazioa. Bigarren argazkian Lanbide Eskolako zuzendaria Francori eskua ematen ageri da. Madrilen, diktadore ohiak eskolari emandako saria jasotzerakoan. Eta elkarren ondoan jarriz gero bi argazkiei darian ironia baliatu du Egañak eleberria osatzeko. (*Gara* 1999-II-6)

Bi istorio hauek kontatzeko bi plano ezberdin erabiltzen ditu: batean 1930eko gertaeraren berri ematen digu; bestean, 1960ko gertaerak kontatzen ditu:

Planoak tartekatzen direla esan dut, eta hala da: atal bakoitzak bestearen ispilu gisa funtzionatzen du, 1930etik 1960ra eta 1960tik 1930era salto eginez narrazioan aurrera egiten dugularik. Helburua Kandido Labakaren izaeraren eta portaeraren nondik-norakoak eta sustraiak azaleratzea da. (...)

Lehenengo, atal bikoitietan zehar, Galán eta García Hernández Kapitainek zuzendutako Jakako altxamenduaren eta haren porrotaren disekzioa egiten digu Egañak, pausoz pauso, 1930eko abenduaren 12tik 15era (epilogo moduko bat gehitzen dio, hamaseigarren atalean); kapitulu hauetan hirugarren pertsona erabiltzen du narrazioaren gidari gisa.

Atal bakoitietan, ordea, lehenengo pertsona da nagusi, eta diskurtsuek 1960ra garamatzate. Ahots ezberdinek Frai Kandido Madriler a biatu aurreko orduen kronika bitxia egiten digute, eta beti ere haren izaera, historia eta zioen gainean.(...)

Azkenengo atalean (hamazazpigarrenean) historia biek bat egiten dute, eta eleberraren askaera eskaintzen zaigu; ordurako, ordea, irakurleak narrazioaren berreraikitze prozesu propioa eraman behar izan du aurrera, atal batzuetan eta bestee-tan Egañak tantaka eskaini dion informazioa bilbatuz. (Zaldua, Iban: *Hegats* 23/24)

Beraz, ikuspuntu ezberdinak darabiltza bi plano hauek bereizteko: 1930eko gertaeren berri narratzaile estradiegetiko batek emango digu; 1960koetz, oster, narratzaile autodiegetiko batek. Gainera, fokalizazio aldakorra eta ahots aniztasuna batik bat bigarren plano honetan aurki ditzakegu.

Haatik, hasieran bereizturik aurkezten zaizkigun bi istorio hauek, narrazioak aurrera egin ahala, espazioan eta denboran gerturatuz joango dira. Eta hurbilketa hau azaleko nahiz sakoneko alderdietan suma daiteke. Bestalde, bien arteko bategite honen aurretik, plano bakoitza eratzeko orduan, oso aukera ezberdinak hautatu izana (ikuspuntuari nahiz estiloari dagokionez) bi planoen arteko urruntasuna ere azpimarratzen lagundu du.

Iruzkina batean baino gehiagotan azpimarratu izan da Egañak pertsonaiak eratzeko orduan erakutsi duen trebezia:

Pertsonaia bakoitzaren ahotsa eta ikuspuntua mosaiko baten zatitxo bat baino ez dira eta irakurleak zatitxo horiek banan-banan ikusi eta irudia osatu beharko du. Gauzak horrela, batzutan agertzen zaizkion zatitxoek elkar osatzen dute; bestetan, ordea, kontrajarrita egongo dira. (*El Correo* 1999-II-10)

Idazleak berak dioen bezala, “nagusiki fikzio giroa da.” Hala ere, ondoren, gogoetek narrazioan duten lekua ere azpimarratzen saiatuko da:

Badira gogoetak ere, gogoeta nagusia pausoaren ingurukoa da. *Pausoa noiz luzatu* du izenburua ere, eta azken batean fraile honen teoria nagusia da –edo bere bizipenen gaineko nire interpretazioa– berak frankismoari aurre egiteko era jakin eta pertsonal bat hautatu zuela: herriko gazteei lan prestakuntza ematea. (...)

Bada gogoeta bat komunikazioari buruz ere, oro har, sermoilariaren bitartez. Sermoilaria jada gainbeheran dator 1960an. (*Egunkaria* 1998-XI-27)

Estiloari buruzko iruzkin ugari irakurri ahal izan ditugu. Felipe Juaristik, esaterako, honakoa adierazi zuen: “lehen lerrotik harrapatu egiten duen horietakoa, erakargarria dena bai hizkuntzaren erabilera zuzen eta taxuzkoagatik, nola argumentoa aurrera eramateko planteamenduagatik.” (*El Diario Vasco* 1998-XII-5) Luis Mari Mujikak, bestalde, honakoa nabarmentzen du:

Estiloari dagokionez, nabarmentzekoa da Egañaren maitutza euskal perpausari halako malgutasun luzea ematen. Egañaren perpausa, luzea, garatua, andana egituratu baten tipologiakoa da...(…) Egañak, bestalde, ahozkotasunaren ildotik hurbil doazen ipuinak txertatzen ditu noizbehin. (*Egan* 51)

Gainera, ahozkotasunetik hurbil dauden ezaugarri ugari aurki daitezke eleberri honetan: esakuneak, hitz jokoak,...

Mendiguren Elizegik ere honela aipatzen ditu bere estiloaren ezaugarriak:

Ahalegin estilistikoaren handia azpimarratu behar da, besteak beste: esaldiak maisuki tolestu ditu eta hitzekin jolas guztiz politikak lortu, adierazgarritasun handikoak. Bestalde, egundokoa da Egañaren oharmen-gaitasuna, xehetasun txikiereparatzeko, paisaiak nahiz pertsonaiak deskribatzeko eta txorrotx epaitzeko, bertsokeratik estimatzen genion dohaina idatzira are trebeago aplikatu baitu zarauztarrak. (*Jakin* 111)

Jose Jabier Fernandezek, bestalde, honako ezaugarriak azpimarratzen ditu: “umorea, gaietan sakontzeko abilezia, aurriritziak hankaz gora jartzeko grina, distantziarako eta zehar esanerako maisutasuna.” (*Egunkaria* 1999-II-27)

Gari Berasaluzeren ustez, “hasierako ataletan kostatzen egin zaio irakurlela kateatzea baina behin lortu eta gero, nekeza izango zaio eleberri hau esku artean duenari liburua baztertzea.” (*Gara* 1999-II-6) Jose Jabier Fernandezek, ordea, honakoa uste du: “Ondorioz, orrialde batzuetan narrazioa argi eta itzal hauen artean galtzeko arriskuan egoten da, nondik jo jakingo ez balu bezala. Argiaren eta itzalaren arteko bidea, garbia ez den neurrian, aur-

kitzea eta jarraitzea zaila izaten baita askotan.” (*Egunkaria* 1999-II-27)

Bi plano zeharo ezberdin eraiki dituenenez, irakurleen artean batarren zein bestearen aldeko iritziak izan dira. Luis Mari Mujikaren iritziak, Zarauzko komentua inguruko pasarteak Jakakoak baino “natural, malgu eta originalago emanak” daude. (*Egan* 51) Iban Zaldúa ere iritzi berekoa da. (*Hegats* 23/24) Baina, bestalde, azken honen aburuz, ez da argi geratzen bi planoen arteko lotura. (*Hegats* 23/24)

Felipe Juaristik testuarekotasunari buruz mintzatzean honakoa aipatzen du:

Pío Barojak ere aintzat hartu zuen gai hori *El Cabo de las tormentas* nobelan. Ariketa moduan biak irakurtzea gomentutuko nioke irakurtzale orori. Barojak erretrato laburra egiten du Galánena, zehatz eta motz kontatzen du haren matxinada. Ondorio politikoei berebiziko garrantzia ematen dio gainera. Andoni Egañak luze dihardu Galáni eta bere inguruan bildu ziren hitzartuei buruz, eta erretrato sentimentala da gehiago, politikoa baino. (*El Diario Vasco* 1998-XII-5)

Xabier Montoia: *Hezur gabeko hilak* (1999)

Montoiak eleberri honetan garai historiko jakin batera garamatza. Izan ere, I. Mundu Gerrako lubakietako egoera irudikatzen zaigu. Honela, Frantziaren armadara gerratean parte hartzera joan behar izan zuten euskaldunetarikoa bat dugu eleberri honen protagonista: Jean Etxegoien.

Lubakietako egoeraren berri emateko, soldaduen arteko harremanak deskribatuko dizkigu. Bereziki, bi pertsonaien arteko harremanak ditu kontagai: Jean Etxegoien eta David Mandel errusiarraren arteko harremana:

Frantziaren alde borrokan, gerra haren ankerkeriaren oihala josteko erabiltzen ditu bi pertsonaia horiek gasteiztar idazleak. Bizirik irautea helburu bakar bilakatzen den uneetan gizakiak erakuts ditzakeen jarrerak ikusgai. (*Egunkaria* 1999-XI-6)

Are gehiago, pertsonaiak berak elkarrizketen bidez aurkezten zaizkigu, eta hauei buruz dakigun apurra elkarrizketa hauetatik jasotzen dugu. Gainera, elkarrizketa hauek zeharkako estilo librearen bidez txertatzen ditu kontakizunean. Era honetan, elkarrizketek

narrazioaren pisu nagusia bereganatzen dute, narrazioa bera bilbatzen baitute.

Eleberri honetan ez dira ekintza gehiegi kontatzen. Izan ere, giroa irudikatzeak du lehentasuna; hau da, lubakietako lekukotasunaren argazki bat aurkeztea. Giro horretara hurbiltzeko, beraz, orainaldia eta etengabeko elkarrizketak darabiltza. Orainaren erabileraren bidez, bertan egoteko sentsazioa geuregana dezakegu irakurleok. Uneko giro hori islatzeko asmoa dela-eta, ez zaigu pertsonaiei buruzko informazio askorik eskaintzen. Narratzaileak batik bat kanpo fokalizazioa hautatu du hauen berri emateko: eta noski, pertsonaia hauen hizketa zuzena, aipaturiko zeharkako estilo librearen bidez. Hortaz, bi maila narratibo bereiz ditzakegu; batetik, narratzaile estradiegetikoak hirugarren pertsonaren bidez giroari buruzko xehetasunak eskaintzen dizkigu; bestetik, pertsonaiek hitza hartzen dute elkarrizketetan: kasu honetan, narratzaile intradiegetikoa izango genuke. Bestalde, hitza hartzen duen pertsonaia protagonista denean (Etxegoien denean), narratzaile autodiegetikoa dugu; baina besterik gabe istorioan parte hartzen duen bigarren mailako pertsonaia bat denean, narratzaile homodiegetikoa izango genuke. Gainera, kasu gutxitan bada ere, pertsonaia batek beste norbaitek idatziriko eskutitzak irakurtzen ditu, narratzaile metadiegetikoak hitza hartuz.

Arestian aipatu bezala, elkarrizketa hauetan pertsonaiei buruzko informazio gutxi azaltzen da. Gainera, giroa aurkeztea denez helburua, batik bat jarraipen kronologikoa gailentzen da: hortaz, ez dugu analepsi zein prolepsirik topatuko. Pertsonaiek oso gutxitan jotzen dute iraganeko gertaeren berri ematera: Etxegoienek seminarioko bizipenak konparaketarako ekartzen ditu gogora; baita Mandelek kartzelako oroitzapenak ere.

Hala ere, bada eleberri osoan zehar etengabe errepikatzen den aipu bat: Etxegoienen neskalagunaren gutuna, Catherinen gutuna. Narrazioaren aitzakia narratiboa litzateke. Gainera, honek jakinmina sortaraztea lortuko du; hartara, liburuaren bukaera arte ez da gertaturikoa azalduko.

Nahiz eta une historiko jakin bat hizpide izan, xede nagusia bertako giroa deskribatzea denez, oso aipamen historiko gutxi egiten ditu. Antza denez, historia osatu duten eta ahaztuak izan diren gizakiak azaleratu nahi izan ditu, historiaren beste aldearen berri emanez. Beraz, giro honen berri emateko, deskribapenak etengabekak dira: horretarako, argitasun jokoak egiten ditu: iluntasuna eta argitasuna behin eta berriz errepikatzen diren *leit-motivak* dira.

Honela, bizitza eta heriotzaren arteko jauzi txikia edo mugarik eza irudikatuko luke. Naturak ere leku berezia du, honen bidez giroa deskribatzeko irudi ezberdinak sortzen baititu: urtaroei erreferentzia eginez, eguraldiari erreferentzia eginez (haizea, euria, eguzkia,...),... Hauek guztiek egoera animikoa sinbolizatzen duen baliagarriak zaizkie.

Bestalde, askotan lubakietako bizimodua infernuarekin parekatzen du. Beraz, elkarrizketetan seminario eta kartzelako gertaeren aipamenez gain, heriotzari buruzko gogoetak nabarmentzen dira. Ondorioz, etsipena, beldurra, sosegurik eza, itxaropenik eza, dira sortarazten diren sententzio nagusiak. Are gehiago, bukaeran tentsio hori egoki areagotzea lortu du.

Jon Benitoren ustez, zuzentasuna azpimarragarria da: “Nola gorrotoari hala krudeltasunari dagokienean eta bestelako sentimendu edo irudipenak helarazterakoan.” (*Gara* 1999-X-30) Gainera, iparraldeko pertsonaia bat kokatu duenez istorioaren ardatzean, bere hizkuntzari iparraldeko kutsua eranstean saiatu da idazlea.

2.4. *Bidaia eleberririk*

Deiturak erakusten duen bezala, bidaia bat oinarritzat dituzten narrazioak izango ditugu hizpide datozen lerrotan.

Jon Arretxeren eleberrigintza

Jon Arretxeren idatziek hasieratik bidaiekin erabateko lotura erakutsi dute. Bere lehen narrazio liburua *Tubabu* (1994) deituriko kronika-liburua izan zen. Geroago, *Tuparen seme-alabak* (1996) deituriko kronika liburua argitaratu zuen. Hala ere, hauek eleberririk ez direnez, lan honen helburutik kanpo geratzen dira. Kronika-liburu hauekin batera, bere joerari jarraiki bidaia hizpide dituzten eleberririk ere idatzi ditu. Beraz, bidaia aitzakiatzat erabiliz eraiki dituen bere bi eleberririk izango ditugu mintzagai bere eleberrigintzaz aritzean.

Bidaia ardatzat duten bi eleberririk plazaratu zituen Arretxek 90eko hamarkadan: *Urrezko triangelua* (1995) eta *Oroituz* (1998). Hortaz, bi eleberririk hauetan kronotopo zehaztua darabil, batik bat lekuaren zehaztasunari garrantzia ematen badio ere.

Urrezko triangelua deituriko bere lehen eleberririk, Bangkokera hurbilduko gaitu idazleak. Ibon Iribarrenek kokalekuaren deskribapen egokia egiten du:

Irakurleari berehalaxe otuko zaion eran, urrezko triangeluak badu Asia barneko kokapen geografikoa ezezik, beste esanahi sujerenteagorik. Egia esan, nobelaren orrialde asko eta askotan gutxi adituko du Laos, Birmania eta Tailandia arteko lur eremu hari buruz, putetxe ta bestelako lokaletan topaturiko triangeluek orrialde hauetxek gaineztatzen dituztelarik.

Bertan, lehenik Bangkok hirian eta geroago beste herriska txikietan, dena da zikina. Zikinak jendez zein zaborrez bete kaleak, zikinak trabesti, homosexual eta urdangek pozten dituzten gauak, zikinak opio keak berotutako tabernak. Garbitasun apur bakarra *body-body* masaiolari batek, Nittayak, ekarriko du atal hauetara, bere lurrin eta xaboez.” (*Egunkaria* 1996-IX-14)

Beraz, leku zehatz batean giroturiko eleberria da: Laos, Birmania eta Thailandia artean dagoen lurralde batean. Eleberriaren izenburuak berak kokaleku jakin honi egiten dio erreferentzia:

Thailandia, Birmania eta Laosek muga egiten duten inguruan, triangelu bat osatzen da, Mekong ibaiaren aldean zehazki, hortik triangelua; eta urrezkoa opioa ereiten delako han eta sekulako mugimendua dagoelako inguruan. (*Egunkaria* 1995-XII-6)

Bestalde, triangeluak berak eleberriaren hari hirukoitza gogora dakarkigu. Izan ere, eleberri hau bi zatitan egituratua dago. Lehen zatian plano bakarra aurkezten zaigun arren, bigarren zatitik aurrera aurreikusgarria zirudien narrazioa korapilotuz joango da. “Honela, partitzeko orduan liburu osoaren haria zena ez da azkeanean kristal zati hautsi bat baino, ispilua eratzen duten kristal zati guztien arteko bat.” (*Egunkaria* 1996-X-14) Egileak berak dioskun bezala, “Hasieran, beharbada, errealagoa, sinesgarriagoa da kontakizuna, baina apurka-apurka gero eta gauza eta pertsonaia bitxiagoak hasten dira agertzen.” (*Egunkaria* 1995-XII-6) Ondorioz, bigarren zatian aurrera egin ahala, eleberrian hiru plano ezberdin azaltzen zaizkigula ikusi ahal izango dugu. Hiru plano hauek bigarren zatiko lehen atalean egiten dute bat. Are gehiago, plano bakoitzean gainerako planoen hainbat elementuri erreferentzia egiten zaie, plano ezberdinen arteko lotura estutuz. *Egunkaria*-ko iruzkingileak adierazi zuen bezala, “Une orotan intentzio bikoitzeleberria dugu honako hau, kaleitxi batera helduak ginenean

irteerarik bitxi eta harrigarrienak idorotzen dituen.” (*Egunkaria* 1996-X-14)

Beraz, ikuspuntuari dagokionez, Apalategiren *Gauak eta hiriak* eleberrian ikusten genuen jokoaren antzekoa ikus dezakegu. Hala ere, kasu honetan aurkakoa gertatzen da. Izan ere, hasieran narratzaile autodiegetikoa mintzatzen hasten bada ere, liburuaren bigarren zatitik aurrera, narratzaile autodiegetikoa alde batera utzi eta narratzaile estradiegetikoak hitz egiten digu. Honela, maila narratibo bakarrekoa zela zirudien istorioa bi maila edo hiru maila narratiboetara igarotzen da. Joko honek, irakurlearen arreta piztea lortzen du, izan ere, bigarren atalera iristean irakurritakoa pixkanaka hanka motz gertatu baitzaio. Are gehiago, bigarren zatitik aurrera, narratzaile estradiegetikoak beste bi pertsonaia gehiago aurkeztuko dizkigu, eta beraz, beste bi planotan bi narratzaile intradiegetiko izango ditu. Gainera, hasieran narratzaile autodiegetikotzat genuena, narratzaile intradiegetiko-homodiegetikoa dela ohartuko gara.

Estiloari dagokionez, honela mintzatu zen Arretxe elkarrizketa batean:

Uste dut inportanteena esan nahi duzun hori erraz komunikatzea dela. Orduan pentsatzen dut ez dela lexiko arraro, hitz zail eta joskera korapilatsuen bila ibili behar. Hortaz, hizkera ulergarria, samurra nahi bada, irteten zait, eta gainera ez daukat asmorik korapilatzeko. (*Egunkaria* 1996-XI-21)

Ibon Iribarrenen iritziz, “hala ere, estilo apal eta erraz honek ez dio nobelari ikutu literarioago bat kentzen, batik bat bukaeran.” (*Egunkaria* 1996-X-14)

Oroituz bere bigarren eleberrian ere, kronika eleberri bilakatu du. Oraingoan *Argiako* iruzkinera joko dugu eleberri honen kokalekua-
ren berri izateko:

Bertako protagonista Nepalen eta Indiako iparraldean dabil, budismoaren zein hinduismoaren bidetik, benetako izpiritualtasunaren atzetik, ez baitu ikusteko irrikaz bidaiatzen, bere burua aurkitzeko irrikaz baizik. Maitasun istorio bat, misterioa... denetik topatuko du irakurleak protagonistaren bidai-egunkari honetan, Arretxeren lanetan ohikoa denez, estilo zuzen eta arinez. (*Argia* 1699)

Bigarren eleberri honetan ere, plano ezberdinekin jolasean arituko da. Izan ere, hasieran pertsonaia baten bidaia bikoitzaren aurrean gaudelako sentsazioa dugu: batetik, Indiara eginiko bidaia fisikoa;

bestetik, bidaia izpirituala. (gogoratu Oñederraren eleberria: ikus 1.4.) Izan ere, bidaiaren istorioaren ibilbidean amodiozko istorio bat tartekatuko du. Itxuraz, bidaia izpiritual honek indar gehiago bereganatuko du narrazioak aurrera egin ahala. “Azken batean, bidaia honetan pertsonaia konturatu egiten baita bidaiekiko bere zaletasuna, zer den ez dakien baina bilatzen duen zerbaiten lasterketa dela. Baina mutila ez dago bakarrik, neska du itxoiten, bidaiak noiz amaituko.” (*Egunkaria* 1999-III-20) Baina, istorioan aurrera egin ahala, ordura arteko narrazioaren zenbait ezaugarri hankaz gora utziko dituen beste pertsonaia batekin topo egingo dugu: egunkari bat irakurtzen ari den pertsonaia baten bidez, plano ezberdinak txertatu ahal izango ditu. Are gehiago, teknika honen bidez jakinminari eustea lortuko du. Gainera, plano ezberdinen txertaketa egokia eginez oso joko polita osatu du: maila narratibo ezberdinen erabileraren bidez.

Beraz, honako bi plano hauek bereiz daitezke eleberri honetan: batetik, herri ustez ezagun batera iritsi den bidaztiaren plano: honen berri narratzaile estradiegetikoak emango digu; bestetik, bidazti horrek irakurtzen duen egunkaria dugu, eta honetan, noski, lehen pertsonako narratzaile autodiegetikoa mintzatzen da. Hala ere, azken plano honetan, batzuetan beste pertsonaia batzuek ere hainbat istorio kontatzen dizkigute: beraz, maila metadiegetikoa ere badarabil.

Gainera, bidaia izpiritual honi eskaintzen dion garrantzia delata, Arretzek bere beste liburuetan eskainiriko sentimendu batzuk azalduko dizkigu. Izan ere, kontraesanez beteriko pertsonaia biribila aurkezten digu. Hona hemen iruzkin batetik jaso duguna:

Laburpenerako joera hau sentimenduetan ere nabaritzen da, ez bere istorioek sortu dezaketean zirraran –hori bakoitzaren sentipenetara eta sentitzeko moduetara mugatzen da–, Arretzek bere istorioak kontatzeko duen eran baizik. Orain arteko grina, bere alderdi ezkutu hori ez erakustea izan da.(...)

Honela, sentimenduek murrizak eta nahikoa laburrak izaten jarraitzen badute ere, Arretxeren luma aberastu egin da oraingoan, eta lehenagoko isiltasunak orain adierazpenarekin lotzen ditu. Burutik eta adimenetik baino gehiago, bihotzetik eta adimenetik datoz orain sentimenduak. Eta aldaketa hau bai estiloan eta baita sortzen dituen zirraretan ere nabaritzen da. (*Egunkaria* 1999-III-20)

Gure aburuz, Arretxeren eleberri lortuena da.

3. KAPITULUA: Genero literatura

3.1. Genero beltza

Genero beltza¹¹ 20ko hamarkadaren hasieran Ipar Amerikan sorturiko generoa da. Eleberri poliziakoen generoarekin harreman estua duenez, bi genero hauen artean antzekotasunak badira: krimen baten ondorengo egoera; ikertzaile papera bereganatzen duen pertsonaia baten edo batzuen ikerketa; eta azkenik, errudunen harrapaketa bidez korapiloa askatzen da.

Bestalde, honako hau da ezberdintasun nabarmenena: genero beltzean testuinguruari garrantzia berezia eskaintzen zaio, honela, ikerketa prozesu honen bidez, gizarteko koadro txiki bat irudikatzea ahalbideratuz. Izan ere, gizakien arteko gatazkak, gizarte arazoak aurkeztuz eta irudikatuz,... ingurunea islatzea dute helburu nagusia.

Honako hiru eleberri hauetan, hortaz, gizarteko testuingurua deskribatzeari arreta berezia eskaintzen zaio.

Xabier Montoia: *Non dago Stalin?* (1991)

Montoiaren lehen eleberri honetan intrigaz beteriko istorio bat eskaintzen zaigu: Mailu, bere mutil-laguna desagertu dela ohartu ondoren, bere lagunei jakinarazi, eta desagerturiko Stalinen bilaketari ekiten dio. Errotatxipin ustez Stalin den gorpu bat topatzen dute. Beraz, herrian desagerpena salatuz jendea mugitu egiten da: pintadak, manifestaldiak, rock jaialdia,... Baina, hilketa honen atzean uste baino azpijoko gehiago ezkututzen dira, eta eleberriak aurrera egin ahala misterioaren korapiloa askatzen joango da. Gaur egungo Euskal Herrian kokaturiko intrigazko istorioa da. Hartara, rocka, drogak, ETA, Ertzaintza, EAJ, pintadak, manifestaldiak,... aipatzen dira.

Trama honen berri emateko gasteiztarrak hirugarren pertsonako narratzaile orojakilea aukeratu du. Era honetara, narratzaile estradiegetikoak fokalizazioaren bidez, hainbat pertsonaietara gerturatze-ko aukera du, intriga indartuz. Izan ere, tarteka-marteka pertsonaia ezberdinen iritziak erantsiz istorioaren sarea osatuz goaz.

Trama honetan zehar, pertsonaia ugari deskribatzen zaizkigu. Stalinen lagunak, esaterako, intrigaren korapiloa askatzen lagunduko

¹¹ Estèbenez Calderón, Demetrio. 1996. *Diccionario de términos literarios*, Alianza, Madril, 760 orr.

diote Mailuri: Gorroto, Miren, Mikel. Mardones, Maitte Matauko eta De Cortazar, besteak beste, pertsonaia aurkakoak dira. Hauetaz gain badira beste pertsonaia batzuk ere: Satankumeak, Gorka Salaberria,... Nahiz eta pertsonaia ugari aurkeztu, ez zaigu inor sakonki deskribatzen, izan ere, guztiak pertsonaia lauak dira. Horregatik, narratzaileak kanpo fokalizazioaren bidez ematen digu hauen berri. Gainera, kanpo fokalizazio hori erabilita kamararen lana egin dezake fokoak pertsonaia batetik bestera aldatuz, eta beraz, intrigaren nondik norakoak bata bestearen ondoan txertatzen diren eszena ezberdinen arabera irudikatuz.

Esan bezala, garaiazen inguruko erreferentzia ugari daude. Hona hemen beste zenbait: *Egin*, *Euskal Idazleak Gaur* liburua, ... Baina, garaiko zenbait ezaugarriaren erreferentzia etengabea den arren, bukaera arte ez da data zehatz baten berri emango. Hala ere, aipu hauek guztiak narrazioa girotzeko baliagarriak diren arren, ez dute istorioaren nondik norakoa bideratzen, izan ere, istorio bera beste lekuren batean ere irudika baikenezake. Ondorioz, istorioa idazteko garaian, errealismoa aukeratu duen arren, ez du istorioa herri jakin batean kokatzen, kronotopo indeterminatua baitarabil. Egiten dituen aipamenen arabera, Donostiatik gertu dagoen herri bat izan daitekeela iradoki egiten zaigu.

Bestalde, intrigazko istorio honen bidez boterearen inguruko azpijokoak azalarazi ditu, gaur eguneko egoerari buruzko erreferentzia zuzenak eginez eta irudimena tartekatuz.

Jon Alonso: *Katebegi galdua* (1995)

Bere lehen eleberrian Jon Alonsok genero beltza jorratu du. Istorio honen nondik-norakoa Juandeaburre Fundazioan liburu baten lapurretarekin hasten da; beraz, hau izango da aitzakia narratiboan. Lapurreta bitxi honek zenbaiten susmoak piztuko ditu, baita irakurlearen jakinmina ere. Dirudienez, XVI. mendean hugonote batek Leizarragaren aurretik idatzirikoa liburua da desagertu dena. Hortaz, bazter guztiak nahas ditzakeen liburua, euskal historia interpretatzeko era zeharo alda baitezake. Horregatik, poliziak, gobernadorea, ministroa, kazetariak, politikariak,... desagerturiko liburua nork lehenago eskuratu ibiliko dira. Egileak aitortu zuen bezala “boterearen harremanen gaineko erretratoa egin nahi izan” du (Larrion, Patxi: *Argia* 1548).

Hain ezberdinak eta ugariak diren pertsonaien gertaeren berri emateko narratzaile orojakilea darabil idazleak. Era berean, narratzaile honek ikuspegi aldaketa eginez pertsonaia ooren berri emango

digu: are gehiago, bere gogoetak eskainiko dizkigu (narratzaile iriztiemailea, beraz).

Intrigazko argumentuaren eta fokalizazioaren bidez, filme baten antzera eraikitako eleberri baten aurrean gaudela ikus dezakegu. Kasu honetan ere, narratzaile estradiegetiko batek kontatzen digu intrigazko istorioa, honela narratzaile guztiahalduna pertsonaia guztiengana hurbil baitaiteke. Egile honek ere kanpo fokalizazioa darabil gertaeren berri emateko. Izan ere, mota honetako eleberrietan batik bat kontatzen den istorioa da garrantzia duena, ekintzak ez pertsonaien barne egoera. Gainera, gertaerak ez dizkigu jarraipen kronologiko zehatz baten arabera kontatzen: ugariak dira atzera eta aurrera egiteak. Analepsiei dagokienez, gehienak analepsi mistoak eta barne analepsiak dira. Halaber, askotan une berean gertaturiko ekintza bat birritan kontatzen digu, baina, ikuspegi ezberdin batez (beste pertsonaia ezberdin baten ikuspegiaren arabera). Ondorioz, irakurleak antolatatu behar ditu denborari dagokionez nahasturik doazen pasarte hauek. Bestalde, askotan kontatzen ez denak ere garrantzi berezia bereganatzen du: idazleak hutsuneen bidez irakurlea irudimena erabiltzera gonbidatzen du. Esate baterako, eleberriaren amaieran ez zaigu Aitorgoitian istilua konpontzeko burutzen diren elkarrizketetan esandakoaren berri ematen: horiek guztiak geure sormenerako edo irudimenerako uzten dira.

Gertaeren berri ikuspegi ezberdinen bitartez ematen badigu ere, bada gertaera guztietan presente dagoen pertsonaia nagusi bat: *katebegi galdua*, hots, lapurturiko liburu. Honek egiten du pertsonaien arteko lotura. Beste hainbat pertsonairen zeregina liburuaren inguruko berriak zehaztean datza. Baina, liburuaren amaieran, Aitorgoitia-ko elkarrizketetan zehazki, liburuan zehar han hemenka eta harremanik gabe aipaturiko pertsonaia gehienak biltzen dira.

Argumentua aipatzean ikus zitekeen bezala, intrigazko istorio hau Euskal Herrian kokatzea erabaki du idazleak. Zehazki zein lurraldetan kokatzen den aipatzen ez zaigun arren, idazlanean zehar aipaturiko datuen arabera Euskal Herriaz mintzo dela garbi geratzen da: aipamen filologikoak, historikoak, sozialak,... Baina, noski, Euskal Herria eza- gutzen ez duen batentzat, kronotopoa guztiz indeterminatua da.

Aurretik aipaturiko boterearen harremanen gaineko erretratoa, idazleak ironia edo umorearen bidez egitea erabaki du. Honela adierazi zuen Alonsok bere jomuga: “Eleberriak bizi dugun egoeraz barre egiteko balio nahi izan du, eta beharbada, bigarren maila batean, inork horrekin gogoeta piska bat eginen balu askoz hobe, noski.” (Larrion, Patxi: *Argia* 1548)

Bukatzeko, Edorta Jimenezen hitzak bertaratzea egokia iruditu zaigu:

Katebegi galdua thriller historiko-politiko delako esango nuke nik, definizioek ezertarako balio dutela uste izango banu. Iruzkina honen balizko irakurlea liburuaren irakurle egin alde ematen dut, aldiz, esan behar delarik *thriller* hoberenetan bezala gertatzen dela hemen ere, esan nahi baita, aurrera egin ahala emozioa eta jakinmina ere gorantz datozkigula. (*Egun-karia* 1996-II-24)

Migel Anjel Mintegi: *Esker mila, Marlowe* (1996)

Mintegik bere bigarren eleberri honetan erabateko aldaketa egin du: amodiozko gai bat jorrazetik genero beltza jorrazera igaro baita. Eleberri honetako pertsonaiak bat-batean hilketa bat ikertu beharrean ikusiko du bere burua. Xabierrek aspaldian ikusten ez zuen anaiaren heriotzaren berri izan zuen. Hasieran, gaindosi baten eraginez hil zela zirudien. Baina, gertakariak aurrera egin ahala, hilketa-aren susmoa piztuz doa. Honela, bere anaiaren bizimodua nolakoa zen ezagutzeko aukera izango du. Hilketa honen nondik norakoak ikeritzeko Marlowe-ren laguntza izango du. Izan ere, film baten argazkia ikusi zuenetik Chandler-en liburuak irakurtzen hasiko baita. Beraz, dirua, droga, kaleko giroa,... izango dira liburu honetan aurkituko ditugun zenbait elementu.

Pertsonaia nagusi honek berak hitz egingo digu lehenengo pertsonan: hots, Xabierrek emango digu gertaeren berri. Beraz, narratzaile autodiegetikoa izango da oraingoan intrigazko istorioaren berri emango diguna. Hala ere, zenbaitetan hirugarren pertsonara joko du narratzaileak, pertsonaia nagusiarekin hertsiki loturik ez dauden zenbait pasarteren berri ematean. Hortaz, paralepsi bat dagoela dakusagu: izan ere, narratzaile autodiegetikoa dena une batean narratzaile estradiegetikoaren lekua betetzen saiatzen baita. Edo maila estradiegetiko eta intradiegetikoaren aldizkatzea ere izan liteke.

Hona hemen pertsonaia nagusiaren ezaugarrietako zenbait: “nortasunez, izatez ere nahikoa parekoak ditugu Marlowe eta Xabier: egoerak murgilarazi dituen giroa bezain ilun eta ezkorrak.” (Grandes, Leticia: *Egan* 49) Haatik, Xabierren nortasunean aldaketa bat nabari da, ez baitago antzekotasunik hasierako Xabier eta bukaerakoaren artean. Baina, nahiz eta pertsonaia honen izakeran aldaketak nabaritu, zaila da hauen zergatia eleberrian bertan topatzea.

Kokalekuari dagokionez, Bilbo eta Donostia dira agertzen diren hiri bakarrak. Protagonista inguruko herriren batean bizi den arren, ez da honen izenik aipatzen. Bestalde, lekuari buruzko aipamen gutxi egiten direla azpimarratu behar da. Javier Rojoren hitzek oso ongi adierazten dute adierazi nahi duguna:

Bestaldetik, ekintzaren gertalekuari (Donostia) errepara-tzen badiogu, konturatuko gara inguruko errealtateaz aipa-men guti (inoiz egiten bada) egiten dela eta, Donostian barik, beste edozein lekutan gertatu balitz, irakurleak ez zukeen alde handirik nabarituko. (*El Correo* 1997-IV-24)

Grandesen ustez, bestalde, “ekintza aurkezteko modua da, ekintza bera baino gehiago, eleberriari bizitasuna ematen diona.” (*Egan* 49)

Intrigazko sare hau eratzeko, estilo irakurterraza erabili du: “idaz-kera ulergarri bezain umotu eta sakona erabili izana atsegingarri suertatzen zaizkio irakurleari.” (Grandes, Leticia: *Egan* 49) Bestalde, elkar-ritzketak landu ditu bereziki: kaleko hizkeran, esate baterako, gaztele-razko zenbait esapide sartu ditu. Elustondoren iritziz, “ohiko giro beltz hotzaren ordez lausoagoa dugu hizkeran.” (*Egunkaria* 1997-I-25)

Egileak berak aitortu zuenez, Dashiell Hammett, Raymond Chandler eta garaiko beste hainbat idazleren lanak irakurri izan ditu. Gainera, haien idazkerara hurbiltzen saiatu dela ere adierazi zuen, elkarritzketak ironiaz jantzi eta kaleko hizkera zainduz.

Honela laburbildu zituen Javier Rojok eleberri honen ezaugarri nagusiak:

Eleberri beltzari suposatzen zaizkion elementu gehienen presentzia erakusten du liburu honek: protagonista ikertzaile pribatua da; honek normalean diru arazoak ditu; ironikoa eta batzutan zinikoa ere bada, baina funtsean erromantiko hutsa; nahi gabe, egoera nahasi batean sartu da, hasieran inolako misteriorik ez zeukan ikerketari ekin ondoren; ikerketa hone-tan aberastasunaren atzean izkututzen den usteldura agertuko zaigu. (*El Correo* 1997-IV-24)

3.2. Zientzia-fikzioa

Zientzia fikziozko¹² narrazioetan etorkizunean kokaturiko irudi-menezko mundu bateko gertaeren berri ematen zaigu. Beraz, fanta-

¹² Estèbanez Calderón, Demetrio. 1996. *Diccionario de términos literarios*, Alianza, Madril, 151 orr.

siaren bidez, eta zientziaren eta teknologiaren aurrerapena kontuan izanik, mundu posibleak eratu ohi dira.

Era honetako kontakizunetan pertsonaien psikologia oso gutxi garatzen da. Gainera, zientziari nahiz gizarteari dagokionez, gaurotasuna erakutsi ohi duten gaiak jorratzen dira. Are gehiago, askotan gizarte garaikidea kritikatzeko aitzakia edo bidea dira gai hauexek.

Euskal eleberrigintzan oso gutxi jorraturiko generoa dugu honakoa.

Iñaki Irazabalbeitiaren eleberrigintza

Elhuyarreko presidentea den Iñaki Irazabalbeitiak bi eleberri kaleratu ditu hamarkada honetan: *Arrotza paradisuan* (1991) eta *Uda guztiak ez dituk berdinak*, *Isi* (1995). Donostiar honek bere bi eleberrietan zientzia fikzioa jorratu du. Bere lehen eleberrian espazioko piraten ondorioz lurreratu behar izan duen espazioko merkatarari baten istorioa kontatzen digu: Juliusen istorioa. Piraten eraso delata-eta bere espaziuntzia noraezean geratzen da izar bateko hirugarren planetara iritsi arte. Nekazari gizarte batekin topo egingo du, jauntxoan pean dagoen gizarte batekin. Bertako biztanleak Urdinen zapalketaren beldur direnez, ihes egitea erabaki dute. Julius arrotzak Urdinei eta jauntxoei aurre egiten lagunduko die nekazariari. Hortaz, bi kulturen arteko elkartrukaketa bat aurkezten zaigu. Gainera, “Liburuan umore eta ironia fin fina nabarmentzen da, esaterako Euskal Herrian ederki ezagutzen dugun kaxiano itsua abentura galaktikoan –hori bai, giro egokian– kokatzen duenean.” (*Egunkaria* 1991-VI-1)

Bere bigarren eleberrian, politika internazionala eta estralurtarrak batzen ditu. Pertsonaia nagusia, Isidoro Belaustegigoitia deiturikoa, lurralde batetik bestera dabilen *Egunkariako* berriemailea da. Erredakziora Kazakstanen estralurtarrek lur hartu dutelako berria iritsi da. Azkenean, kazetari hau bidaltzen dute berri honen inguruko gertaerak ikertzeko. Gobernu indartsuenek eta Kazakstango gobernuak gertaturikoa ezkutuan mantendu nahi dute, arazorik ez sortzearren. Isidorok korapilo honen erdian nahasturik aurkituko du bere burua, bera izango delarik hau askatzeko ahalmena izango duen bakarra: honela, gizartearen beste ikuspegi bat bereganatuko du. Gainera, liburua gizarteari eta etorkizunari buruzko gogoeta xumetzat ere har genezake.

Argumentuari begiratuz gero, bigarren eleberrian lehenengoan ikusten ez ditugun gaur eguneko gizarteko zenbait erreferentziarekin

topo egiten dugula aipagarria da. Itxuraz, bigarren eleberri honetan gaur eguneko gizartearen isla eta irudimena nahastu nahi izan ditu, eleberriaren bidez gogoetarako bideak irekiz.

Narratzaileari dagokionez bi aukera ezberdin egin ditu: lehenengo eleberrian narratzaile orojakile batek aurkezten dizkigu istorio honen nondik-norakoak, narratzaile estradiegetikoak; bigarrenean, berriz, Isidrok, protagonistak berak kontatzen digu istorioa, hots, narratzaile autodiegetikoak. Bi eleberrietan, bestalde, kanpo fokalazioa darabil gertaeren berri emateko. Izan ere, pertsonaia lauak baitira sortzen dituenak: “zintzoa beti zintzoa, maltzurra beti maltzurra.” Hau da, “Pertsonaiak eskematikoak dira: heroia, neska polita...” (*Argia* 1328)

Kokapenari dagokionez, lehen eleberrian mundu irrealak sortu ditu: espazioa, nekazari mundu asmatua. Bigarrenean, ordea, leku errealak deskribatzen ditu, sinesgarritasuna eta irudimena nahasteko asmoari jarraituz: Errusia, Donostia,...

Bi eleberri hauetan denbora kronologikoki antolaturik badago ere, zenbaitetan iraganerako salto batzuk ikus daitezke. Haatik, hari nagusiaren jarraikortasuna da nabarmenena. Gainera, egitura narratibo sinplea dute: hots, maila narratibo bakarrean garatzen da erlatua.

Estiloari gagozkiola, eleberri arina sortu duela aipatu behar da. Bi eleberrietan, estilo erraz eta biziaren aldeko apostua egin du. Bigarren eleberriaren argitarapena zela-eta egin zioten elkarrizketa batean honela hitz egin zuen bere estiloari buruz: “Dena den, ez da mezuzko nobela trinkoa, irakurterreza eta arina baizik. Saiatu naiz, hala ere, hizkuntza lantzen, lexiko joria erabiltzen eta esapide erdi galduak zirkulazioan jartzen.” (Olasagasti: *Egunkaria* 1995-XII-6) Honela defendatu zuen bere aukera idazleak: “Iruditzen zait gure artean literatura *handi* gehiegi dagoela eta denbora-pasarako gutxi”. (Olasagasti: *Egunkaria* 1995-XII-6)

Zientzia fikziozko eleberrigintzari buruz honela mintzatu zen:

Zabala da oso alorra. Mutur batean mitologiako kontakizunei buruzkoak leudeke, *Cyrano de Bergerac*, edo *Gulliverren abenturak* adibidez; hauek ez dute oinarri zientifikorik. Beste muturrean, berriz, koka daitezke oso istorio zientifikoak, Julio Vernek idazten zituenak kasu. Laburbilduz, niretzako hauek dira eleberrigintza honen ezaugarri nabarmenak: alegiazko mundu batez aritu arren, mundu horren oinarrietan bada beti zientziarekin zerikusia duen zerbait. (Olasagasti: *Egunkaria* 1995-XII-6)

Arthur C. Clarke, “2001, odisea espazioan” idatzi zuena, britainiarra da, oso argia da. “Hard” edo oinarri teknologiko handiko nobelak idazten ditu, astrologia delako, besteak beste.

“Soft” deitzen den horretan, hau da oinarri teknologikoari hainbesteko garrantzia eman gabe, egoera soziologiko, sikologiko eta filosofikoa azaltzea hobesten dutenen artean, Phillip José Falmer iruditzen zait adierazgarriena.(...) Frederic Pohl ere oso gogoko dut, eta baita Stanislaw Lew ere. (*Argia* 1328)

Honen moduko gaiak jorratu dituzte, besteak beste, Arthur Clarke, H.G. Wellsek. (Olasagasti: *Egunkaria* 1995-XII-6).

Arrotza paradisuan eleberriaren testuartekotasunari dagokionez, honakoa adierazi zuen:

Liburuan Tolkienengandiko eragina nabaritzen da noiz-behinka: Erdi Aroko giroa isladatzean, pertsona zintzoen bihotz ona erakustean edota maltzurren –urдинen– izen onomatopeikoetan, Gudruk adibidez. (*Egunkaria* 1991-VI-1)

Juanjo Gabiña: *Su xahutzailea* (1996)

Gabiñak eleberri honen bidez 2004. urtera garamatza. Gabiñak okerrera doan gizarte baten irudia eskaintzen digu: gero eta marjina-tu gehiago dituen gizartea, hirugarren munduaren egoeraren okertzea ekarri duena, eta lehen munduaren barruan ere desorekak areagotu egingo dira. Honela, Ipar Amerikako eskuindarrek zerbait egiteko beharrean ikusiko dute; hortaz, boterea bereganatzeko diktadura ezarri beharrean izango dira. Kontrola lortzeko asmoz, burtsa dagoen hiri nagusietan lehergailu atomiko bat jarri nahiko dute. Bonbak jartzeko munduko leku ezberdinetako erakunde armatuak (IRA, ETA, Brigada gorriak, IK,...) engainatuko dituzte, *Azken Epaiá* deituriko taldea eraturaz. Giro honetan, etengabeko jakinmina pizten duen istorio batean murgilduko gara.

Ondorioz, eleberri honetan pertsonaia ugari aurkezten zaizkigu: erakunde armatuko partaideak, CIAkoak, presidenteak, laguntzaileak,... Hala ere, narratzaile estradiegetiko eta orojakile baten bidez, hauetara guztietara hurbiltzeko aukera dugu. Honela, pertsonaia ezberdin hauen bizitzako zenbait pasarte eta hauen gogoetak eskaintzen zaizkigu. Halaber, narratzaile mota hau aukeratu izana egoera beraren ikuspuntu ezberdinak azpimarratzeko baliogarria zaio.

Beraz, istorioa pertsonaia ezberdinen agerpenez irudikaturiko koa-droez osaturik dago. Bestalde, ez du pertsonaien psikologian gehiegi sakontzen, hauen barnean ez baita barne gatazka sakonik edo garapen berezirik sumatzen.

Etorkizunean kokaturiko istorio honi sinesgarritasuna erantsi nahi zaionez, leku errealak erabili dira narrazioa kokatzeko: besteak beste, Tokio, Frankfurt, Zurich, Paris, Londres eta New York. Modu honetan, ez da giro jakin bateko deskribapen zehatzik egiten.

Istorioaren iraupena ere zehazki adierazten da: 2004. urtean hasi eta 2008. urteko gogoetekin amaitzen da. Gainera, 2004. urteaz ari-tzean iraganean dihardu, eta 2008. urtea aipatzean, aldiz, orainaldian. Istorioa kronologikoki kontaktzen bazaigu ere, pertsonaien berri emateko haien bizitzari buruzko zenbait pasarte aipatzean, denboran hainbat erretrospekzio egiten direla dakusagu. Bestalde, kontuan hartu beharko genuke batzuetan narrazio luze baten bidez oso epe laburraren berri ematen dela, eta beste batzuetan, liburuaren amaie-ran, esaterako, orrialde batetik bestera urteetako alde dagoela. Hau da, narrazioaren erritmoa aldakorra da.

Juanjo Gabiñak elkarrizketa batean “estilo berri bat asmatu” due-la adierazi zuen: “Askozaz errazagoa, ez hain barrokoa... Izan ere, hainbat aldiz kritikatu izan dut euskaraz edo frantsesez erabiltzen den teknika barroko hori.” (Olasagasti: *Egunkaria* 1996-XI-28) Darabilen estilo erraz honetan, elkarrizketa biziak aipatzekoak dira. Hala ere, estilo erraza idazle askok landu dutela aintzat hartzekoa da: hala nola, Jon Arretxe, Arantxa Iturbe.

B. IPUINGINTZA

Ipuin-bildumak sailkatzerako orduan, hauen batasunari begiratu diogu. Hartara, datozen orriotan ikusi ahal izango duzuen bezala, hiru sailetan berezi ditugu; lehenik, ipuinen artean nolabaiteko kate-aketa erakusten duten bildumak aurkeztuko ditugu; bigarrenik, bata bestearengandik independenteak edo askeak diren ipuinak eskain-tzen dizkiguten bildumak aipatuko ditugu; eta azkenik, ipuin aske gutxi batzuei buruzko zenbait aipamen egingo ditugu.

Bestalde, ondorengo ipuin-bilduma batzuetan ikusi ahal izango dugun bezala, ipuin laburrerako joera hedatuz doa. Ipuin labur¹³ honek bat edo bi orrialde izaten ditu, eta bere luzera dela-eta, ezau-

¹³ Zehaztasun gehiagorako ikus *Lucanor* aldizkariko 15. zenbakia.

garri jakin batzuk ditu. Hona hemen horietariko batzuk: izenburua-
ren garrantzia ulermenerako; ironiaren erabilera; amaieraren
garrantzia: ezustea, zentzugabekeria,...; laburrak direnez, pertso-
nakiak aurkezteko denbora eta espazio gutxi egoteak hauen aurkezpe-
nak baldintzatzen ditu; deskribapenak alde batera utzi ohi dira; elka-
rrizketek garrantzia gutxi dute; egoera sinboliko edo metaforikoa iru-
dikatzeko joera dute; hitz gutxitan gauza asko esan nahi direnez,
batik bat konnotazioa gailentzen da.

Jo dezagun bilduma hauen berri ematera.

4. KAPITULUA: Lotura duten ipuin-bildumak

4.1. Lotura tematikoa

Gaia elementu bateratzaile gisara erabilia bilduma ugaritan aur-
kitu dugu.

4.1.1. GIZA HARREMANAK HIZPIDE

Lehenik, giza harremanak gai nagusizat dituzten bildumak izan-
go ditugu komentagai: bikoteen gaizki-ulertuez, maitasunaz, jelo-
kortasunaz, gorrotoaz,... mintzo direnak. Hauetan guztietan antzera-
ko ezaugarriekin egin dugu topo: ironiaren erabilera, amodioaren
desmitifikazioa, eguneroko egoeren garrantzia.

Arantxa Iturberen ipuingintza

Arantxa Iturbe kazetariaren bi ipuin-bilduma argitaratu ziren
90eko hamarkadan. *Ezer baino lehen* (1992) liburuan hamazazpi
ipuin eskaintzen zaizkigu; eta *Lehenago zen berandu* (1995) bildu-
man, ordea, hamahiru. Bi bilduma hauetako ipuinok gai eta estilo
bera erabiliz sortu ditu. Amodioa, edo zehazkiago, giza harremanak
dira ipuin hauetako ardatz nagusia. Egunerokotasuneko eszena
ezberdinetan kokaturik aurkezten dizkigu pertsonaia ezberdinak: hau
da, normalean oharkabean igarotzen diren eguneroko egoerak azpi-
marratu nahi izan ditu. Eguneroko bizitzako harremanetako gerta-
rei irudimena erantsi die: batzuetan, gertaera hauek pertsonaien
obsesio bilakatuko ditu. Izan ere, kontakizun labur hauek gizon-ema-
kumeen arteko harremanen ikuspegi berezia eskaintzen dute: bikote-
en arteko adar-jotzeak, gaizki ulertuak, jelsiak, gorrotoa, maitasuna,
adiskidetasuna.... Askotan harreman horiek pertsonaien ilusio iturri

bakarra izango dira. Honela, ilusioaren beharra dela-eta, askotan gizakiek gure buruari iruzur egiteko dugun gaitasuna islatuko da, eta batzuetan ilusio horien bilaketan pertsonaiak erotu ere egingo dira. Haatik, harremanak joko modura irudikatzen ditu, eta hainbat huskeria besterik ez diruditenak pertsonaia batzuentzat hil ala bizikoak bihurtuko dira. “Destinoaren jokutriez, suertearen kolpe krudelaz trufatzeko erabiltzen du Arantxak literatura eta xede guttiz sanoa dela deritzait, maiz sinpletasunak eta fribolidadea puntu batek traizio egiten badio ere.” (*Egunkaria* 1992-V-16)

Gizon-emakumezkoen arteko harreman hauetan telefono nahiz eskutitzek leku berezia betetzen dute, sarritan hauek baitira harremanetarako tresna: hau da pertsonaien arteko lotura tresna.

Bestalde, emakumea da ipuin hauetako protagonista nagusia. Mota guztietako emakumeak irudikatzen dizkigu: gazteak, zahar-
rrak, irtirinak, tristeak, alaiak, samurrak, kaskarinak, ... “Bera bezalako emakumeak agertzen dira joan etorrian, maitasunaz, adinaren etengabeko kalteaz edo bizitzeko beste hainbat ezbehar txikiz kezkatu-
rik.” (*Egunkaria* 1992-V-16) Begoña Muruagak Dorothy Parker-en *La soledad de las parejas* liburuarekin alderatu zuen. Bere aburuz, batez ere, bi dira topa daitezkeen antzekotasunak: batetik, biek bikoteen bakardadeaz dihardute; bestetik, bietan emakumea da protagonista. Hala ere, ezberdintasunak ere azpimarratu zituen: Parkerren eleberrian emakumeak galtzaile irteten baziren ere, “Arantxa Iturberenean, berriz, emakume guztiak ez dira galtzaile irteten. Hemen badago irabazle irteten denik, nahiz eta munduaren aurrean bakarrik izan irabazle eta ez bere barnean.” (*Egunkaria* 1995-VII-30)

Ipuin hauetan eguneroko egoera batzuk kontatu nahi zaizkigunez, kronotopoa zehazteke utzi du. Gainera, honela sentimendu eta egoera horien unibertsaltasuna ere aldarrikatzen du.

Estiloari dagokionez, ipuin motz, arin eta irakurterrazak dira: estilo bizia, zuzena eta freskoa aukeratu du istorio hauek josteko. Honela mintzatzen da Lertxundi Iturberen idaztankera aipatzean: “Espontaneitatea, inziso eta zuzenketa etengabeak, (...) interpelazio bapatekoak, erritmo aldaketak, aditz adierazleen ugaritasuna, ahozko jarioaren kadentzia...” (*El Diario Vasco* 1992-V-30). Hortaz, ahozko hizkeratik oso gertu dagoen estiloa darabil. Era berean, bat-batekotasuna nabarmentzen da. Bizitasuna eta azkartasuna lortzeko askotan elkarrizketetara jo duela ere azpimarratu beharra dago.

Elkarrizketa batean honakoa aitortu zuen: “Berez naiz esaera errazak eta sinpleak egitearen zale.(...) Baina zergatik kontatu behar

dira gauzak ahalik eta zailen? Erraz kontatuta uler balitezke eta esanahi berdina baldin badute, askotan, grazia gehiagorekin gainera...” (*Habe* 219)

Bestalde, kontakizun hauek badute umore ukiturik. Muruaga bigarren liburuari buruz ari delarik honakoa diosku: istorioek “beti dute holako tonu umoretsua esanez bezala bizitzan gauzarik tragikoenak ere –bikote kontuan behintzat– ez lirakeela hartzen ditugun bezain serio hartu behar.” (*Egunkaria*, 1995-VII-30) Nahiz eta bi bildumetan umorea eta ironia darabilen, bigarren bildumako ironia zorrotzagoa eta landuagoa da. Izan ere, bilduma honetan askotan umore beltza eta tragikoarekin topo egingo dugu. Baliabide hauen guztien bidez, Arantxak “amodioa nahiko desmitifikatuta” azaltzeko aukera izango du. (Saizar, Joxemi: *Argia* 1389)

Bere lehen ipuin-bilduma kaleratzean liburu arina zela aitortu izanagatik kritika dezente entzun behar izan zituen alegiarrak. Beraz, bere bigarren liburuaren argitarapena zela-eta, adierazpen honen bidez defendatu zuen eginiko aukera: “Ez dut uste arintasuna eta azpilitadura batera doazenik.” (*Habe* 219)

Jasone Osoro: *Tentazioak* (1998)

Elgoibatar honek bere lehen liburuan hogeita bost narrazio eskaini dizkigu. Narrazio hauetan guztietan erotismo, sentsualitate eta gizon-emakumeen arteko harremanekin topo egin dezakegu. Honela, “erdi-tabu edo (izan) diren gaiak lotsa zuririk gabe jorratzeko gogoia” (*Jakin* 106) erakutsi du. Baina, gai hauek guztiak gai bakar baten inguruan harilkaturik daudela esan genezake: desioaren inguruan. Honela Felipe Juaristik aipatu zuen bezala, pertsonaiak errealitate eta desioaren arteko mugako mundu batean bizi direla ematen du, desioa errealitatearekin nahasiz. (*El Diario Vasco* 1999-IX-11) Gainera, amodioaren inguruko kontuetan bikoteen arteko gaizki ulertzeak, korapiloak eta ezin ulertuak kontatzen dira. Iturberen ipuingintzaren ildotik jo du, hortaz, ez baitugu amodioaren irudi idealizaturik eskainiko; “eguneroko bizitzaren briztarak islatzen saiatu da egilea, moralkeriarik gabe, irakurleak hitzen benetako esanahia aukera dezan.” (*Egunkaria* 1998-III-25)

Patxi Ezkiagak hiru gauza azpimarratu zituen ipuin-bilduma honetaz aritzean: “Lehenik, barrurako bidaiak direla. Bigarrenik, bidaiak horretan abiatu ahal izateko idazleak erabiltzen dituen garraio bideen egokitasuna. Azkenik, moralkeriarik eza.” (*Egunkaria* 1998-III-25) Guk, ordea, ez dugu hain garbi ikusten barrurako

bidaiak direnik, izan ere, eguneroko egoeren aurkezpenak baitira ipuin gehienak. Gainera, eguneroko egoera hauen unibertsaltasuna adieraziz edo, ez du denbora eta espazioa zehazten, Iturberen joerari jarraiki.

Pertsonaia hauek biziki desiratzen duten pertsonaiak direla aipatu dugu: hots, errealtatea eta desioa nahastera iristen direnak. Baina, desiratzen dutena egitera doazela patuak ezustekoren bat ekarriko du beti. Azkenean, ezer ez baita dirudiena izango: hortaz, ustekabez josiak daude ipuinok. Oso era egokian deskribatu zuen Javier Rojok ipuin hauen garapena: “arrunta dirudien egoera bat planteatu ondoren, oreka apurtzen duen elementu bitxi bat sartzen du han. Gauzak horrela, elementu bitxi horrek ezusteko amaiera batera eramango du egoera.” (*El Correo* 1999-III-31) Hala ere, batzuetan egitura errepikakorregia bihurtzen da: “Hainbeste aldiz errepikatzen dira halako ezusteko amaierak, non irakurleari azkenean ezer ez baitzaio ezusteko iruditzen. Beraz, aldika irakurtzea komenigarriago.” (*El Correo* 1999-III-31)

Bestalde, bilduma honetako hiru ipuinetan tradiziozko ipuinak oinarritzat hartu eta hankaz gora jarri ditu: “txikitako ipuinak hartu, astindu bat eman eta ipuinok hankaz gora jartzeko.” Joera hau Mailuix Legorbururen ipuin batzuetan ere ikusiko dugu. Honela, joko ederra sortzeaz gain, ohikoa denari beste ikuspegi batetik begiratze-ko beharra azpimarratzen du.

Osoro ere estilo irakurterazaren alde makurtu da. Idaztankerari buruzko honako iritziak topatu ditugu iruzkin ezberdinetan:

Oso erraz eta azkar irakurtzen den liburua da *Tentazioak*, baliabide literario urrikoa eta hizkuntza erraz eta zuzenekoa. (*Egunkaria* 1998-IV-18)

Hizkera arin, doi eta freskoan eskaintzen zaizkigun istorio, “flash” edo egoerak dira “hasi-eta-bukatu” aise egiten diren estilokoak. (*Ostiela!* 13)

Idazkera, berriz, freskoa, arina eta jostalaria da; iradokizuna erabiltzen du une oro idazle gazte honek, erdi-esanak eta esan gabe ulertu behar direnak; badu malezia punttu bat, eta badu erotismo ukitu bat ere pasarte askotan. (*Aizu!* 212)

Hala ere, gure aburuz, ez ditu beti irudi iradokitzaileak erabiltzen, adierazi nahi duena hainbatetan zuzenean aipatzen du. Iturberen ipuinetan bezala, ipuinotan ere elkarrizketek garrantzia handia dute, narrazioari bizitasuna eranstean baitiote.

Xabier Montoia: *Emakume biboteduna* (1992)

Amodioari buruzko hamaika ipuin eskaintzen zaizkigu Montoia-
ren lehen ipuin-bilduma honetan:

Bai gaiz bai estiloz, Euskal Herrian egin izan den ipuin-
gintzatik urrundua, “bihotzaren pozaldi bakanen eta larrialdi
ugariren gaineko hamaika ipuin” dira egilearen hitzetan, jen-
de arruntaren maitasun-nahi, sexu-irrika eta bakardade
behartuari buruzko maisu lan gazi-goza. Idazketa lau eta
minimalista batean, doinu mantsoan, erretratu soziologikoa
egiten duten albo-istorioz inguraturik, oso atzean uzten du
Non dago Stalin? dibertigarri haren marka.” (*Jakin* 79)

Gehienak, haatik, desamodiozkoak dira, bakardadera kondenaturi-
ko gizon eta emakumeak aurkezten baitzaizkigu. Ilusioen zapuzketa,
bakardadeari ikara, behin behineko harremanen zaporea,... dira ipuin
hauetan agertzen diren hainbat gai. Izan ere, oso ipuin gutxitan topa-
tuko ditugu amaiera ederrak eta alaiak. Beraz, “grina eta benekotasu-
na Montoia-
ren hamaika ipuinotan baino hobeto ageri dira; haurren
lehendabiziko deskubrimenduak, sexua, infidelitateak, droga, telefono-
aren presentzia obsesiboa...” (*Egunkaria* 1993-I-10). Telefonoaren pre-
sentiak, Iturberen ipuingintza dakarkigu gogora. Gai hauekin batera
maitatzeko edo sexuan aritzeko era ezberdinen aipamena ere ageri da:
fetitxismoa, masturbazioa, homosexualitatea. Sexuari eta drogei, beraz,
erreferentzia etengabea egiten zaie bilduman zehar.

Edorta Jimenezen ustez narratzailearen ikuspegia ezohikoa da.
(*Egunkaria* 1992-XII-13) Izan ere, batzuetan gizonezkoa fokotzat
hartuz, eta honen istorioaren berri emanez, bigarren mailakoa den
emakumezko pertsonaiaren istorioa bereganatzen dugu gizonezkoa-
renaren hurbiltasun berberaz. Felipe Juaristik honela adierazi zuen
bere iritzia: “Xabier Montoia-
ren pertsonaiak ez zaizkit iruditzen amo-
dio-desamodio uhin kontrajarri gorren gainean nabigatzen, gaina
hartzen eta azkenik hondoratzen. Amodioaz hitzegiten dutenean bes-
te zerbaitez ari dira, sexoaz esaterako.” (*El Diario Vasco* 1993-I-16)

Edorta Jimenezek dioen bezala, “inor gutxi salbatzen da, narra-
tzailearen hitzak bisturiarena egiten bait du, trebetasunez pertsonaien
perfiletan, prosa bera, beti-beti borobiltzea lortzen ez badu ere.”
(*Egunkaria* 1992-XII-13) Beraz, Montoia-
iak ironia erabiltzen du
harreman hauen berri emateko.

Arantxa Iturbe eta Jasone Osoreoren ipuinetan ez bezala, Montoia-
iak harreman hauek Euskal Herrian kokatu ditu: Irun, Gasteiz, Bilbo,...

Erreferentzia ugari egiten dira liburuan zehar, bai literaturarekikoak bai zinemarekikoak. Juaristiren ustez, ordea, “aipamen horiek ez dira beti ondo integratzen kontaeeran.” (*El Diario Vasco* 1993-I-16)

Felipe Juaristik nahiko kritika zorrotza egin zion bilduma honi:

Halako atmosfera falta nabaritzen zaie ipuinei, oso azkar kontatuta dago dena, pertsonaiak behar gisa ezagutzeko betarik eman gabe. Lerro gutxitan garatzen du haiei buruzko nondik norakoa, kontaearak eskatuko lukeen erritmoa ez du errespetatzen, arrapaladan bezala joaten zaigu istorioa, detailetan finkatu gabe, elkarrizketetan gozatu gabe, eta, batzutan bukarako bide okerra hartuz. Oso presaka idatzitakoak dirudite gehienetan, eta horregatik ipuin batzuk absurdoak egiten zaizkigu, kontatzeko moduagatik gehiago, kontatzen denagatik baino. (*El Diario Vasco* 1993-I-16)

Hala ere, beheraxeago honakoa aitortu beharrean egongo da: “badituela ipuinetan zehar barreiaturik txispazo modukoak, disdiragarriak, alaiak eta umoretsuak, irla txikiak, dena dela, itsaso handi eta zakar batean.” (*El Diario Vasco* 1993-I-16)

Bestalde, *Egunkariako* iruzkingileak honela adierazi zituen Montoiaren narrazioen lorpenak:

Sakontasun psikologikoa bere obran gero eta handiagoa den bezala, bere lanean badago gero eta lortuago dagoen beste sakontasun mota bat ere, estilistikoa edo dei dezakeguna. Ipuin hauek mundu literario koherentea eskaintzen digute, eta estilo finkaketa batez horniturik. (*Egunkaria* 1993-I-10)

Joxe Belmonte: *Amodio zoroak* (1999)

Bilbotarraren bigarren liburu hau, bere lehen eleberriarekin aldearatzuz guztiz bestelakoa da. Liburu honetan hamaika ipuinez osaturiko bilduma osatu du. Ipuin hauek estiloari eta gaiari dagokionez estuki lotuta daude. Gaiari begiratuz, ipuinok maitasunaren zein bikoteen harremanen inguruko istorioak direla ikus daiteke. Iruzkin honetan era honetara laburbiltzen da ipuin hauetako edukia:

Egileak giza eta sexuen arteko harremanen gaiari eutsi dio: maitale amoltsuak aurkeztu ordez, maitale harro, setati eta zekenak irudikatu ditu. Izan ere, bilbotarra maitasunaren alde ezkutuenak islatzen saiatu da. Hortaz, maitasun eta heriotzaren arteko hurbilketa ageri da ipuin-sorta honetan: jeloskorta-

sunek, gezurrek, larderiek, usteek, adar-jotzeek, gaizkiulertuek,... ipuin hauetako maitaleak eromenera daramatzate. (*Pergola* 92)

Urrun dabil menditik, kale artera garamatza, eta, zehatzago esanda, hiri handi bateko pisuetako etxebizitzetan izaten diren bikoteen barrunbeetara: gizon-emakumeen gorabeherak eta miseriak, elkarren behar eta konpondu ezinak... maisutasunez daude deskribatuta, batez ere, zenbait gizon-tipo: harroa eta txepela, gizarajoa eta *pjjoa*. (*Jakin* 111)

Dakusagunez, maitasuna ez da modu idealizatuan aurkezten, ironiaz jositik. Jose Jabier Fernandezek dioen bezala, “umorez beterik daude baina garratzak dira, gogorak eta zuzenak. Pasioz eta suz gainezka dauden ipuinak dira, baina era berean baita hotz eta gupidagabeak ere.” (*Egunkaria* 1999-VI-19) Izan ere, liburu honetan heriotza eta maitasun-gorrotu artean egiten den hurbilketa azpimarratu behar da. Hartara, errealitatea eta usteak nahasirik ageri dira ipuin hauetan guztietan. Izan ere, “Kontatzen zaizkigun amodio istorioak beltzak dira, obsesioz josiak, sexua modu patologikoan biziz eta beti ukitu erotikoeekin tartekatuz. Grinak nabariak dira, baina inoiz ez espresuki, zuzenki adieraziz, zeharkako bideak erabiliz baizik, azpikojoa estilo bihurtuz, genero beltzean ohi den bezala.” (*Egunkaria* 1999-VI-19)

Ikuspuntuari dagokionez, ipuin gehienetan pertsonaiek lehen pertsonan hitz egiten digute. Gainera, pertsonaia hauek bere barne sentimenduetan murgilduko gaituzte, bere zalantzak, beldurrak, itxaropenak, desirak,... adieraziz.

Narratzailea gizonetzkoa dugu guztietan eta emakumearekiko ikuspuntua oso antzekoa da kontakizun guztietan. Emakumea da sentimendu nahasi eta kilikagarri guztien iturburu, baina beraren papera ez da agerian jartzen, bigarren mailako figura izatera lerratzen da. (*Habe* 292)

Aitzitik, zenbaitetan erakargarriagoa da kontatzen ez zaigun eta irudikatu ahal dugun bigarren mailako istorioa. Honek *Emakume biboteduna* bildumaz mintzatzean aipaturikoa gogora dakarkigu. *Pergolako* iruzkinean aipaturikoa jasotzeari egokia iritzi diogu:

Gizonaren ikuspuntua hurbiltasun handiagoz aurkezten bazaigu ere, gure aburuz, ipuinetan garrantzia bera dute kontatzen den istorioak eta kontatzen ez denak: hau da, bigarren

mailako pertsonaien atzean gordetzen dena. Izan ere, bi senti-
mentu kontrajarri azalaraztea lortzen baitu idazleak: batetik,
irribarrea (maitale eroaren istorio ezohiko eta umoretsuak
sorrarazten duena); bestetik, zirrara (kontatu ez zaigun maita-
le mindu edo hilaren egoera irudikatuz). (*Pergola* 92)

Beraz, jo puntu nagusizat gizezkoak ditu: “hauen balio ustelak
eta handiusteak” (*Jakin* 111), Montoiaren bilduma gogora ekarriz.

Jose Jabier Fernandezek genero beltzaren inguruko aipamena egin
ondoren, testuartekotasunaren inguruko honakoa gehitu zuen:

Bide honetatik, liburuak idazle estatu batuar askok jorra-
tutako ildo gogorarazten digu Joxe Belmonteren lanak. Baina
baita Katalunian genero horren inguruan azken urteotan egin-
dako lan bikainak ere. Guztietatik ikasi du Belmontek, baina
era berean bere estiloa ere landu du. (*Egunkaria* 1999-VI-19)

Iruzkingle beraren ustetan, “garbi utzi digu gaiak baino gehiago
istorioak eta kontatzeko moduak daudela.” (*Egunkaria* 1999-VI-19)

Javier Rojok, beste alde batetik, honakoa adierazi zuen:

Amodiozko harreman bitxiez idatzi nahi duelarik, txistea-
ren mugara eraman gaitu. Nire ustez, idazleak gainera nahiko
ondo daki honelako joku batean sartu dela, libururaren izen-
burua lekuko. Hor kontatzen diren amodiozko istorioek, liburu
dibertigarri eta harrigarria egiteko asmoak hala bultzatuta,
gehiengikerien irudia eman nahirik, patologia batzuen adie-
razbideak ematen dute. (*El Correo (Territorios)* 1999-V-5)

Idaztankerari begiratu, oso hizkera aberatsa darabilela aipatu
behar dugu, baina, era berean irakurterraza. Gainera, ironia zorrotza
lantzea ederki lortu du. Bestalde, irudi ugari darabiltza behatzailea-
ren begi zorrotza agerian utziz. Hala ere, ironia da idazle honen balia-
biderik erabiliena. Dena dela, aniztasuna da ipuin-bilduma honen
ezaugarri aipagarriena. *Pergolako* iruzkinean honako ezaugarri
hauek aipatu genituen estiloaz jardutean:

Estiloari dagokionez, ironia, umore ikutua eta motiboen
errepikapenak nabarmentzen dira: azken hauen bidez, ipuinen
amaieran istorioa hankaz gora utziko duten gertakizunak ira-
gartzten zaizkigu. Zenbaitetan egiturak nobela beltzaren
impasse-a dakarkigu gogora. Hala ere, estilo-aniztasuna naba-
ria da. Gure ustez, bada nolabaiteko gradazioa (edertasunetik
gordintasunera), hasieran amaieran baino irudi ederragoak

baitarabiltza (beti ere errealitate mingotsarekin kontrastea sortzeko): ametsetako hondartzak, gau izartsuak, naturaren aipamen etengabea, sinestesiak.... Bestalde, ipuin gehienetan errepikatzen diren irudiak ere badira: negarra, irribarrea,... askotan iluntasuna eta gaua dira maitale eroen babes, eta era berean, desesperantza. (*Pergola* 92)

4.1.2. HERIOTZAREN ZANTZUAK

Datozen ipuin-bilduma hauetan gai ezberdinak jorratuz bada ere, guztietan heriotzaren gaiak leku berezia bereganatzen du: batean eldarnioaren bidez, bestean desioaren bidez, eta hurrengoan oroime-nak sorturiko ezinegonaren bidez.

Karlos Linazasoro: *Eldarnioak* (1992)

Ondorengo lerroetan Linazasororen lehen ipuin-bilduma izango dugu komentagai. 90eko hamarkadan idazle honen hiru ipuin-bilduma eskuratu ahal izan ditugu. 1992. urtean *Eldarnioak* lehen bilduma argitaratu zuen, eta ondoren, 1994. urtean estuki loturik dauden *Zer gerta ere* eta *Ipuin arriskutsuak* kaleratu zituen (ikus 4.3.). 1999. urtean ere ipuin labur bat argitaratu zuen ipuin askeen atalean aipatuko duguna: *Gret*.

Eldarnioak narrazio laburrez osaturiko liburua dugu. Etengabeko eldarnio horren aipamena izango da ipuinoi batasuna ematen dien elementua: hots, eldarnioa da ipuin hauetako gai nagusia. Haatik, eldarnioaren sentsazio hori lortzeko bide ezberdinak jorratuko ditu ipuin bakoitzean. Izan ere, “errealitate arerioak –gizarteak eta pertsonaiak eginikoa- bakardadea, gaixotasuna desamorioa, heriotza, suizidioa, erahilketa sortzen ditu errealitate hori eldarniagarri bihurtuz.” (*Egan* 49) Bestalde, pertsonaien inguru eta egoerek eramango dituzte horrelako ezinegona jasatera:

Liburu honetan azaltzen diren pertsonaiak kondenaturik daude, kondena hori zenbaitetan jatorritik datorkie umezur-tzak izaten dira (I eta II atalean batez ere) eta heldutasunean badirudi, irtenbide bezala, suntsipena erabili behar dutela; erahilketa, suizidioa. Besteetan, pertsonaiek errealitatea, interpretapen eta bizipen distortsionatu batetik, desarroilatzen dute, eldarnioan murgildurik daude, giro etsai honek pertsonaiei oso baliabide urriak horni diezazkieke, beraz, kanpotik

datorrena traumatikoa izan ohi da, edota pertsonaiak berak badu bere baitan zerbait traumatikoa dena. Beraiek harrapatu-rik daude, maiz planteatzen den egoera edo errealitatea itogarria gertatzen da, eta pertsonaiak emango duen irteera ez da bere kondena baino izango. (*Egan* 49)

Egileak bilduma honetako narrazioak hiru ataletan banatu ditu: lehen eldarnioan bederatzi narrazio eskaintzen zaizkigu; bigarrenean bost; eta azkenekoan hamazazpi:

Hiru ataletan dator banaturik ipuin bilduma, itxura batean, bi erizpide oso ezberdineri jarraituz: kontatutako istorioaren garaia (beti ere galtzear dugun Euskal Herri *sakonaren* sasoia lehen ‘eldarnioan’; istorio garaikideagoak bigarren eta hirugarrenean) eta ipuinen luze-laburra: lehen bi ataletan ipuin luze eta laburrak tartekatzen dira; hirugarrenean, berriz, ipuin labur “ustekabeko bukaeradunak” ditugu gehientsuenak. (*Egunkaria* 1991-XI-30)

Lehen eldarnioko istorio gehienetan gai bera azpimarratzen da: bakardadea. “Bakardade suntsizaile honek –bakardadea ondokoen heriotzarengatik, afektuen hausturengatik, besteengandik ezberdin izateagatik, herria hustutzeagatik– zabaldu, eta kutsatu egiten du dena; pertsonaiak eta herriko bizitza.” (*Egan* 49)

Lehen eldarnio honetako ipuin gehienak Euskal Herrian kokaturik daude, eta honako giro hauek aurkezten zaizkigu: gerra edo gerra osteko giroa, industrializazioa, aurrerapena, ohiturak, Ameriketarako emigrazioa. Haatik, lekuak ez du garrantziarik, batzuetan ez baitu aipatu ere egiten. Bestalde, garai ezberdinak irudikatzen ditu: base-riaren mundua, nobela beltzaren hiria, gaur eguneko hiri zorua. Hortaz, denbora zein espazioan aniztasuna da nagusi.

Bigarren eldarnioan batez ere heriotzaren inguruko ipuinak kontatzen zaizkigu. Izan ere, pertsonaiak egoera edo arazo larri baten ondorioz, indarkeria erabiltzera joko du: hilketa, heriotza, bere buruaz beste egitea,... Atal honetako ipuinetan elementuak behin eta berriro errepikatzen dira, bukaera beti heriotza izanik.

Hirugarren ataleko narrazioak beste ataletakoak baino laburragoak dira. Luis Mari Mujikak honela deskribatu ditu hirugarren atal honetako testuak:

Hauetan aurkezten diren testuei buruz, esan genezake ipuinak ordezkadoren eszena biziak direla. Humore beltza, krusdela funtsezkoa da, maiz Miranderek duen estiloaren antzera.

Heriotza eta gaixotasuna hemen ere gairik nagusienak ditugu; hala ere, ustekabe faktorea, absurdu eta ezohizkotasunaren bidez, helburu erabakikorra izango da narrazioari bukaera emateko. (*Egan* 49)

Narrazio hauetan guztietan narratzerakoan ikuspegi ezberdinak hautatu dituela ikus dezakegu: hirugarren pertsona, lehen pertsona, berorika,... Luis Mari Mujikak ere narratzaile aniztasuna aipatu zuen:

Kontalari ezberdinak istorio berberan ere azaltzen dira, narrazioari argi-itzal planu egoki eta aldakorak emanez. Eta, subjektu orojakilea –maiz hirugarren pertsonaz baliatuz, diskurtso objetiboa egiteko asmoz.

Pertsonaiek beraien artean hitzegiten dutenean, egileak bere buruz hitzegin dezaten uzten ditu, ez du hizkunerik erabiltzen, kontalariaren ausentziari esker, gertakariak eskenatoki egongo bailiran suertatzen dira, arintasuna emanez. (*Egan* 49)

Kontateknikei dagokionez ere, aberatsa da oso liburua: aitorpen itxurako lehen pertsonakoak, narratzaile orojakilea dutenak, bi orrialdetan mundu bat eraiki eta birrintzen dutenak, giro kafkiano xamarrekoak, bai eta ikutu sinbolista dutenak ere. (*Egunkaria* 1991-XI-30)

Askotan errealtate eldarniagarriak zentzugabekeriara hurbilaziko du irakurlea.

Testuartekotasunari dagokionez, honako idazleak aipatu izan dira: “Lehen eldarnioetan García Márquez, Txekhov edo Aldecoa izan omen zituen bisitari; bigarrenetan, Greene, Chandler, Hammet edo Doyle; eta hirugarrenetan, Saki, Quiroga, Kafka edo Cortázar.” (*Argia* 1345)

Isidro Rikarte: *Desioen hiria* (1998)

Rikarteren lehen liburu honetan tramari dagokionez elkarrekin harremanik ez duten bi narrazio luze eskaintzen zaizkigun arren, desioa da ipuinon ardatza. Batetik, *Rakel Beaumont* narrazioan gizon jaio eta emakumea izan nahi duen pertsonaia baten gorabeherak kontatzen dira (luzeraren aldetik eleberrizat har daitekeena); bestetik, *Apopiloetxea* kontakizunean esistitzen ez den emakume batekin maitemundurik dagoen gizon bat aurkezten zaigu. Javier Rojoren ustez, *Rakel Beaumont* kontakizunari erromantizismo handia dario. Hala ere, “istorioak aurrera egin ahala, erromantizismoak misterioa-

ri utziko dio lekua eta thriller baten ezaugarriak hartuko ditu kontakizunak.”(*El Correo* 1998-VIII-12) Bigarren narrazioan, honen moduko garapena ere suma daiteke. Idazleak jakinmina sortaraziz irakurlea irakurtzen jarraitzera bultzatu nahi du. Gaiari begiratu, ordea, Rikartek berak esan bezala “desioaren narrazioak” direla ikus dezakegu (Elizondo, Edurne: *Egunkaria* 1998-VI-24). Hortaz, pertsonaia bakoitza bere desioak eragindako sentimenduek bideraturik mugituko da. Honela, desiratzen dugun hori ez lortzeak dakarren sufrimendua islatu nahi izan duela dirudi. Elkarrizketa batean honela mintzatu zen egilea: “Gizakiok garena eta izatea espero duguna gara: desiratzen duguna oso garrantzitsua da. Bizitza, neurri handi batean, espero izatea da, eta desioa desagertzen denean, moteltzen denean, heriotzetik oso hurbil gaude, nire ustez.” (Elizondo, Edurne: *Egunkaria* 1998-VII-26)

Istorio hauek ikuspuntu ezberdinak azalduz kontatzen dizkigu: “Irakurleari erakutsi nahi nion edozein istoriok ikuspuntu bat baino gehiago duela, literaturan, batez ere.”(Elizondo, Edurne: *Egunkaria* 1998-VII-26) Honela, pertsonaia ugari aurkezten dizkigu liburuan. Baina, ikuspuntu ezberdin hauek guztiak azaltzeko narratzaile orojakileaz baliatzen da, narratzaile estradiegetikoaz: honen fokalazioak pertsonaia batzuetatik urrundu eta beste batzuetara gerturatuko gaitu. Haatik, aurretik aipaturiko bi pertsonaiak dira narrazioen ardatza: lehenengoan, Rakel Beaumont transexuala, eta bigarrenean, amodioa itsuki desiratzen duen Luis Korta. Biak obsesio bakar bati jarraituz bizi dira, desio hori betetzea ezinbesteko gauza bilakatuz: hil ala bizikoa. Biziki desiratzeak errealitatea eta desioa nahastera eramango ditu, Jasone Osororen pertsonaien antzera. Honela, fantasiazko mundu batean bizi dira pertsonaia hauek, desioak ez lortzearen beldurrak sorturikoa.

Ipuin hauetan, bestalde, maila narratibo desberdinak ikus ditza-kegu. *Rakel Beaumont* ipuinean, Albertek Rakelen koaderno bat aurkitzen du eta beraz, hau irakurtzean narratzaile homodiegetikoa (Rakel) narratario intradiegetikoari zuzenean mintzatzen zaio: Alberti. Gainera, ipuin honen amaieran ere narratzaileak irakurleari zuzenean hitz egingo dio. Bigarren ipuinean ere eskutitzen bidez maila intradiegetikoa erabiliko du.

Bestalde, *Rakel Beaumont* ipuinean agertzen diren pertsonaia bikien erabilpena Bernardo Atxagaren *Obabakoak* (1988) ipuin-bilduman kaleraturiko *Margarete Heinrich* ipuina dakarkigu gogora. Ipuin honetaz ari delarik, Mari Jose Olaziregiren hitzak aipatzea egokia iruditu zaigu:

Literaturaren beraren hastapenetatik dobleen lekuko ugari aurki badezakegu ere, gizakion barne mundua bere ardatz egin zuen Erromantizismoa izan zen desdoblamentu edo bikoizketaren gaiari etekin handiena atera ziona, Jean-Paul alemaniarren ostein Hoffmann eta hainbat lanetan eraginez. Margarete Heinrich ipuinean, esaterako, idazlearen testuetan sarritan ematen den biki berdina berdinen kasuaren adibide bat edukiko genuke, eta literatura modernoan dobleek gehienetan duten funtzioari jarraiki, oraingoan ere heriotzaren gertutasuna iragartzen digutela esango dugu.(Olaziregi 1998¹⁴: 108)

Beraz, ipuin honetan ere bikoizketa hori heriotzarekin hertsiki loturik agertuko da.

Desioen hiri honek, bestalde, ez du kokaleku finkorik. Hau da, bi narrazio hauek ez dira leku jakin batean kokatzen. Hiri edo herri konkretu batzuen izenak aipatzen diren arren (Bartzelona,...), desiraren inguruko gorabehera nagusienak non gertatzen diren ez da zehazten. Izan ere, lerindarrak “desioen hiria guztiok bizi garen hiria” dela diosku, (Elizondo, Edurne: *Egunkaria* 1998-VII-24) eta horretarako, kronotopoa zehazteke utzi du. Beraz, espazioa irudikatzeko darabilen zehaztasun eza ere denboran ikus dezakegu. Hots, ez digu gertaera noiz gerta daitekeen susmatzeko daturik eskaintzen. Denbora eta espazio unibertsalak irudikatu nahi izan dituela dirudi, desioaren sentimendu unibertsalarekin bat eginez. Bestalde, gertaerak orokorrean kronologikoki kontatzen bazaizkigu ere, ugariak dira gertatzen ari denaren berri emateko denboran egiten diren erretrospekzio edo atzera egiteak: oroitzapenen bidez, pertsonaien desiren berri ematen baitzaigu.

Desioen hiri hau eraikitzeko Rikartek “estilo erraza eta eraginkorra” hautatu du: “Nere kezketako bat izan da hitzak soberan ez izatea, esaldi, hitz eta narrazio egokiak erabiltzea”.(Elizondo, Edurne: *Egunkaria* 1998-VII-26) Gure ustetan, baita lortu ere.

Felipe Rius: *Bi argazki eta hainbat polaroid* (1999)

Felipe Rius kazetariak bere lehen liburuan argazkiak hartu ditu protagonistatzat. Honek Cortázar-ek ipuingintzaz aritzean eginiko adierazpenak ekarri dizkigu gogora:

¹⁴ Olaziregi, Mari Jose. 1998. *Bernardo Atxagaren irakurlea*, Erein, Donostia.

El fotógrafo o el cuentista se ven precisados a escoger y limitar una imagen o un acaecimiento que sean significativos, que no solamente valgan por sí mismos, sino que sean capaces de actuar en el espectador o en el lector como una especie de apertura, de fermento que proyecta la inteligencia y la sensibilidad hacia algo que va mucho más allá de la anécdota visual o literaria contenidas en la foto o en el cuento. (Cortázar 1993¹⁵: 385)

Ipuin hauetan, hartara, argazkigintzak eta ipuingintzak bat egingo dute, argazkiak bilakatuz aitzakia narratibo nagusiak.

Izan ere, luzera eta argumentu aldetik ezberdinak diren ipuinotan argazkien bidez gai bakarra jorratzeko aukera egin du. Hau da, ipuinotan argazkiak oroimenaren sinboloak dira, eta beraz, oroimenak gizakiongan duen eragina islatzen du.

Ipuin-bilduma hau bi sailetan banaturik dago. Batetik, *reflex* deituriko saila dugu zortzi narrazioz osatua; bestetik, *polaroid* deiturikoa hemezortzi narrazioz osatua. Lehenengo saileko ipuinak luzeagoak dira; bigarrenekoak, aldiz, bat-bateko irudiak dira. Beraz, sail bakoitzean argazki kamara mota bakoitzari dagozkion irudiak dira eskaintzen zaizkigunak. Aipatu bezala, argazkia da guztiotan ageri den elementua, ipuinon *leit-motiva*. Argazkien bidez errealitatearen zati baten berri izaten dugu. Honela, soilik errealitatearen zati jakin bati begiratuz bizitzeak dakartzan gorabeherak aurkeztuko dizkigu idazle honek. Gainera, askotan argazkia bera da pertsonaiak harremanetan jartzeko modu bakarra. Honela, argazkien bidez pertsonaiek bere iragana gogora ekarriko dute. Batzuek, gogora ekarritako iragana mantentzeko gogo bizia erakutsiko dute; besteak, ostera, iragana ahazteko irrikaz biziko dira. Iragana, orainaldi eta etorkizunaren arteko borroka ageri da, beraz. Hortaz, atal bakoitzeko ipuinen egiturek argazki makina bakoitzaren funtzionamenduarekin bat egingo dute. Lehenengo ataleko ipuinetan, argazkiek leku berezia dute: hauek oroitzapenak gogora ekartzeaz gain, pertsonaia ezberdinak uztartzeko lokarria baitira. Bestalde, ipuin hauetan bidaia ezberdinak kontatzen zaizkigu, hauetan guztietan pertsonaiek beldurrak, izuak, istripuak, iragana, ilusio txikiak, zalantzak... bidai-lagun izanik. Haatik, han hemenka iradokitzen den heriotzaren zantzuak kateatu-

¹⁵ Cortázar, Julio. 1993. "Algunos aspectos del cuento" in Pacheco, C. & Barrera Linares. *Del cuento y sus alrededores*.

ko ditu ipuinok. Bestalde, inoiz bereganatzen ez diren ilusio xumeen bilaketaren aipamena ere etengabea da; kasu gehientsuetan, bilaketa antzua. Barne bilaketa horretan, pixkanaka pertsonaien irudi ezku-tuak azaleratuz joango dira. Honela, gauzen bi aldeen berri ematea lortzen du, argazkiek osaturiko hezurdurari haragia gehituz: iragana-ri oraina erantsiz. Beraz, oraina eta iragana bata bestearekin harilka-turik ikus ditzakegu. Izan ere, askotan iraganetik ihesi eta etorkizun berri baten bila dabilzan pertsonaiak aurkezten zaizkigu: baina, ihes hori beti ere antzua izango da, ipuinotako protagonistek ezin izango baitiote heriotzari aurre egin, patua garaile irtengo da-eta. Halaber, hilak eta biziak elkarren ondoan arituko dira ipuinotan. Askotan, hilak argazkien bidez irudikatuko dira. Honela, argazkiek ere betie-rekotasuna eta hilezkortasunaren ispiluak liriateke. Teknikari baga-gozkio, plano ezberdinekin jolasteko joera nabaria da, aipaturiko gauzen bi aldeak azpimarratu asmoz: batetik, dirudiena edo uste duguna; eta bestetik, dena edo uste dutena.

Polaroid deituriko atalean, bestalde, bat-batekotasuna gailentzen da, irudi azkarren modura eraturik baitaude ipuinak. Ipuin oso labur-rak dira, eta hauetan argazkiak berak ipuinotan ageri ez diren arren, ipuin hauen bidez egoera jakin bateko argazki txiki bat eskaintzen zaigu, sentsazio ezberdinak iradokitzen zaizkigula. Hortaz, oso ipuin eskematikoak dira, topikoz beterik daudenak eta gehienetan galtzai-leen mistifikazioa ere ikus daiteke.

Badira, beraz, behin eta berriz errepikatzen diren zenbait kons-tante: heriotza, gizakien arteko harremanen gaizki ulertuak, ihesa, bortxakeria, ezintasuna, ... Gauza hauek guztiak jakinmina sortaraz-ten duten elementuz hornituko ditu. Baina, beti egoera batetik beste-rako loturak argazkiak berak izango dira. Gehienetan, gainera, ezus-teko amaiera batek biribiltzen du ipuina. Bestalde, zorigaiztoko patuak biltzen ditu pertsonaiak. Oro har, ezinbestean noraezean doa-zen pertsonaien amaiera tristeak kontatzen zaizkigu. Izan ere, giza esistentziaren zentzugabekeria irudikatzen duten pertsonaia galduak dira. Kasu gehienetan, oroitzapenak zaurien pizgarri besterik ez bai-tira izango. Honela deskribatzen du pertsonaia hauen egoera Javier Rojok:

Non personaiek sentitzen duten ihes egin beharra, funtsez-ko osagaia den. Izan ere, pertsonaia nagusiak, hoegeita hamar urtetatik berrogeitara bitarte horretan daudelarik, beren ohiko mundutik itzurtzeko grinak harrapatuta daude. Helduarora iritsi dira ia-ia konturatu gabe, eta egoera horretan badirudi

errealitatetik ateratzeko nolabaiteko bidea asmatu nahi dutela: ihes egin, bidaiaria baten bidez batzutan; bestetan, edarian edo drogan (suizidioaren aldaki bigunak) aurkituko dute pertsonaiok inora ez daraman bidea. (*El Correo* 1999-XII-29)

4.2. Zirkunstantzialak

Orain arte, elementu bateratzaile gisa gaia duten bildumak aipatu ditugu. Ondoren, batasuna narrazioek denbora nahiz espazio jakin batean girotuz bilatu dutenak bilduko ditugu.

Edorta Jimenezen ipuingintza

Jimenezek hiru ipuin-bilduma argitaratu zituen 90eko hamarkadan: *Atoiuntzia* (1990), *Manhattan* (1994) eta *Laudanoa eta sutautsa* (1996). Hauetan guztietan egoerak, hots, denbora zein espazioak garrantzia berezia du. *Atoiuntzian* itsasoa eta kostaldean kokatuko ditu ipuinok, portuko giroa gailenduz; *Manhattan* liburuan, aldiz, itsasotik hirira igaroko da, bertako gau giroa islatuz; eta azkenik, *Laudanoa eta sutautsan*, kostaldera itzularaziko gaitu, Erdi Aroari erreferentzia ugari eginez. Azken ipuin-bilduma honetan ere lotura tematikoa nabaria da, aurreraxeago adieraziko dugun bezala. Ikusiko dugunez, hiru saio ezberdin dira, nahiz eta badiren errepikatzen diren elementuak ere.

Esan bezala, itsasoarekin lotura duten luzera ezberdineko hamar ipuin bildu zituen Edorta Jimenezek bere lehen narrazio liburuan, *Atoiuntzian*. Beraz, portuak, arrantzaleak, itsasoa,... etengabe errepikatzen diren elementuak izango dira. Haatik, era ezberdinetako arrantzaleak aurkeztuko zaizkigu, eta gainera, batzuetan arrantzaleen berri eman ordez, haien zain daudenen gorabeherak testuratzen ditu. Hortaz, itsasoaren munduarekin nolabaiteko lotura duten pertsonaiak aurkezten zaizkigu, lotura hori zuzena nahiz zeharkakoa izanik (senideren bat itsasoan izanagatik edo). Gai hauetaz gain, droga eta sexuari ere askotan erreferentzia egiten zaie. Are gehiago, heriotzaren zantzuak topa ditzakegu ipuin askotan. Izan ere, itsasoa ilusio eta desiraz betea egoteaz gain, batzuetan heriotzarekin ere pareka baitezakegu.

Bestalde, Euskal Herrian kokatu ditu ipuinok, zehazki, Bizkaian: besteak beste, Gaztelugatxe, Atxuri, Lekeitio, Deustu, Erandio, Portugalete, Santurtzi, Indautxu, Gernika,... aipatzen ditu (Eusko trenbideen aipamena ere egiten da). Kronotopoari dagokionez, espazioa

zehazturik agertzen den arren, denbora ez da hain zehatz adierazten, nahiz eta garaiaren inguruko erreferentzia ugari egin: ELA, PNV, ETA, Franko, ertzainak,...

Antza denez, zenbait ipuinetan denboraren zatiketa bat egiten du, iraganak zoriona adieraziz, eta orainak, berriz, aurrerapena eta kaltea. Honela, denboraren iragaitearen garrantzia azpimarratzen da narrazio askotan horretarako iraganekoak kontatuz, batzuetan horiek orainaldiko egoerara ekarriz.

Ikuspuntuari dagokionez aniztasuna badakusagu ere, ipuin guztietan antzeko estiloa darabil: hizkera bizia. Horretarako, esaldi laburrak, zeharreko estilo librea, hizkera arrunta elkarrizketetan, eta bizkaieraren ukituak nabarmentzen dira. Gaztelera ere han hemenka tartekatzen du.

Hartara, hurrengo narrazioetan errepikatuko diren elementuak baturik agertzen dira bere lehen narrazio hauetan: itsasoa, droga, sexua, trenbideak, heriotza, desira,...

Ikusi dugun modura, *Manhattan* bilduman itsasotik urrundu eta hirira ekarri gaitu. Hiri bateko lekukotasuna emateko gaueko giroa aukeratu du bederatzi ipuin hauetan, beste narrazioetan ere nagusi zena. Gainera, aurreko narrazioetan ere Las Cortesera hurbiltzeko saioa egin zuen. “Edorta Jimenezek deskribatzen duen munduan, sexuaren ezagutza, sexu mertzenaria, emakumeek diruaren truk eman ohi dutena da, batez ere, aukeratutako bidea. Ondo girotuta daude ipuinak, sexoarekin batera droga eta musika, rock and rolla.” (*El Diario Vasco* 1995-IV-1) Ipuin hauetan guztietan gaua, droga, sexua, rock and rolla,... agertzen diren arren, funtsean gizakien betiereko irrika, desira eta grinak azaltzeko asmoa dutela esan daiteke. Honela, heriotza eta frustrazioa ipuinotako elementu etengabeak izango dira. Hortaz, aurreko ipuinetako hainbat gai berragertzen dira. Izan ere, ipuin hauetan ere heriotzaren zantzuak non-nahi ikus ditzakegu: HIESA, birusa,... Era honetara, pertsonaia hauen patua aldatzeko ezintasuna azpimarragarria da.

Kokalekuari bagagozkio, honakoa dakuskegu: “Hiria, dirudienez, Bilbo da, baina hori gutxienezkoa zaigu; hiri guztietan antzekoa baita giroa, eta antzekoa aurki daitekeena.” (*El Diario Vasco* 1995-IV-1) Hala ere, batzuetan hiri urrunetan ere kokatuko ditu kontakizunak: Londresen, esaterako.

Hiri honen bidez mundu ezezagun, ilun eta ezkutu bat islatzea du helburu. Juan Luis Zabalaren ustez, “Elementurik ilun, ezkutu eta zakarrenak sublimatu eta eder bihurtzen dituen literatura dugu, oro har, liburu honetakoa.” (*Egunkaria* 1995-I-15)

Giro hau islatzeko hizkera bizia eta aberatsa erabili ditu. “Hizkeraren aldetik, euskarak orain artean behintzat oso berezkoak izan ez dituen giro ilun eta gordinenetara egokitzeko saio orekatua egin du Edorta Jimenezek, nola araztasun garbiegitik hala zabarkeria lotsagabetik ihesi.” (*Egunkaria* 1995-I-15)

Bestalde, Zabalak Jimenezen asmo berri honen inguruan honakoa dio: “Raymond Carverren soiltasun argumentalaren bidetik jorik batzuetan, formula esperimentalak erabiliz beste batzuetan.” (*Egunkaria* 1995-I-15)

Egunkariako iruzkingileak, bestalde, honako testuartekotasunak aipatu zituen:

Xabier Montoiaren ‘Emakume biboteduna’ ekarri dit gogorra ‘Manhattan’ honek, eta, estutzen banauzue, Pablo Sastrenen ‘Kristalezko bularrak’ ere zaku berean sartu eta hara trilogia bikaina. Hemengo eta, batez ere, gaur-gaurko gizakiaren alderdirik ilun eta zakarrenak agertzen dira galtzailez betetako hiru liburuotan. Ustez itsusia denaren sublimazio ederra. (*Egunkaria* 1995-I-15)

Azkenik, *Laudanoa eta sutautsa* bilduma izango dugu hizpide. Oraingoan, mundakarrak izenburuaren bidez, atseginaren bilaketa eta heriotzaren ezinbestea adierazi nahi ditu. Beraz, aipatu bezala itsas giroaz gain, gaiek ere kateatzen dituzte ipuinok. Bere aurreko narrazioetan jada zeharka aipatzen ziren hauek narrazio hauen ardatzak izango dira. Beraz, bi hauek izango dira luzera ezberdineko sei ipuin hauen hari nagusiak: herioaren eta desiraren zantzuak non-nahi ikusi ahal izango ditugu, hots, *eros* eta *thanatosen* zantzuak. Bestalde, narrazio hauetan guztietan “emakumearen bilaketa dagoela onartu zuen” egileak, desiraren irudia litzatekeena. (*Egunkaria* 1996-III-14) Bilaketa hau ere aurreko narrazioetan ageri da. Besteak beste, ipuin hauetan bidaiak, pertsonen arteko harremanak, zoriontasunaren bilaketa... aurkeztu dizkigu. Nahiz eta sei narrazio hauek gai beraren inguruan harilkatu dituen, ezaugarri ezberdinekoak dira. Hala ere, Javier Rojok aipatzen duen bezala badute beste ezaugarri komun bat ere:

Aldez edo moldez, seietako gaiak historikoak dira. Lehenengo hiruretan Erdi Aro bitxi batera eramaten gaitu idazleak. Erdi Aro bitxi samarra, edo erdi asmatutakoa, zeren, narrazio hauetan, historiari dagozkion elementuekin batera, leiendetik aterata daudela ematen duten elementu batzuen integra-

zioa ere gertatzen baita. Laugarren narrazioa, (...) desberdina da. Garaia ez da Erdi Aroa, askoz hurbilago baizik, mende honen hasierako gertaera batzuen inguruan aritzen baita, txosten bat izango balitz bezala. (*El Correo* 1996-VIII-8)

Hartara, Erdi Aro mitifikatutik azken gerraondoko anarkisten girora gakartza. Honela, zenbaitetan mitoen inguruko aipamenak egiten ditu: esaterako, lamiak aurkeztean. Garai historiko ezberdinen etengabeko aipamenekin batera, bada Jimenezen lan gehienetan bezala, behin eta berriro errepikatzen den beste elementu bat: itsasoa, noski.

Erdi Aroa, itsasoari buruzko erreferentziak, mende honen hasierako gertaerak biltzen dira, eta denetan azaltzen da itsasoa, nola edo hala, guztietan. (...) Are, oso gune konkretua errepikatzen da behin eta berriro: Bermeo eta Mundaka herrien parean dagoen Izaro irla. (*Egunkaria* 1996-III-14)

Ondorioz, uharte honek ere *leit-motiv* modura funtzionatuko du. Izan ere, itsasoa zenbaitetan heriotzarekin hertsiki loturik dagoenez (ibaien heriotza baitakar), uharteak heriotzaren ezinbestea irudika lezake. Hots, itsasoarekin harremanetan egon beharra. Gainera, *Itsasoa sutan* ipuinean, itsasoa infernua eta heriotzarekin parekatzen da. Bestalde, bere narrazioetako pertsonaiak patuaren indarrak gidatzen ditu.

Ipuin hauetako gertakizunak josteko hiztegi aberats eta idazkera trinkoa erabili ditu. Gure aburuz, oso emaitza ederra lortu badu ere, Javier Rojok bestelako iritzia du:

Idazkeraren aldetik, narrazio korapilatsua egin du, esaldi luze eta nahasiekkin. Eta hortxe du bere akats handiena: esaldi luzeetan porrot egiten du, narrazioa ia-ia irakurtezina da-eta. (*El Correo* 1996-VIII-8)

Felipe Juaristi, ordea, honela mintzatu zen:

Liburu polita da, oro har, estilo indar handiko eta sendoa erakusten duena. Biziak eta hila soka-dantzan irudikatzen ditu, bizitza horixe besterik ez dela esanez bezala. (*Pergola* 53)

Patxi Iturregi: *Haize Kontra* (1996)

Idazle laudiarraren lehen ipuin-bilduman bere itsasoarekiko atxikimendua agerian geratzen da. Izan ere, *Haize kontra* ipuin-

bilduma osatzen duten bederatzi ipuinak autonomoak diren arren, bada hauek uztartzen dituen pertsonaia bat: itsasoa. Zenbait ipuinetan kontatzen den istorioa itsasoan barrena gertatuko da, beste hainbatetan istorioa lurrean bertan jazotzen bada ere, itsasoaren presentzia nabarmentzen da (Jimenezen ipuingintzan bezalaxe). Lutxo Egiak dioen bezala, “narrazioen lokarria itsasoa bada ere, ezin esan itsasaldi berekoak direnik” (*Deia* 1998-V-1). Hortaz, itsasoarekin harreman ezberdinak dituzten pertsonaiak aurkezten zaizkigu:

Merkataritzako nabegazioan mundu zabaleko portuetan dabiltzan marinelak edo itsabazter urrunetan galdutako petroliountzien inguruko istorioak kontatuko zaizkigu; besteetan, gizon-emakumeek gorpuzturiko istorio samin eta indartsuak: andrazko bat gizonezkoen untzi batera igo zenekoa, aspaldi ikusi gabeko marinelaren aurrean familiak sentitzen dituen gazi-gozoak, aspaldiko piraten gorabeherak. (Rojo, Jabier: *El Correo* 1997-IV-17)

Hala ere, badirudi ipuin hauetan guztietan itsasoak “bere legea ezartzen” (Rojo, Jabier: *El Correo* 1997-IV-17) diharduela, eta gizakiak bizitzan haize kontra dabilelako ideia azpimarratzen dela: bakardade eta heriotza baitira gai erabilienak.

Testu barruko ezaugarriei so eginez gero, laudiarrek aniztasuna bilatu duela nabarmena da: honela, ipuin hauetan guztietan ikuspuntua, espazioa, denbora eta estiloa ezberdinak dira. Iturregiren hitzetan, itsaso-giroko narrazioak nekagarriak ez gertatzeko bilatu du aniztasuna. (Zabala, Juan Luis: *Egunkaria* 1996-XI-21)

Itsasoaren tratamendua dela-eta Jimenezen ipuin-bildumak ekarri dizkigu gogora, baina, bereziki *Atoñuntzia* ipuin-bilduma. Izan ere, itsasoarekin harreman mota ezberdinak dituzten pertsonaien egoerak deskribatzen dira-eta.

Hiztegia lantzeko garaian izan ditu zailtasunak batez ere. Izan ere, itsaso-giroko hiztegia ez da asko landu eta horregatik, batik bat, itsaso zabaleko kontuei buruzko hiztegia aukeratzean izan ditu zailtasunak. Gainera, metaforak sortzeko garaian itsasoko elementuak erabili ohi ditu.

Ereduei dagokienez, batetik itsasoaren inguruan idatzi duten euskal idazleak izan ditu gogoan: hainbat klasiko eta Joseba Sarrionandia, besteak beste; bestetik, Joseph Conrad, Henry Melville eta Salgari bezalako lan ugari irakurri ditu. Bestalde, itsasoarekin harreman esturik ez duten honako idazle hauek ere atsegin dituela aitortu zuen:

Juan Carlos Onetti, Gabriel García Marquez. (Zabala, Juan Luis: *Egunkaria* 1996-XI-21)

Bestalde, *Jakin* aldizkarian honakoa adierazi zen: “Joseph Conrad euskaldun bat deskubritzea, bere lehen liburuan halako indarrez gainezka egiten duena.” (*Jakin* 101)

Jon Arretxeren ipuingintza

Bidaiak alde batera utzi eta Montoiaren antzera Gasteiz aldean kokatu ditu Arretxek honako bi ipuin-bilduma hauek: *Ostegunak* (1997) eta *Ostiralak* (1999). Trilogia baten lehen bi aleak ditugu hauek.

Aizu! aldizkarian aipatu zen bezala, “Gasteizko kaleetan girotuta egon arren, Euskal Herriko edozein hiritan gerta daitezkeen pasadizoak dira.” (*Aizu!* 243). Izan ere, ez baitago Gasteizekin lotura jakinik izan dezakeen egoerarik (tunoenak alde batera utziz). Egoera horiek edozein hiri unibertsitariotan gerta zitezkeen.

Nahiz eta liburuen izenburuan asteko egun jakin bat agertu, ez dira ipuinak asteko egun horretan bakarrik kokatzen. *Ostegunak* deituriko bilduman, unibertsitateko ikasleen xelebrieriak kontatzen dizkiguten bost ipuin eskaintzen dizkigu, eta *Ostiralak* liburuan, ordea, karrera amaitu ondoren lan munduan sartzeaz dauden ikasle ohiak aurkezten dizkigu sei ipuinetan:hots, ikasle eta langile artean dagoen bidegurutzearen berri ematen da:

Izan ere, aldatze hori ez baita bat-batean egiten; transizio garaia dago, non oraindik ikasle garaiko ohiturak mantendu nahi diren. Parrandak; pisu antolamendu kaotikoa, ajeak, sexu teorizazioak, baina era berean ikasle garaia amaitu den kontzientziarekin. (*Gara* 2000-II-5)

Honekin guztiarekin ikusi ahal dugun bezala, egunek jarrera bat islatzen dute, ez egunaren erreferentzia bera.

Bestalde, umorea da ipuin hauen ezaugarriarik nabarmenena:

Arretxek bere aurreko lanetan ezkutuan, zeharka bakarrik, agertu zigun bere umorea nabarmenki azaltzen da hemen. Eta umore honek, teoriarik ostegunetan dagoen giroarekin nahastuta, errejistro zuzena ematen du: umore axolagabe, zoro, beltz eta krudela. (*Egunkaria* 1997-XII-27)

Aitzitik, liburu batetik bestera ezberdintasunak badira umorea garatzeko garaian. Bigarren bilduman “aurreko liburukoa baino lan-

duagoa, helduagoa, garai horri egokiago heltzen zaiona.” (*Egunkaria* 1999-XI-30) : “irria pizten duen ironia fina batzuetan, algara sortarazten duten xeblekeriak besteetan; ez dira falta sexu-kontu pika-roak, ezta irakurlearen konplizitatea lortzeko keinuak ere.” (*Deia* 2000-I-14) Umoreaz gain, beraz, sexu grina ere bigarren liburu honetan presenteago dago. (*Egunkaria* 1999-XI-30)

Antza denez, pertsonaiak gertaera xeble batzuk aurkezteko aitziakia besterik ez dira. Are gehiago, ez du pertsonaien jarrerak ulertarazteko ahaleginik egiten, pertsonaia lauak sortzen baititu. “Oro har, pertsonaiak ere definituegiak daude eta, askotan, gauza gehiegi kontatzeko nahiagatik edo, soberan dauden pertsonaiak ere badaude.” (*Egunkaria* 1995-XII-6)

Bi bilduma hauen arteko harreman eta loturari buruzko adierazpen hauek jasotzea egokia iruditu zaigu:

Baina *Ostegunak* ipuin bildumarekin alderatuz gero, aipatu egun aldaketa da Arretxeren azken liburu honetan azaltzen den berritasun bakarrenetakoa, beste guztia oso antzekoa baita, bai erabiltzen den umorearengatik (axolagabea, zoro, beltz eta krudela) bai hizkuntza erraza eta zuzenagatik, liburuia ongi pasatzeko burututa baitago. (...)

Eta ez diot Arretxeri eskatzen *Ostiralak* liburuan azterketa soziologiko bat egitea; baina bere pertsonaiak eta istorioen nondik norakoak desberdinak izango zirelakoan nengoen.

Eta hau guztia ez dut amorrut idazten, penaz baizik, tris-turarekin. Arretxeren asmoa bikaina baitzen eta guztia horretan geratu da, hau da, asmoetan. (*Egunkaria* 2000-I-29)

Gainera, beharaxeago, umorea “bortitza eta gordinegia iruditzen” zaiola ere aipatzen du.

Idaztankerari dagokionez, hizkera zuzena eta erraza aukeratu du pasarte zoro hauek sortzeko. *Garako* iruzkingilearen aburuz, “askotan zuzenegia, eta horrek dakarren ankertasuna” (*Gara* 2000-II-5) azpimarratzekoa da.

Arretxeren liburu hauek merkatuan arrakasta handia izan dute, eta arrakasta hori lortzearen arrazoiak honakoak izan daitezke, besteak beste:

Liburu honetan antzematen da euskal literatura gazte hizkeran zein bizitzari hurbiltzen ari dela gero eta gehiago, eta horrek gure literaturari onurak baino ez dizkio ekarriko, izan ere, gazteengan literatura erakargarria izan dadin beharreko

baldintzetako bat kontatzen diren istorioak gertukoak izatea da, fantastikotasuna martxan jarritz. (*Gara* 2000-II-5)

Dena den, kritika gogorrena Iban Zalduak *Hegats* aldizkarian eginikoa izan da. Lehenik, *Ostegunak* bildumako ipuin bakoitzaren kritika egiten du banan banan. Bertan, umorea eta ironia azpimarratzen ditu ezaugarri nagusitzat. Baina, amaiera aldera honakoa adierazten du:

Liburuak nahiko arrakasta izan omen du: nik, bederen, fakultateko ikasle batek gomendatua (eta gogoz) erosi eta irakurri nuen: bere alde, motza eta arina dela esan beharko nuke. Edozelan ere, halakoak ez dira soilik gure artean gertatzen. Edozein herrialdetako liburu salduenen zerrenda begiratzea aski da konturatzeko horien artean literatura *ona* salbuespena dela. Gil Berak esan duen bezala (*Ostiela* 9, 23. orr.) “edozein literaturan gehiena zaborra da”, baina gure literatur-mundu nimiñoan ez dugu literatura ona, ez hain ona eta kaskarra desberdintzeko ohiturarik, ez horretarako tresna ikonografikorik (bilduma ezberdinak, adibidez). Lagun batek esan zidan, behin, euskal literaturak abenturazko eleberrien eta best-sellerren beharrea zegoela, hots, “bigarren mailako” literatura baten beharrea. Euskal Herrian, ordea, argitaratzen den oro kontsideratu nahi dugu literatura garaia. Eta, halaxe, Jon Arretxeren liburu hau ager daiteke, liburudendako apal txukun batean, bere argitaletxeko bilduma berberak plazaratutako Joseba Sarrionandiaren, Mercé Redoredaren edo John Steinbeck-en lanen artean. Enpin. (*Hegats* 19/20)

Jon Gaztelumendi: *Haizea mindu gabe* (1999)

Jon Gaztelumendik argitaratzen duen lehen ipuin-bilduma dugu honako hau. Hamaika ipuin hauek harikaltzen dituen islaturiko geografia bera da: izan ere, ipuinok espetxe giroan kokaturik daude (are gehiago, espetxean bertan idatziak). “Hala ere, Gaztelumendiren kasuan, adibidez, ezinezkoa da kartzelaren zertzelada hori ahaztea, egoera hori baita kontakizun guztiz gehienen kokaleku eta motore, baita seguru asko idaztearen akuilu ere.” (*Jakin* 112) Beraz, kartzelak sorturiko sentimendu, bizipen, egoera, hausnarketak,... deskribatzen saiatu da. Errealitate honi fantasia erantsiz ipuin-bilduma osatu du. Hamaika ipuin hauetaz gain, bi olerki topa ditzakegu; bat hasieran, bestea bukaeran.

Egileak berak dioen bezala “espetxea abiapuntua da”. (*Gara* 1999-VI-19) Honela, espetxeko bizimodua nola eramaten den azaltzen saiatzen da: bertako minak, ezinak, beldurrak, itxaropenak, ... Espetxeari nola aurre egin planteatzen du, hortaz: nola eutsi egoera latzei, espetxe barneko bizitzaren antolaketaaren beharra, lagunen arteko harremanak,... Hona hemen egilearen hitzak:

Guk geuk, preso eta pertsona gisa, bizipenak eta giroak birtortuz, gure inguru hurbilaren isla dira kontakizun hauek: txapeo egoerak, lagun elkartzekak espetxetan, barruko bizigiroa, barru-kanpo arteko loturak, etxeko artekoekin, eta abar. (*Egunkaria* 1999-V-27)

Unai Abarzuzak honela laburtzen du bilduma honen edukia:

Askatasun apurak ziegara ekartzen dituen txoria, kartzelari hienak, hiena kartzelariak, eta Koldo Izagirre ere irristatzen da garratzasun eta bizi nahiaren uztarketa gordina laxatzen duen narrazio honetatik. Ipuinak, narrazioak, preso dagoenaren bizitza puskak, heriotza, sakabanaketa, umorea, askatasuna... den dena liburu bakar batean, eta “haizea mindu gabe”. (*Gara* 1999-VI-19)

Haatik, ipuinak independenteak dira, nahiz eta ipuin batzuetan beste ipuinen bateko pertsonaia berak aurkezten dizkigun.

Gainera, mundu gogor hori tonu samur batez estaltzea lortu du: “ez pentsa, ordea, ipuin garratzak, minberak, ilunak, direnik. Ez bilatu bertan salaketa zuzenik, aldarrikapen handirik, diskurtso zorrotzik. Aitzitik, samurtasuna, arintasuna, maitasuna darie Gaztelumendik idatzitako istorioei.” (*Gara (Mugalari)* 1999-VI-12)

Ipuin gehienetan hirugarren pertsonako narratzaileak kontaktzen dizkigu istorioak. Hala ere, ipuin-bilduma honen hasierako ipuinean lehenengo pertsonako narratzailea ageri zaigu, idazlearekin berarekin identifika daitekeena, eta ipuin-bildumaren berri emanez.

Ipuin batzuetan plano ezberdinekin jolasten du. Hala nola, *Egun bat espetxean* ipuinean. Honela, narratzaile estradiegetikoak intradiegetikoari bidea irekitzen dio.

Denborari dagokionez, atzera egiteak ugariak dira. Izan ere, espetxean iraganeko gertaerak oroitzeko joera etengabea baita. Beraz, espetxe aurreko gertaeren oroitzapenak behin eta berriz agertuko dira ipuinotan.

Arestian azpimarratu dugun bezala, espetxean kokatzen dira ipuin gehienak. Baina, hala ere, beste zenbait leku ere aipatu egiten

dira ipuinetan zehar espetxearekin kontrajarpena egin nahian edo: Oiartzun eta Orereta, esaterako. Baina beti ere pertsonaia horiek geografia horrekin lotuak daude nolabait, *Haize kontran* gertatzen zen moduan. Honela, kartzelako eta kanpoko geografiak lotzen ditu. Are gehiago, Mendiguren Elizegik honako lorpena aipatu zuen: “Geografia egin zait deigarria *Haizea mindu gabe* ipuin bilduman. Han/hemen bezalako kontzeptuek egundoko indarra hartzen dute, nahitaez. Espetxeko lau pareta arteko espazio horretatik ihesi, ugari dira kanpoaldean gertatzen...” (*Jakin* 112) diren gorabeherak.

Idazlearen estiloaz honela mintzatu zen Gorka Arrese: “Dotorezia harrigarriko estiloa dela uste dut. Perzepzio oso biziko narratzailea da. Euren eguneroko mingarri zein zital hori askatasunik ez duenak bakarrik dakien moduan eskribitzen du.” (*Egunkaria* 1999-V-27)

Bestalde, garaturiko estiloaren berri honako adierazpenak egin zituen oreretarrak:

Euskaldunzaharrek kontatzeko duten ahalmena kontuan hartu, balizko erritmo bat aztertu, hori izan da erreferentzia nagusia. Euskaldunok kontalari onak garela uste dut, ahozko literaturaren eragina gertu behar du, eta gurasoek, zentzu horretan, euskara asko dakite... Hor dago erreferentzia nagusia: nola kontatu (hitz eginez), hala idatzi. (*Egunkaria* 1999-VI-27)

Ildo beretik aritu zen Josemari Carrere Zabala: “Eta antzematen da, bestalde, bere hizkuntza iturria ez datorrela bakarrik liburuetatik, kontatzeko eran ahotik belarrirako literaturatik ere edan duela frogatzen baitu. Irakurtzen baino istorioa entzuten ari zarela ematen du askotan...” (*Gara* 1999-VI-12)

4.3. *Short story cycle* motako ipuin-bildumak

Ipuin-bilduma honen berri Mari Jose Olaziregi Arantxa Urretabizkaiaren narraziogintzaren inguruan idatziriko lanean izan genuen. Arantxa Urretabizkaiaren *Aspaldian espero zaitudalako ez nago inoiz bakarrik* liburuari buruzko iruzkina egitean honela mintzatzen da:

Horretaz gainera, eta bigarren ezaugarri moduan, elkarrekin nolabaiteko harreman tematikoa duten ipuinak zekarzki-gun. Modu honetan antolatutako testuak, generoen mugak gainditu nahi ditu eta nobelatik gertu dagoen kontamoldea aurkezten digu. Ingelesez, 70eko hamarkadaz geroztik, “*short story cycle*” deritzo ipuin bilduma mota honi. Bertan, elkarren

artean erlazionaturik dauden narrazio multzoa barneratzen da, eta ipuinen arteko loturak, mota askotakoak izan daitezke F. Ingram-en aburuz: sinbolo errepikapenak, gaiak, narratzaille motak, batez ere, leku eta pertsonaien errepikapenek eragindakoak. Modu honetan antolatutako liburu ezagunena geurean Bernardo Atxagaren *Obabakoak* (1988) saritua genuke. (Olaziregi 2000: 48)¹⁶

Datorren atalean mota honetako zenbait ipuin-bildumari egingo diogu erreferentzia: batik bat ipuinak marko narratibo batean txertatu dituzten bildumei.

Karlos Linazasoro: *Zer gerta ere* (1994) eta *Ipuin arriskutsuak* (1994)

Zer gerta ere liburua, oster, luzera ezberdineko hamabost ipuinek osatzen dute. Ipuin hauek batez ere gai jakin batzuen inguruan hezurmamiturik daude: bere lehen ipuin-bildumaren ildotik jarraituz, etsipena, heriotza, ezinegona, inguruarekiko gatazka,... Fikziozko kontakizunak dira, aurreko bildumaren antzera, gehienetan amaierak ustekabeak izanik. Ipuin hauek gai aldetik harilkaturik egoteaz gain, bada denak lotzen dituen beste ezaugarri bat ere. Izan ere, bildumaren lehen eta azken ipuinek Berardo liburuzainaren istorioa kontaktzen digute: liburuzaina goiz batez T herrian bakarrik esnatzen da, eta herriko gainontzeko biztanleak desagertu direla ikustean, zoratzear dago. Azkenean, bere nobela idazteko liburutegitik zortzi urtetan ez ateratzea erabakiko du. Honela, hasiera eta amaierako bi ipuinek Berardoren istorioa kontaktzen digute, eta beste guztiek Berardoren nobela amaigabearen zati lirateke. Beraz, besteak beste, ipuin arteko lotura istorio honek sorturiko marko narratiboan, ildo bereko gaia erabiltzean eta absurdurako duen joeran dakuskegu. Izan ere, “azalpen bestelakorik gabe gertaera ezusteko bat aurkezten dute, sarritan absurdoa eta patuaren erruduna, pertsonaiak muga-egoera izugarri batean murgiltzeraino.” (*Egunkaria* 1995-XII-16)

¹⁶ Olaziregi, Mari Jose. 1999. *Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako euskal literatura*, Oihenart 17, 1-44, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Bestalde, Olaziregiren lanetik Ingram-en lanaren aipua jasotzea egokia iruditu zaigu gai honetan sakondu nahiko lukeenarentzat:

Ingram, F. 1971. *Representative Short Story Cycles of the Twentieth Century: Studies in a Literary Genre*. The Hague, Mouton.

Zernahi gisaz ere, bilduma honetako ezaugarriak aipagarriena berriro ere aniztasuna da: “Hibridotasuna ezin dezakegu ahantz, jenero, tonu eta tekniken amalgama zerikusizkoa baitago ipuinotan zehar: atzekoz aurrerako denbora, eszenen tartekatze ikasia, literaturaren jarduerari buruzko hausnarketak eta kritikak, zati filosofikoak...” (*Egunkaria* 1995-XII-16)

Haatik, estilo desberdin horiek beti ere giro iluna eratzeko erabiliko ditu. Felipe Juaristiren aburuz, “Giro itxia da nagusi. Protagonistak, leihorik ez aterik gabeko etxeetan bizi dira, beren baitan bildurik, berak ez direnaz mozturoriturik, ispilua dutela askotan lagun bakarra. Baina mozturroak, azken finean, haragia edo larrua baino benetakoagoak izan ohi dira.” (*Pergola* 37)

Bestalde, askotan giro ilun honetan ezusteko amaiera eta gertaerak tartekatuz umoreari lekua egingo dio. Honi egin zion erreferentzia Juaristik ere: “Aipagarria ere bada idazleak siniestrotasunarekiko, itxuraldaketarekiko duen jaiiera eta debozioa. Krudelak badira ere, ipuin batzuek, azken unean bederen, irribarrea dakarte ezpainartera.” (*Pergola* 37)

Estiloari dagokionez, lehen bilduman erakutsi zuen hizkera bizi eta joria erabiliz jarraitzen du. Zabalak “Linazasorearen prosa erraz eta jariakorra” dela adierazi zuen. (*Egunkaria* 1994-XI-20)

Amaia Iturbideren iritziz, ipuin-bilduma landu baten aurrean gaude: “landua, ipuingintzan oinarritutakoak diren bi arauok, idazkeraren tentsioa eta oreka, tajuz eta antolamenduz betetzen dituelako hiztegi propio baten bidez.” (*Egunkaria* 1995-XII-16)

Testuartekotasunari dagokionez, honakoa gehitu zuen:

Kafka gogora lezake (absurdogatik, maiz ez baita deusik ikusten ahal), Borges (itzul eta itzal inguruko labirintoengatik), baina, batez ere, Julio Cortazar. Ipuin batzuetan, aipatu idazle ezberdinen eragina erabatekoa den arren, besteetan iragazia eta tindura pertsonaletan lerrotatua eta baitaratua ageri da, horretan ipuinak bere aldeko tantoak irabaziz. (*Egunkaria* 1995-XII-16)

Juan Luis Zabalak ere “batzuetan Kafkarengandik gertu, bestetan Borgesen bidetik” doala aipatzen du. (*Egunkaria* 1994-XI-20) Bestalde, bi ezaugarri hauek azpimarratu zituen: “irudimen agortezina eta irakurlea giza-izaeraren alderdirik laiotzenetan barneratzeak erraztasuna.” (*Egunkaria* 1994-XI-20)

Ipuin arrisksuak bildumako ipuinak ere ederki sar zitzakeen *Zergerta* ere bilduman, marko narratibo berean sar baitaitezke. Nahiz

eta gazte literaturako sail batean argitaratu diren, aipaturiko bilduma honekin duen lotura dela bide erabaki dugu lantxo honetan leku txiki bat eskaintzea. Gainera, Xabier Etxanizek dioen bezala, “Liburuan agertzen diren 22 ipuinak gazte eta helduen literaturako mugan daude, gazteek irakurri dezaketzen moduan, helduentzat ere oso proposak izan daitezke.” (*Egunkaria* 1994-VII-10)

Zer gerta ere bildumari jarraiki, hauek ere ipuin labur eta zorrotzak dira. Hemen ere, “gehientsuenetan amaierako ezustearen laztasunak ematen die ipuinoi irakurlearen barruak astindu, zartatu eta asaldatzeko indarra.” (*Egunkaria* 1994-VII-24) Are gehiago, bilduma honetan ere Berardok idatzirik ipuinak eskaintzen zaizkigu. Gainera, aitzinsolasean Berriondo tar Anesek ipuin hauen argitalpenei buruzko oharra egiten ditu. Ipuin-bilduma honetan hiru ataletan sailkatzen ditu ipuinak: *Irri-eragille edo umorezkoak* (batez ere, amaieran ezustea dutenak eta intrigazkoak); *Anatomia eta Litteratura* (absurduaren ildotik harilkaturikoak); eta *Chaos*. Dena dela, ipuin guztiak sarkasmo eta ironia handikoak dira, absurduaren mugan daudenak.

Hortaz, ipuin hauetan aurreko bildumako ipuinen ezaugarri bertsuak aurki daitezke. “Ipuinek badute gu harritzeko gaitasuna, darabilten umore beltza dela eta (zenbait kasutan makabroa ere badena), fantasiaren eta errealitatearen arteko mugan baitaude, bukaerako ustekabeak harritzen gaituelako.” (*Egunkaria* 1994-VII-10) Ondorioz, aurreko bildumari buruz esanikoa bilduma honi buruz hitz egiteko ere erabil dezakegu.

Jokin Muñoz: *Hausturak* (1995)

Jokin Muñozek ipuin-bilduma modura antolatu duen liburu honen batasuna dela-eta, eleberrizat har genezake. Batasuna alderdi askotan azpimarratzen da: batetik, ipuin guztiak Izurkiz herrian kokatzen dira; bestetik, pertsonaiek ipuin batetik bestera salto egiten dute. Javier Rojok dioen bezala, “narrazio hauek elkarrekiko erreferentziaz beterik daudelarik, elkar osatzen dute, azkenean ia-ia nobela bat burutuz.” (*El Correo* 1996-IV-11) Etengabeko erreferentzia hauez gain, giro jakin batek harilkatzen ditu liburu honetako narrazioak: “hegoaldea, trenbidea, ibaia, basamortua... dira giro horren osagarriak.” (*Argia* 1561) Bada narrazioak uztartzen dituen beste elementu bat ere: trena. Izan ere, trena eta tren-geltokiaren inguruan mugituko dira pertsonaiak eta azken batean, honek emango dio bizi-tasuna Izurkiz herriari. Trenak eta trenbideak haustura bat dakarte

herri honen bizimoduan. Baina, bada ipuinotako pertsonaiengan haustura aipagarria dakarren beste gertaera bat ere: gerra. Ondorioz, gerraurrea, gerra garaia eta gerra ostea askotan aipatuko dira.

Honela, bost narraziotan zehar trenbidearen eraikuntzak herrira dakartzan aldaketak kontatzen dizkigu. Narrazioan tartekaturik hamabi poema ere aurki ditzakegu. Poema hauek narrazioen osagarri dira, hauekin lotura estua baitute; “metafora iradogarriak gustatzen zaizkit, eta kasu honetan narrazioak poema ulertzen laguntzen du.” (*Argia* 1561)

Oro har, ipuin hauetan lehenengo pertsonako narratzaile orojakilelea dugu. Baina, narratzaile hau batzuetan autodiegetikoa da, eta besteetan homodiegetikoa, beste pertsonaia batzuen gertaerak azaltzeari ekiten baitio. Gainera, kasu guztietan ipuineko pertsonaia batek ematen digu istorioaren berri. Batzuetan, pertsonaien arteko erreferentziak lotuz ipuin batetik bestera narratzailea aldatzen ez delako sentsazioa dugu. Beste batzuetan, ordea, argi dago narratzaileak beste pertsonaia bat dela. Bestalde, askotan pertsonaia narratzaileak fokalizazioa darabil beste pertsonaia batzuen lekukotasunak hurbilagotik ematearren.

Era honetan, pertsonaia ugari aurkezten zaizkigu orrialde haueetan. Batzuetan pertsonaia hauen gogoetak ezagutarazten zaizkigu pertsonaien izakerara gerturatu asmoz. Hala ere, Rojok dioskunaren haritik zenbait pertsonaia oso lauak direla aipatu beharra dago:

Batzutan pertsonaiok lauegiak izaki, arazo handirik gabe aurreikus daitezke bere jokaerak. Pertsonaia guztiak bizitza trenak markatutako erritmora egokitu beharrean aurkituko dira. Eta egokipen hori ezinezkoa gertatzen zaienean trena bera izango da beraien amaieraren instrumentua, trena da-eta liburu osoa menperatzen duen elementua. (*El Correo* 1996-IV-11).

Trena dugu, hartara, liburu honetako pertsonaiarik nagusia. Hausturak, bada, hemendik sortuko baitira. Trenak iragana, oraina eta etorkizunaren arteko aldea irudikatzen du: pertsonaia, belaunaldi eta garaien aldaketa.

Aldaketa hau ere narrazioaren erritmoan antzematen da. *Habe*ko iruzkin batean honi egiten zitzaion erreferentzia:

Pertsonaia andanarik handiena lehendabiziko partean dago, eta erritmoa ere biziagoa da hor 166. orrialdetik aurrera baino, eta lehendabiziko zati horretan, dago Izurkiz bizien, gerra aurretik alegia, hausturaren aurretik. Eta erritmoa

moteltzen denean ere, ederki asko islatzen du moteltasun hori
Jokin Muñozek. (*Habe* 272)

Denborari dagokionez, atze-aurrera ugariz bete ditu narrazioak. Gure aburuz, denboraren igarotzeak garrantzia handia du liburu honetan. Honela, askotan hiru denborak, iragana, oraina eta etorkizuna bat eginda aurkezten zaizkigu. Hiru denbora hauek lotzeko modu bakarra oroitzapenak eta ametsak direnez, hauei etengabeko erreferentzia egiten zaie. Oroitzapenen garrantzia Javier Rojok ere aipatu zuen: “Oroimenaren ariketa da, beraz, hausturak eta ahazturak gainditzeko asmoarekin egina.” (*El Correo* 1996-IV-11) Hala ere, oro har, denborak dakartzan hausturak eta aldaketak dira liburuan zehar islatzen direnak.

Hona hemen arestian aipaturiko giro hori aukeratzeko arrazoiak: “Hegoaldea modelo sinboliko gisa hartu dut, hori ez da berria, Faulknerren kasua hor dago.(...) geografia intimo bat sortu dut; benetako errealitate geografikoa antzeman daiteke, baina ez dago asmo dokumentalik.” (*Argia* 1561) Gainera, geografia intimo honi Izurkiz izena eman dio. Hots, sinbolismoz beteriko izena: pertsonaien zimurdurak baitira ipuin hauetan kontatzen zaizkigunak, denboraren iraganak sorturikoak. Hau da, zimurdura horien atzeko iragana, bizitzaren igarotzearen zantzuak islatzen dira.

Giroz batasuna izateaz gain, estiloz ere batasuna duen liburua da: hizkera landua darabil bere lehen liburu honetan. Metaforak, konparaketak, erregistro ezberdinak,... erabiliz hizkera aberatsa sortu du.

Miren Trekuk eleberri modernotzat du liburu hau: “Eta nobela deritzot, batek ez dakielako oso ongi nola definitu ipuin bilduma hau, eta moderno gainera bere baitan gutunak, egunkari pasarteak, poesia, metaliteratura eta “nahi duzun guztia” sartu duelako.” (*Egunkaria*, 1996-X-19) Hots, eleberri modernoetako ezaugarria da aniztasuna.

Testuartekotasunari dagokionez, Bernardo Atxagak *Obabakoak* bilduman argitaraturiko *X eta Y* ipuina dakarkigu gogora, bertan ere trenaren etorrerak eragin zuen beldurra baita kontagai.

Xabier Montoia: *Gasteizko hondartzak* (1997)

Harremanen inguruko gaiak guztiz alde batera utzi ez dituen arren, oraingo honetan Montoia hiri bat hartu du protagonista nagusitzat. Gasteizen kokaturiko hogeita bi ipuin eskaintzen dizkigu ipuin-bilduma honetan: hiri baten lekuko diren ipuinak. Harkaitz

Canoren aburuz, “batasun handiko liburua egin digu oraingoan, bai gaiaren aldetik bai formalki barne-hari askorekin jositako hiriaren fresko zabal bezain ederra.” (*Jakin* 101) Batasun hori “batak besteari deitzen dion ipuin kateatuz osaturik daudelako” (*Jakin* 101) lortu du. Izan ere, narrazio hauek gerra zibila bukatu eta gaur arte hiriak jasan duen aldaketaren lekukotza eskaintzen digute. Honela, “Gasteizko postale ezagunak dira batzuk, giro *underground* ezezagunago batekoak beste batzuk” (*Jakin* 101). Hiri baten berri emateaz gain, pertsonaien bidez gizakiaren sentimendu unibertsalen berri ere ematen digu. Heriotza, esaterako, etengabe agertzen den gaia da.

Liburuan zehar pertsonaia ezberdin asko aurkezten bazaizkigu ere, batzuetan ipuin bateko pertsonaiak beste ipuin batean sartzen ditu: “liburuko pertsonaiak errepikatzen joaten direla, batzuk azaltzen, besteak gordetzen, batzuk ipuin batean protagonistak, eta beste batean bigarren mailakoak” (*Egunkaria* 1997-VI-21). Izan ere, “hainbat eta hainbat pertsonaiaren bilakaeraren berri ematen digu bere azken liburuko ipuin ezberdinetan” (*Jakin* 101). Honela, pertsonaia hauen bidez hiriaren lekukotza eskaintzen digu. Hau da, hiri baten irudiaren atzean gordetzen diren bizitza pusketak ditu kontagai.

Ondorioz, kronotopo determinatua darabil: lekuari dagokionez, narrazioak Gasteizen girotu dituela aipatu dugu, eta garaiari dagokionez 1937. urtetik gaur egunera arteko bidaia egiten digu. Bestalde, denboraren iragaiteak dakartzan aldaketak ere azpimarratzen ditu. Hauei buruzko erreferentziak batik bat azken ipuinean aurki ditzakegu. Izan ere, Gasteizen bizi diren biztanleak aldaketaz hain garbi ohartzen ez badira ere, denbora dezente kanpoan igaro duenarentzat aldaketak izugarriak dira.

Ikuspuntu ezberdinen arabera aurkezten dizkigu pertsonaiak, egoerak,... aniztasuna nabaria da. “Eta nahiz eta estiloan ikuspegi errealista-objetibo horrekin jokatu, Montoiak bere iritzia ematen du.” (*Egunkaria* 1997-VI-21)

Ipuin-bilduma honetaz aritzean honela laburbiltzen du Jose Jabier Fernandezek idazle honen bilakaera:

Bere hasierako lanetan desamodioak, bakardadea eta ilusioen zapuzketa ziren nagusi. Hala ere *Emakume biboteduna* liburuan aldaketa sumatzen zen, eta errealismo zikin batetik beste errealismo xumeago batera pasatzen ari zela nabaritzen zitzaion. Oraingo honetan, Montoiak bere bilakaerarekin jarraitzen du, eta errealismo objetiboagoa lantzen du. (*Egunkaria* 1997-VI-21)

Beheraxeago, honela azpimarratzen du liburu honen lorpena:

Liburuak merezi du, eta ez soilik istorio harrigarri eta hun-kigarriak direlako, (Montoiak ipuinak behar duten bukaera perfektua emateko abilitadearekin jarraitzen du) edo azaldu-tako estruktura puzzle moduan erakargarria egiten delako, baita liburuak duen balore historikoagatik ere, bertan hiri batean bere historian gertatutako hamaika istorio kontatzen zaizkigulako. (*Egunkaria* 1997-VI-21)

Harkaitz Canok, bestalde, honako iritzia aipatu zuen:

Emakume bibotedunak hain lortuak ez zituen bi tasun dituela esatera ausartuko naiz: erregularitasuna eta batasuna, nahiz eta, agian, ipuin bakanen batean sartzen apur bat kostatzen den. Ezagun du Montoiak narratzaile ingeles eta ameri-
kar garaikideen eragina ipuinotan. (*Jakin* 101)

Beraz, ipuinak bata bestearekin egoki lotu izana aipatu izan da bilduma honen lorpenik aipagarrientzat.

Antxon Gomez: *Abere madarikatuak* (1997)

Pagoetako parkean basozain ibilitako Antxon Gomezek ipuin-bilduma honetan basapiztiak dakartza mintzagai. Liburu hau osatzen duten sei ipuinetan zazpi animalia ezberdin topa ditzakegu. Ipuin bakoitzeko animalia jakin baten inguruko ohiturak aurkezten badizkigu ere, bada ipuin guztietan ageri den animalia bat: putre txuria. Kolore hau, gainera, izuaren eta beldurraren sinboloa izan ohi da. Basapiztia hau ipuin guztien lotura gisara ageri da. Hona hemen aurkezten diren beste abere madarikatuak: otsoa, igaraba, gepardoa, hartza, azkonarra eta itsas-txakurra hurrenez hurren. Putre txuriarekin batera gizakien arteko senitarte edo lagunarteko harremanek ipuinen arteko uztardura azpimarratzen dute. Honela, lehen ipuineko Manex Imiruri hizlaria da lotura hauen ardatza: hots, datozen ipuinetako pertsonaiek badute Manexekin nolabaiteko harremana: senitartekoak, lagunak, lankideak... Bestalde, ipuin hauetan bilduma bera osatzeko asmoa behin eta berriz errepikatzen da.

Gorka Arreseren iritziarekin bat egiten dugu, animaliak “humanizatuak” ez daudela oso nabarmena baita: animaliak agertzen badira ere ez dago fabularik. (*Zabala*, Juan Luis: *Egunkaria* 1997-X-24) Bestalde, gizaki baten ikuspuntuaren arabera kontatzen dira istorio-

ak: narratzailea ez da animalia bat, edo narratzaile orojakilea. Orohar, narratzaileak lehenengo pertsonan dihardu eta ipuineko pertsonaia batekin lotu dezakegu: Manex Imirurirekin, agian. Hala ere, askotan narrazioen berri emateko hirugarren pertsonara igarotzen da. Baina, idazleak berak narratzailearekin bat egiten du *Abere madarikatuak* ipuin-bildumari buruz aritzen denean. Liburuan zehar, lan hau osatzeko izan dituen zailtasunen inguruko aipuak egiten baitira. Gainera, liburua idazten lagundu dion Saizuri idazlumen istorioa ere kontatzen digu.

Narrazioaren egituraketari dagokionez, ipuin guztietan bi plano ageri direla aipagarria da. Batzuetan, bi plano hauek leku aldaketaren arabekoak dira; beste batzuetan, garaiaren aldaketaren arabekoak. Kronologia nahiz topologia darabil hauek azpimarratzeko.

Beraz, ipuin gehienen istorioak Euskal Herrian kokaturik badaude ere badira atzerrian lekutatuko hainbat pasarte: esate baterako, Errusia eta Irlanda. Garaiarekin gauza bera ikusten dugu. Ipuin gehienak gaur egungo giro batean kokatu baditu ere, hirugarren ipuinean, adibidez, XVII. mendera jauzi egiten du.

Idaztinkerari bagagozkio, estilo erraza eta zuzena hautatu du idazteko. Elkarrizketetan, bestalde, euskalki ezberdinak erabili dituela aipatu beharra dago: zuberera, bizkaiera, ...

Egileak liburua hiruki modura egituratu zuela azaldu zuen: bate-tik, basapiztia horien bizimoduaren inguruko gorabeherak agertzen dira; bigarrenik, basapiztia horien eta gizakien arteko harreman gatazkatsuen berri ematen da; eta azkenik, basapiztia horien inguruko mundu mitologikoa islatzen da; hau da, animalia horien inguruan sorturiko sinesmen ezberdinak. (Zabala, Juan Luis: *Egunkaria* 1997-X-24) Beraz, liburua idazteko dokumentazio lan handia egin behar izan zuen egileak.

Liburuaren aurkezpenean gasteiztarrak adierazi zuenez, honako asmoa ere bazuen liburua idaztean:

Basapiztia horiek gure kulturaren izan duten garrantziaren aldarrikapena ere badago liburuan. (...) Animalia horiek Euskal Herritik desagertu direnean, gure kulturaren zati bat ere desagertu da, horien inguruan sinesmenak, mitologia bereziak eta gisa horretako kontu asko sortu baita mende askotan. (Zabala, Juan Luis: *Egunkaria* 1997-X-24)

Ondorioz, naturaren aldarrikapena ere ikus dezakegu bilduma honetan.

Paddy Rekalderen ipuingintza

Paddy Rekaldek ildo bera jarraituz idatzi ditu bere bi ipuin-bildumak: *Aizu, Paddy!* (1996) eta *Whiskey koloreko gauak* (1999). Bilduma hauetako ipuinetan gai eta estilo bertsuak darabiltza. Ipuin hauetako gai aipagarrienak: droga, sexua, rock and rolla, tabernetako giroa, alkohola, ... Lotura handia dago bilduma batetik bestera. Honela, “Gauaren testuingurua dute ipuin guztiek, eta ez dago liburuan gaudetan gertatzen ez den ezer; ikusitakoa, bizitakoa kontatzea baitu xede, errealitate horri imajinario apur bat gaineratu dion arren.” (*Egunkaria* 1999-XI-24) Honetaz gain, giroa ere aitzakia da hainbat sentimendu unibertsal islatzeko: etsipena, maitasuna, desioen ezintasuna, itxaropena, ... Izan ere, gaueko giroaren bidez, “iluntasunaren baitan gordetzen den pasioa ageri da liburuko orrialde guztietan.” (*Egunkaria* 1999-XI-24) Gaueko amets honetan, alkoholaren zorabioaren eraginez, hilak eta biziak batera agertuko dira. Izan ere, bizitzaren mozkorralditzat har genitzake ipuin hauek, gaueko ametsen mundua irudikatzeko erabilia. Xede honekin, askotan gaueko harremanen berri ematen zaigu. Bartzuetan gaueko behin-behineko harreman hauen bidez, maitasuna eta desioen ezintasuna adierazten zaigu. Bestalde, gaueko giro honetan garrantzia berezia izango dute, bai itsasoak, bai marinela zaharrek. Gainera, honelako pertsonaiek taberna giroan tartekatuz, ametsen munduranzko atea irekitzen ditu. Bertako marinela zaharrek Joseba Sarrionandiaren “marinela zaharrak” ekarri dizkigute gogora.

Bi bildumetan estilo eta gaiaren aldetik lotura duten ipuinak daude, baina bigarren liburuan, ipuinak luzeagoak eta onduagoak daukela iruditu zaigu.

Narratzailea, oro har, Paddy deituriko narratzaile autodiegetikoa dugu. Hala ere, bartzuetan beste pertsonaiek hartuko dute hitza, narratzaile metadiegetikoari bidea zabalduz. Are gehiago, beste zenbaitetan Paddyk berak beste pertsonaia baten gorabeherak kontatzen dizkigu, bera bigarren mailako pertsonaia izatera igaroz. Kasu hauetan, Paddy narratzaile homodiegetikoa litzateke, ez autodiegetikoa. Bestalde, narratzaileak berak *Whiskey koloreko gauak* liburuari buruzko erreferentzia egiten du ipuin batean. Era honetan, kritikaren aurka eta bere idazteko moduaren aldeko aldarrikapena egingo du. Gainera, azken ipuinean pertsonaiek izenburuez nahiz idazleaz hitz egingo dute. Hortaz, metaliteraturaz gain hainbat iruzkin metanarratibo ere aurki ditzakegu hainbat pasartetan.

Pertsonaiei dagokienez, gainera, *Whiskey koloreko gauak* bilduman badira lehen bildumako hainbat pertsonaia ere. Bestalde, per-

tsonaiak, orobat, idazlearekin harreman bereziren bat izan duten emakumeak izan ohi dira. Are gehiago, ipuin hauetako pertsonaia nagusia idazlearen beraren izena darama: Paddy.

Gainera, bi liburu hauetako ipuinak kokapen geografiko jakin batean gertatzen dira: Euskal Herrian eta Irlandan kokaturik daude, bere esperientzian oinarritu baita liburuak idazteko. Baina, islatu nahi duen errealitate horri fantasia erantsi diola nabarmena da.

Estiloari dagokionez, oso tonu subjektiboan idatziriko ipuinak dira. Nahi duena adierazteko estilo zuzena, hizkera lotsagabea, gordina erabiliz. “Idazkera laua da, hau da, gauzak modu errealean daude idatzita. Era berean, idazkera sutua da, pasioa agertzen dute hitzek.” (*Egunkaria* 1999-XI-10) Gainera, elkarrizketa biziak eta kaleko hizkera darabiltza narrazioaren erritmoa bizkortzeko.

Bi ipuin-bildumetan erreferentzia ugari dago: idazleen aipuek (Bukowsky, Txinasky,...), musika letra ezagunak, ... *Whiskey koloreko gauak* bilduman, gainera, ipuin bakoitzaren hasieran poema bana eskaintzen zaigu, idazleak *apunteak-edo* modura izendatuak.

5. KAPITULUA: Loturarik gabeko ipuin-bildumak

Josu Unzueta: *Gauerokoak* (1991)

230 gaueroko aurkituko ditugu liburu honetan. Gaueroko hauek gogoeta moduko ipuin laburrak dira. Testu batetik bestera ez dugu loturarik aurkituko. Dena den, denek tonu ezkorra dute, gai ilunak jorratzen baitituzte. Izan ere, etsipena, bakardadea, ezintasuna, malenkonía, haurtzaroko oroitzapenak eta tristura dira ipuin haue-tan gairik aipagarrienak, era tragikoan aurkeztuak. Era berean, heriotzaren ikuspuntu ezberdinak ere landu ditu bere liburuan. Jose Luis Otamendiren ustez “atmosfera misteriozkoa, kezkgarria, absurdoa, itoa” da aurki dezakeguna. (Otamendi, Jose Luis: *Argia* 1372)

Elkarrizketa batean aipatu zuenez, “ideiak adierazi baino, sugeritzen saiatu da, giroak sortzen” (Goikoetxea, Joxi: *Argia* 1372) Honela mintzatu zen idazlea: “gehienak subkonszientetik ateratako sua bezalakoak direla uste dut. Sumendiak barriak jaurtitzen dituen modu berean egin ditut.”

Pertsonaia zehaztugabeak *flashen* modura aurkezten zaizkigu:

Gizakia da, bere abstrazioan, testuotako pertsonaia nagusia (bostetan agertzen zaigu izen baten konkretzioa: Remigio aba-

dea eta Jaun Done Gabriel, tonu nagusiarekin bat ez datorren testu bakarrean, Ingrid, Lenin eta G.), bizitzaren zelda espazio eta egunen gurpil erlojurik gabea denbora. Ezagutzaren giltza, berriz, galdera eta zalantza. (Lertxundi, Anjel: *El Diario Vasco* 1992-II-8)

Zehazgabetasun honen bidez, gizakiaren hainbat sentimendu uni-bertsal islatzen saiatu da; ez baitira pertsonaia jakinak axola zaizkionak, izakiaren beraren egoera baizik.

Idaztankerari begiratuz, paradoxa, sarkasmoa, absurdua eta surrealismoa aipatuko genituzke ezaugarri nabarmenen artean.

Nabaria da Unzuetak mendebaleko tradizio literarioa ezagutzen duela, “esate baterako erraza dago Kafka eta Lovecraft-en itzala antzematen.” (Otamendi, Jose Luis: *Argia* 1372) Lertxundiren iritziz, absurduaren ildotik eraiki dira ipuin asko:

Unzuetak aitortzen digunez, ez dute testuok zer ikusirik adimenarekin, bihotzarekin baizik, ideien interpretazioarekin ez, bai sentimenduenarekin.

Liburuak, orohar, absurdoaren bandako idazle andana badakar ere gogora, xedearen aitormen honek Mallarmé oroitazten du: “Poemak ez dira ideiekin osatzen, hitzekin baizik”. “Je suis un syntaxier”, definitu zuen bere burua Herodiaseen egileak. Idazle baten mailu eta ingude hitza izaki, hitz horren zerbitzutara, sentimenduen eta estadu animikoen esanetara baino, jarri behar luke bide horri ekin nahi liokeen idazleak. Zerbitzu hori korrekzioa eta dotorezia bera baino harantzago doa –Unzuetari ukatu ezin zaizkionak– hitza bilakatzeraino atmosferaren habe eta sostengu bakar. (Lertxundi, Anjel: *El Diario Vasco* 1992-II-8)

Jabier Muguruzaren ipuingintza

Besteak beste, bi ipuin-bilduma plazaratu zituen irundarrak hizpide dugun hamarkada honetan. Errealismo zikinetik gertu dauden ipuinak eskaini dizkigu Jabier Muguruzak bere bi ipuin-bilduma hauetan.

Bizitza pusketak (1996) bere lehen ipuin-bilduman zortzi narrazio labur aurkeztu zizkigun Muguruzak. Honen izenburuak erakusten duen bezala, ipuin hauetan guztietan bizitzaren pusketak erakusten zaizkigu. Pusketa hauek osagarriak direla esan genezake, guztiak bizitzaren ikuspegi bat adierazten baitute. Ipuin guztietan pertsonaia baten bizimodu arrunteko egoera arrunta aurkezten zaigu. Ipuin

bakoitza pertsonaiaren izena du izenburutzat. Pertsonaia hauen barne mundura gerturatuz, hauen ezinegona, bakardadea, ... suma deza-kegu. Javier Rojok egoki azaltzen duen bezala “guztiek antzeko egitura daukate: inolako berezitasun nabarmenik ez daukan pertsonaia bati zerbait berezia gertatzen zaio, bizitza horren monotonia nolabait apurtzen duena.” (Rojo, Jabier: *El Correo* 1996-XII-26). Bestalde, pertsonaien barne mundu honetan denek badute sentimendu komun bat: nolabaiteko bakardade sentimendua. Edozein modutan ere, askotan neska-mutilen arteko harremanak dira ipuin hauetan kontatzen direnak. Beraz, egitura aldetik harremana badute ere, ipuinak ez daude bata besterekin kateaturik.

Ikuspuntuari dagokionez, hirugarren zein lehen pertsona darabil, eta zenbaitetan narratzaile orojakileak ere bere gogoetak gehitzen ditu. Haatik, idazle honek fokalizazioa askotan erabili ohi du, izan ere, pertsonaiek bere inguruan ikusten dituzten beste gizakienganako arreta jartzeko joera baitute: eta hauengana hurbilduko gaitu narratzailea. Irudiak sortuko ditu, zineko kamera baten gisa.

Espazioari dagokionez, Euskal Herrian kokatzen ditu ipuin guztiak: Donostia, Gasteiz, Bilbo... dira lekurik aipatuena.

Estilo arruntaren bidez eskaini dizkigu egunerokotasunaren irudi ezberdin hauek guztiak: hizkera arrunta, zuzen eta elkarrizketa ugari-rikoa.

Bestalde, badira ipuin gehienetan errepikatzen diren irudi ugari ere: musika, esaterako, oso presente dago bere ipuinetan (ez dugu ahaztu behar idazlea bera musikaria ere badela); kafea (bizigarria); bidaia, kotxea (ihes egitea, ilusioaren bila);...

Eredui dagokienez, Ramon Olasagastik eginiko elkarrizketan Carverren eragina nabaria dela onartzen du: “Carverren istorioak irakurrita, iruditzen zitzaidan gauza handirik ez zela gertatzen, baina, halaber, zer edo zer transmititzen ari zela” (*Egunkaria* 1996-XI-22). Elkarrizketa egiten duenak berak Hauster ere aipatzen du.

Laura kanpoan da (1999) deituriko bigarren ipuin-bilduma honetan bi ipuin argitaratu ditu. Ipuin hauek aurreko bildumaren jarraipentzat har daitezke, ildo beretik baitoaz: eguneroko bizimodu-ko egoera arruntak dira aurkezten zaizkigunak. *Laura kanpoan da* ipuina da luzeena: honetan, bere emaztea, Laura, asteburuan kurtsi-ilo bat egitera joan dela-eta bakarrik geratzen den senar baten istorioa kontatzen zaigu. Senarra, Markos, bakarrik geratzean, rock musika talde bat duen bere anaiarekin Vigora kontzertu bat entzutera joatea erabakitzen du. Lauraren irteerak eta giro aldagetak kolokan jarriko dute pertsonaiaren mundu osoa.

Monde-Marsan bigarren ipuinean iparraldera lan bila doan pinojole baten istorioa kontatzen zaigu.

Hortaz, bi ipuin hauetan egoera bertsuan kokatu ditu bi pertsonaia nagusiak:

Pertsonaia garrantzitsuenak, Markos zein Nestor, lekuz, jokoaz, oroz kanpo daude ia beti; guztiz arrotzak zaizkien goiti-beheitiek erabakitzen dituzte beren aldarteak eta norabideak, ez dira gai beren bizitzak gobernatzeko, izutu egiten ditu askatasunak. Gizaki izateak urduri jartzen baititu, nahiago lukete postontzi edo karrota izan gizaki baino: pairaezina zaie erabakiak hartzeko ahalmena. Halatan, ezustean, nolabaiteko babesa damaien emaztearengandik urruti direlarik –emaztearen erabaki baten ondorioz noski, ez baita harritzekoa halako ganorabakoengandik aldentzen ahalegintzea–, munduarenganako eta beren buruarenganako haserre hitsa nagusitzen zaie, miseriazko ziminokeriak eginaraziz.(...)

Baina Markosek zein Nestorrek ez dute amaren ordezeko emaztearenganako itzulbide errazik; narraziook arrotzaldi horren kronika lirateke. (*Egunkaria* 1999-X-9)

Berriro ere, bidaiak, kotxeak, musika,... izango dira etengabeko *leit motivak*. Elementu hauen errepikapena dela-eta, *Ortzadarreko* elkarrizketariak *road-movie* estiloko bildumak eratu dituela aipatu zuen. Gainera, antza denez, ekintzek baino “garrantzia handiagoa dute barne gogoeta eta sentimenduak.” (*Aizu!* 228) *Garako* iruzkingilea ere pertsonaien barne munduari Muguruzak eskaintzen dion arretari buruz mintzo da: “Mugalari lana egiten du Muguruzak bere azken liburuskarekin. Bi narraziotan pertsonaren barruko mugak zeharkatzen ditu eta erdi itzaletan gureganatu. Bietan ere pertsonaren barru borrokak azaltzen dizkigu.” (Carrere, Joxemari: *Gara* 1999-VII-17) Zalantzaz beteriko mundu txikiak sortuko ditu.

Bestalde, bere bi ipuin-bildumetan argi geratzen da idazleak berak elkarrizketa batean aitortu zuen bezala “begirale amorratua” dela, beste pertsonaien irudiak egoki marrazten baititu. (Mendizabal, Iñaki: *Deia* 1999-VI-11)

Bigarren lan honetan ere estilo errazaren aldeko agertuko zaigu: izan ere, “guzti hau estilo arin eta hurbil batetik kontatzen digu Jabier Muguruzak, erretolika handirik gabe, baina ez horregatik sinplea.” (*Gara* 1999-VII-17)

Harkaitz Canoren ipuingintza

Harkaitz Canoren ipuingintzan bi alderdi bereiz ditzakegu: bate-tik, *Goizean behin* irratsaiorako prestaturiko lanen bi bilketa ditugu: *Radiografiak* (1995) eta *Bizkarrean tatuaturiko mapak* (1998). Bestetik, ipuin askeak biltzen dituen *Telefono kaiolatua* (1997) deituri-ko bilduma kaleratu zuen.

Goizean behin irratsaiorako prestaturiko berrogei biografia fikzio-natuetatik hamalau aukeratuz osatu zuen *Radiografiak* bilduma. Liburu honetan atzerriko hainbat pertsonaia ospetsuren inguruko biografia fikzionatuak aurkituko ditugu. Honela, errealitatea eta fikzioa nahastea lortzen du idazleak, askotan bien arteko muga oso argia ez delarik, irudimenari bidea zabalduz.

Bestalde, oso testu motzak, irakurterrazak dira, edozein lekutan irakur daitezkeenak. Gainera, umorea eta ironia darie kontakizun hauei.

Bizkarrean tatuaturiko mapak bilduma ere, *Goizean behin* irratsaiorako prestaturiko hainbat lanen hautaketa dugu. Oraingoan, hiri ezberdinei buruzko gogoeta, deskribapen edo ipuin eskaintzen dizkigu. Guztira berrogeita bederatzia hiri aurkezten dizkigu: eskaintza zabala eta aberatsa. Adimen eta irudimenez osaturiko narrazio labur-
ren aurrean aurkitzen gara, honela, bi hauek garatzeko aukera ezin hobea eskaintzen zaigu. Canok ikusi ez dituen hiri horiek irudimena-
ren bidez bereganatu eta ezagutzen ditu. Bi bilduma hauetan erreali-
tatea irudikatzeke irudimenaren gailentzea da azpimarragarriena. Irratiko lan honen argitarapena zela-eta honela mintzatu zen Edorta Jimenez:

Ozen esan beharrekoa da liburuko testuak “testuak” direla beste ezer baino lehen, eta irratian esan bazituen ere, horixe direla, literatura. Literatura hori argitaratzea aberasgarri ikusten dut nik. Bada, ostera, Harkaitz Cano azkarregi argitaratzen eta, ondorioz, talentua alferrik galtzen ote dabilen dioenik. Batzuek Bilbaoko bakartzat duten egunkarian idazten duen Rojok, izen eta guzti esanda, adibidez. Ez nator bat. Lehendik zeuden horiek idatzirik eta, argitaratzeak ez dio talentuan murrizketarik eragingo egileari. Auzia beste bat da hemen, nik uste; hain zuzen ere, idazkuntzatik bizi nahi duen euskal idazleak non eta zelan erabili behar duen bere talentua. Edo beste modu batera esanda, Canok eta bestek erakusten duten bokazio sendoak zein etorkizun duen hedabideetatik kanpo geratuz gero. (*Jakin* 107)

Estiloari dagokionez, bere gainerako lanetan bezala, honetan ere ironia darabil.

Baina, batik bat *Telefono kaiolatua* bildumari eskainiko diogu gure arreta. Ikutu ezkorra duten ipuinen bilduma bat osatu zuen. Luzera ezberdineko ipuin hauen artean ez dago lotura garbirik. Hala ere, ipuin guztietan Harkaitz Canok berezkoa duen estiloa darabil, narratiba poetiko bikaina eskainiz. Are gehiago, poesiak ere han hemenka tartekatzen ditu. Bestalde, ipuin hauetan guztietan badira errepikatzen diren sentsazioak ere: bakardadea, heriotza, autosuntsipena, ... Sentimendu hauetaz gain, bada ipuin gehienetan errepikatzen den elementu bat ere eta bildumari izena ematen diona: telefonoa. Honen bidez, hainbat sentimendu ezberdin islatzen ditu: itxaropena, beldurra, zoriona,...

Bestalde, errealitateari fantasia gehitu eta istorio ezagunak aldatzeko joera du. Honela, Robinson Crusoe edo Rimbauden alderdi ezkutua azalarazi nahian dabil. Izan ere, gertaeren edo ezagunaren beste alde horren bilaketa etengabea da. Ipuinetan bertan aipatzen duen bezala: “iristen da eguna ezkutukoa azaleratzen dena.” Honela, heroien desmitifikazioa egiten du, ipuin hauetako pertsonaia guztiak galtzaileak izango baitira. Beste alderdi ezkutu horien bilaketa ere antzeman daiteke aurreko bildumetan.

Era honetan, heriotzaren presentzia etengabea da. Batzuetan, zuzenean egiten du honen erreferentzia: pertsonaiek bere buruaz beste egiten dute, heriotza ezinbestean datorkie,... Beste batzuetan, ostera, heriotzaren zantzuak aurkitzen ditugu: esate baterako, ardoa, odolarekin identifikatzen dena.

Lekuari dagokionez, zehazgabetasuna nabari da. Izan ere, ipuin asko oso laburrak dira eta horietan ez dago horrelako zehaztasunetan ibiltzeko lekurik. Haatik, espazioa zehazten duenean ere, leku urrunetara joko du (Tanger, Istanbul,...), honela amets eta irudimenezko munduak geografía egokietan girotuz, mundu iradokitzaileak sortuz.

Lasartearrak ipuin oso laburrak ere idatzi dituela aipatu dugu. Hauetan ildo honetako ipuinetan aurki daitezkeen ezaugarriak ikus ditzakegu: izenburuaren garrantzia; denbora eta espazioaren zehazgabetasuna; ironiaren erabilera; amaieraren garrantzia, ezustea eta zentzugabekeriaren bidez sentsazio bereziak sortaraziz; erreferentzia literarioen erabilera;...

Estiloari begiratu, eleberrigintzaz mintzatzean aipaturiko ezaugarri berak aurki ditzakegu: metaforak, irudiak,... Era berean, umorea eta ironia darie Canoren hitzei. Idazleak berak elkarrizketa batean adierazi zuen bezala, idazlanetan askotan iristen den lekua absur-

dua da (Ubeda, Joxi: *Egunkaria* 1997-X-24). Gaztea zelarrik, Ionesco irakurri izanaren eragina aipatzen du. Baina, zentzugabekeria hau irudikatzen duen metafora iradokitzaileak, irudi bitxiak, konparaketa etengabeak,... darabiltza. Zentzugabekeriaren erabilaren bidez, interpretazio anitzeko irudiak sortuko ditu, irakurleonek irudimena aktibatzeko.

Ipuin-bildumaren amaieran, aurreko ipuinak kateatzen dituen poema idatzi du. Honetan pertsonaia ezberdinak biltzeaz gain, berriro ere pelikanoak ditu hizpide. Gure aburuz, pelikano horiek, hegaka dabilzan ametsen eta ilusioen irudia lirerateke.

Honakoa adierazi zuen bilduma honetaz mintzatzean Edorta Jimenezek: “Ohi duen irudimen oparoa eta hizkuntzaren erabilpen preziosista galdu gabe, inoiz baino narratzaileago ageri zaigu, kontakizuna mendean hartuz eta harekin nahi duen bezala jostatuz.” (*Jakin* 103)

Luis Mari Mujika: *Ipuin ubelak* eta *Abuztuaren hamabosteko tren* (1996)

Ipuin askeak eskaini dizkigu Mujikak bere bilduma honetan. Itxuraz, gai aldetik eta estilo aldetik oso ezberdinak dira. “Oso gai ezberdinak jorratu ditut eta denetatik dago: errealismo majikoa, fantasia, etsipena eta baita euskal nekazaritza munduan girotutakoak ere.” (*Egunkaria* 1996-XII-8) Ipuin batzuk trenarekin estuki lotuak daude, beste batzuk tradizioari lotuak, beste batzuk inozotasunarekin eta ekologiarekin,... “Ipuin pirandeliario samarrak ere badaude.” (*Egunkaria* 1996-XII-8) Beraz, oso bilduma irregularra da. Batzuetan oso ipuin motzak eskaini dizkigu, eta beste batzuetan bere eleberrigintzaren ildoko ipuinak osatu ditu. Azken hauetan bere eleberrigintzari buruz hitz egitean aipaturiko ezaugarriak aurki ditzakegu.

Abuztuaren hamabosteko tren ipuina da bilduma honetako ipuini aipagarriena: bertan trenak dakarren haustura kontatzen zaigu. Narrazio honek, besteak beste, Jokin Muñoz idazlearen *Hausturak* bilduma eta Atxagaren *X eta Y* ipuina dakartzkigu gogora.

Mailux Legorburu: *Apoa eta beste* (1998)

Oraingoan, Mailux Legorburuk loturarik ez duten hogeitabi ipuinen bilduma eskaini digu. Ipuin batean baino gehiagotan errepikatzen diren irudiak egon arren, ez dago denen arteko uztardura jakinik. Hala ere, gehienetan tonu bera arnas daiteke: tristura, nostal-

jia,... Juaristiren ustez, “guztietan bada halako aire misterioitsu bat, batzuetan errealitateetik at doana; besteetan errealitatearen eremuan pausatzen dena” (Juaristi, Felipe: *El Diario Vasco* 1998-VI-6)

Mota guztietako testuak aurki ditzakegu: gogoetak, deskribapenak, narrazioak,... aniztasuna nabarmentzen da: “Ipuin batzuek thrilleraren itxura eta egitura dute, besteek zorian itxuren gibelean bakartasun eta isiltasunaren trajedia gordetzen dute. Istorio laburrak pertsonalitate handikoak ditugu hor” (*Maiatz* 30).

Baina, guztietan izuaren sentimendua aurki daitekeela uste du Juaristik. Nire aburuz, denboraren presentzia ere etengabea da. Honela, belaunaldien loturen inguruko narrazio edo gogoeta ugari aurki daitezke. Denborarekin lot ditzakegu arestian aipaturiko tristura eta melankonia: baita beldurra ere; izan ere, denboraren joana kontrolatu ezinaren aurrean sortzen den ikara azpimarratzen da. Gainera, bidearen irudia ere askotan darabil. Aniztasun honetan, beraz, ikuspuntu ugari darabiltza.

Arestian aipatu dugun bezala, Jasone Osorok ipuin tradizionalei buelta emateko zuen joera Legorburuk ere badu. Beraz, ipuin ezagun asko erabiliko ditu hauekin jolas bitxiak sortzeko: ohikotasunari ezohikotasuna erantsiz.

Bestalde, askotan ezusteak aurki ditzakegu ipuinetan. Gainera, “badu Lukurenaren antzik ipuin beltzen tradizioari dagokionean.” (*Jakin* 106)

Espazioari dagokionez, nekazal giro batean kokaturiko ipuinak direla aipatu behar da. Ondorioz, ugariak dira naturaren aipuak: paisaien deskribapenak, animalien protagonismoa,... bere lehen eleberrian ikusten genuen bezalaxe. Antton Lukuren *Botoiletan* bilduma aintzat hartuz honela mintzatu zen Edorta Jimenez: “Liburu bietan deigarri egin zaidan elementu bat, hain zuzen ere, naturaren agerkeria eta horri batak eta besteak ematen dioten tratamenduak, biek baitakite inguruneke xehetasunak narrazioaren osagarri egoki egiten.” (*Jakin* 106)

Bestalde, ipuin guztietan idazkera mota bera aurki daiteke: “zaluia, baino ez arina.” (*El Diario Vasco* 1998-VI-6) Felipek dioen bezala, era berean, herriko hizkera bizia erabiliko du. Hala ere, ipuin guztiek ez dute lorpen maila bera. Dena den, bere lehen liburuak zuen iparraldeko kutsua ez da hain nabarmena.

Juaristiren ustez Miranderen izena aipatu behar da, “hark ere horrela idazteko joera baitzuen, izu guztiak leuntzeko ariketan behar-bada.” (*El Diario Vasco* 1998-VI-6)

Antton Luku: *Botoiletan* (1998)

Antzerki munduan ezaguna den Antton Lukuk bere lehen ipuin-bilduma argitaratu zuen 1998. urtean. Hamaika ipuin eskaini dizkiugu Antton Lukuk liburu honetan. Lehen ipuinean besteak lotzen dituen narrazioa aurkezten zaigu. Bertan, itsasoa eta uraren garrantzia azpimarratzen da. Idazlearen ustez, liburu osoan zehar uraren inguruko sinbologiak garrantzia handia baitu: “Ohartu nintzen uraren erreferentziak biziki inportantzia handia zuela denboraren sinbolizatzeko edo alferkeria edo soberakeria adierazteko.” (Fourcade, Lutxi: *Egunkaria* 1998-V-3)

Legorbururen bilduman bezala, aniztasuna aurki dezakegu ipuin-bilduma honetan ere. Aitzitik, bilduma honetan ere natura eta heriotzaren inguruko erreferentziak etengabeak dira.

Bestalde, istorio guztiak leku jakin batean kokatzen dira; Eztezenzubiko mendien altzoan. Halere, pertsonaiak aldatu egiten dira ipuin batetik bestera.

Maiatzeko iruzkingileak ipuin hauen umorea azpimarratu du: “Umorea etsipenaren jendetasuna zela Boris Vianek erran omen baitzuen noizbait, hemen arruntkeriaren galeria agertuz, umorea kontsolagarri dela ere frogatzen digu autoreak.” (*Maiatz* 30)

Hizkerari dagokionez, iparraldeko kutsua aipagarria da.

Honela deskribatu zuen Edorta Jimenezek bilduma hau:

Antton Lukuren liburuan hamabi ipuin ditugu, guztien artean unibertso bat osatzen dutenak. Horixe agertu baitu Lukuk, unibertso bat, esan nahi baita, giza geografia bat, ipuinez ipuin eta irakurketan aurrera egin ahala gure baitan birsortzen goazena. Garazi inguruak dira Lukuren geografia, eta hor bizi direnak nahiz horra etortzen direnak haren giza osagarria. Bestalde, kontatzeko moduan –neurtua, mamitua, luzaz pentsatua–, hizkeran, esaldien tenpoan, hor dago liburuaren meritu nagusia, nik uste. Ahaztu gabe, haatik, Lukuk Iparraldeko idazle modernoan artean tradizio sendokoa den ildo batean erein duela; ipuin beltzen alorrean. (*Jakin* 106)

Jabier Cillero: *Hollywood eta biok* (1999)

Jabier Cilleroren ipuin-bilduma honetan narrazio laburrez osaturiko bilduma baten aurrean gaude. “Gehienak oso narrazio laburrak dira, eskemak, irudiak, ia-ia narrazio proposamenak, soilak eta soti-lak.” (Rojo, Jabier: *El Correo* 1999-VIII-18) Hala ere, ipuin gehienak

orrialde gutxikoak diren arren, badira ere berrogei bat orri betetzen dituztenak. Narrazio hauek guztiak independenteak dira, baina guztiek hiriko giroa dute kokaleku nagusia. Honela, hiriko giro honetan bizitzako hainbat egoera irudikatzen zaizkigu. Bestalde, egilearen beraren hitzetan, “hiriaren interpretazio askotan gauzatzen dira istorioak.” (*Egunkaria* 1999-VI-16) Haatik, Agurtzane Aiestaran ez da iritzi berekoa: “Estilo aldetik loturarik badute ere, ez da elkarren arteko giro komunik sumatzen eta, ondorioz, banaka batzuek baino ez dute irakurlearen arreta bizten.” (*Habe* 295)

Ipuin hauetan gehienetan egoeren beste aldea erakustea du helburu, gertaeren ifrentzua erakutsiz:

Idazleak errealitatearen tolesduretan dauden zirrikitu beltzak erakustea lortzen du. Hau da, normalak diruditen egoeretan agertzen diren alderdi siniestroak nabarmentzeko gaitasuna erakutsi du liburu honetan. Honetarako, estilazioa du bidelagun, teknika estiloetan. Honelako narrazio laburretan funtsezkoena baino ez zaigu kontatzen, zeharkako itzulginguruetan galitzen ez den estilo zuzen baten bidez. (*El Correo* 1999-VIII-18)

Gure aburuz, honako hauek dira ipuinotan behin eta berriro errepikatzen diren gaiak: etsipena, ezustea, misterioa, absurdua, eromena, oroitzapenak, ...

Bestalde, luzera ezberdineko ipuinak sortu ditu: batzuk, ipuin oso laburrak dira *flash* baten modura eraikiak; beste batzuk, ordea, garapen luzeagodun narrazioak dira. Haatik, gehienak ipuin oso laburrak dira, egoera jakin bat edo sentsazio jakin bat irudikatzen dutenak. Bi orrialde edo orrialde bakarreko ipuin hauek gaur egun hedatzen ari den ipuin laburren ildoari jarraitzen diote. Hona hemen Cilleroren narrazioetan aurki daitezkeen ipuin mota hauetako zenbait ezaugarri: espazio eta denboraren zehazgabetasuna; izenburuek askotan narrazioaren muinera heltzeko giltza eskaintzen digute; hitz gutxitan gauza ugari esan nahi direnez, konnotazioa gailentzen da; umorea eta ironiaren erabilera; beste genero batzuen parodiak egitea; eta azkenik, hauen amaieran arreta berezia jarri ohi da, ezustea edo ezaguna denaren itxuraldaketa bilatuz.

Antzaenez, egoera arrunten alde ezkutuak azalarazi nahi izan ditu: hots, eguneroko egoerak bere testuingurutik kanpo aurkeztuaz joko bitxiak sortu ditu. Are gehiago, askotan ezagunak ditugun egoerekin jolastu egiten du beste ikuspuntu batzuetara bideratuz, honela, errealitateari so egiteko bide ezberdinak erakutsi asmoz. Izenburuak berak iradokitzen duen legez, zinearen erreferentziak etengabeak dira: Casablanca, Hamlet, ... baina, filme askoren aipamenak

egitean ere, hauek ere desitxuratuko ditu, kontrastearen bidez sentsazio ezberdinak iradokiz, eta gogoetara bultzatuz. Izan ere, batzuetan gauzak zuzenki adierazteko joera nabaria den arren, beste zenbaitetan iradoki besterik ez dira egiten. Bestalde, zentzugabekeriaren zantzuak han hemenka tartekatzen dira, askotan pertsonaiak errealtitate eta fantasiaren mugetan murgilduz. Honela, ipuin gehienetan hiriko giroa aurkezten bazaigu ere, ez dugu ipuin hauetan guztietan giro bera islaturik ikusten, nahiz eta pertsonaia gehienak hirietan galduriko ilusio gabeko izaki modura irudikatu.

Hortaz, aniztasuna izan du gidari bilbotarrak: hartara, ahalik eta genero ezberdinenak erabili ditu bilduma osatzeko: hitzaldi baten grabazioa, telefono elkarrizketak, gutunak, ikasleei zuzenduriko saioa... Batzuen iritziz, ipuinak bata bestearekin kateatzea izan ohi da bilduma baten lorpenetariko bat. Hona hemen Mendiguren Elizegiren adierazpen hauek:

Aholkuren bat ematekotan, hauxe esango nioke nik: aniztasunerako ahalmena izanik ere, agian indar gehiago eduki dezakeela obra batek estilo edo motibo aldetik batasun puntu batetik abiatuz gero. (*Jakin*)

Bilduma honetan, gure aburuz, erabili dituen genero aniztasun horietan asmatu izana da lorpenik aipagarriena. Izan ere, ipuin oso labur horiek aspergarriak bilakatzeko duten arriskua egoki gainditu baitu aniztasun horren bidez.

Ikuspuntuari dagokionez, narrazio hauetan zehar narratzaile mota ezberdinak darabiltzala aipatu behar da. Hirugarren, bigarren zein lehenengo pertsona; narrazioko pertsonaia nahiz ez; ... Gainera, ipuin batzuetan plano ezberdinak erabiltzen ditu.

Narratzaileak berak irakurlearekin hitz egiten du askotan, narraztearen ekintzari buruz mintzatzen delarik. Izan ere, bilduma honen lehen ipuinean narratzailea irakurle jakin bati zuzentzen zaio, narratario jakin bati: katedradun bati. Ipuin honen bidez jakinmina sortaraztea lortzen du.

Narrazio labur hauetan zehar pertsonaia ugari deskribatzen zaizkigu, askotan aipamenetara soilik mugatzen delarik haien parte hartzea. Honela, hain narrazio laburren aurrean gaudela kontuan hartuta pertsonaien barne munduan askorik ez sakontzea itzarrotekoa da. Honela mintzatu zen Joxi Ubeda pertsonaien inguruan: “Bere liburu honetan omentzen diren idazleen zerrenda luzea da. Baina bizitzari ere egiten dio omen, bizitzako galtzaileei eta anti-heroiei.” (Ubeda, Joxi: *Egunkaria* 1999-VI-16)

Narratzeko eran aurki daitekeen aniztasun bera ikus daiteke espazioan ere. Bilbotik hasi eta hainbat hiri ezberdinen aipamena egiten da: Reno, Hollywood,... Honela, *Hollywood eta biok* izenburuan, biok hitzaren atzean Euskal Herriari eginiko erreferentzia aurki genezake.

Denbora lantzeko ere modu ezberdinak erabiltzen ditu. Ipuin batzuetan *flash back*-ak ugariak dira, besteetan ez...

Aipatu bezala, zentzugabekeria erabat presente dago ipuin horietan. Sentsazio hau lortzeko askotan errealtate eta fantasiaren arteko elkarketa bitxiak egitera jotzen du.

Estiloa eta teknikari dagokionez honela mintzatu zen Karlos Cid: "Euskal literaturatik idazkera aberatsa eta gozoa xurgatu baitu, eta erdal literaturetatik, ordea, literatur baliabide oparoak, generoen nahasketa eta guzti." (Ubeda, Joxi: *Egunkaria* 1999-VI-16)

Cid-ek dioen bezala, musika, pintura, literatura eta zinemaz baliatu da narrazio hauek osatzeko orduan. Genero mota ezberdin ugari darabiltza: eskutitzak, hitzaldi grabatuak, klase bateko bakarriketa, filmeetako pasarte egokituak, ... Aniztasuna maila guztietan, beraz.

Jose Luis Otamendi: *Euri kontuak* (1999)

Bere poesiako lanagatik ezaguna genuen Jose Luis Otamendik, poesiatik oso urrun ez dauden hogeitau ipuin eskaini dizkigu liburu honetan. Otamendiren hitzetan, "poesiatik gertuago daude intentsitate kolpe bakarrekoak direlako." (*Deia* 1999-X-22)

Gai ugari jorratzen ditu ipuin labur hauetan: "heriotza, futbola, maitasuna, alkohola, gerra, familia...(...) Azpeitian girotuak gehienak: luzera txikiko guztiak; umore tanta batez zipriztinduak ia denak." (*Egunkaria* 1999-X-30) "Dena den, betiko bere "marko erreferentzialak" –maitasuna, heriotza...– ageri dira istorioetan, beste batzuk gehituz." (*Deia* 1999-X-22) Era honetan, aieru eta sentimenduak iradokitzen ditu, askotan zehazgabetasunaren bidez: askotan, etsipena islatzen da. Honela, narrazioen ostean sentsazio mingotsa utziz. Markos Zapiainek adierazi zuen bezala, "Otamendik demagogiarik gabe, gehiegikeria barregarririk gabe, orain eta hemen dugun mina eta zikina eman digu, hizlari doi, dotore eta ederraz." (*Egunkaria* 2000-III-4)

Izenburuan ikus dezakegun moduan, giroak edo naturak garrantzia berezia du. Honela, eguraldiaren bidez egoera animikoak deskribatzen dizkigu: haizea, euria, sasoiaren garrantzia,...

Bestalde, ipuin-bilduma honetan zehazgabetasunetik zehaztasunera doan gradazio bat ikus dezakegu: izan ere, hasierako ipuinetan

ez da kokalekua zehazten eta gero guztietan kokalekua zehazten hasiko da. Batzuetan denbora eta espazio oso zehatzak irudikatuko ditu: Bilbo, Donostia, Baiona; abuztuak 3, uztailak 10-11,... Horretaz gain, liburuak aurrera egin ahala, gero eta hausnarketa gehiago eskaintzen dizkigu. Horietako batzuk Euskal Herriko egoeraren ingurukoak dira: Ermuko PPko zinegotziaren hilketa, ETaren su-etena, presoak Euskal Herriratzeari buruzko aipamenak, maiatzaren 1eko hauteskunderi buruzko erreferentzia,... Ipuin hauetan begirada zorrotza eta arduratsua erakusten du. Bestalde, gauzei erreferentzia egiteko begirada berriua dakusagu:

Otamendiren begiradak, sentibera bada ere, ez du deus gordetzen, egiazalea da, ausarta, ez du atzera egiten, denik eta arazorik mingarrienaren aurrean ere. Gizakiaren eta gizartearen ankerkeria eta oinazea xehero-xehero erakusten du: politikak apurturiko adiskidetasuna, senide harremanen goibela, Gerestaren hagina, bikoteen hondamendia, arrazakeria, amesgaiztoa, politika militantziaren mixeriak, maitearen heriotza, laguna hil beharra, eskuzabaltasuna bekaizkeriak uxatua, gizonezkoei gomorrak eragin ezinegona... (*Egunkaria* 2000-III-4)

Gainera, beheraxeago honakoa gehitzen du: “Otamendik nabaritzen du minak guztiok berdintzen gaituela sakonean, hondoan, infernua”. (*Egunkaria* 2000-III-4)

Liburuaren bukaeran gailentzen den zehaztasunaren joeraz hone-larik mintzatu zen Juaristi:

Errealitateari lotutakoak gehienak, Euskal Herrian kokatuak, Urolan bereziki, paisaia identifigarria baita oso. Errealitate horretan politikak (badakit esateko modu bat dela, baina ez zait bestelako hitzik ateratzen) toki aparta du. Kezka, samina, itxaropena ere bai. ETaren su-etena da gehien errepikatzen den errealitate-zati edo puska. Zerbait esan nahi du horrek. (*El Diario Vasco* 2000-I-29)

Pertsonaiei dagokionez, Lutxo Egiaren hitz hauek jaso ditugu:

Ipuin bakoitzean ez dira gehiegi ere agertzen, bikote-hirukoteak dira gehienbat. Batzuk pertsonaia aktiboak dira baina pasiboak ere badira dexente. Memoriarekin asko jolasten dut, hildakoak, bizirik daudenak, modu ezberdinetara agertzen dira pertsonaiak, hori bai. Ipuinei aniztasuna ematea gustatzen

zait, baina ez dut pertsonaia galeria bat osatzeko intentziorik izan. (*Deia* 1999-X-22)

Ipuin hauetan sentsazio ugariren berri eman ahal izateko adjektibazio etengabea darabil. Bestalde, askotan esaldi batetik bestera oraina eta iragana tartekatzen ditu, bat egin nahiko balitu bezala. Umorearen erabilera ere nabarmena da. Aitzitik, honen guztiaren bidez giro malenkoniatsua sortuko du: “Testu gehienak tristeak dira sentimendu hits eta goibela islatzen dute. Badira pare bat baino gehiago tragikoak direnak, hasieratik bukaeraraino. Ukitu kaffiarrik ez zaie falta, gainera.” (*El Diario Vasco* 2000-I-29)

Estiloari buruz honako iritzia jaso dugu:

Arretaz irakurri behar dira, hizkuntza landua bezain zaindua baitarabil idazleak, baina ez da trinkoa, ezta samurra ere. Gogorra da, Azpeitiko altzairua lakoxe malgutasun gutxi du. Horrek ez du esan nahi zurruna denik, ezta gozotasunik ez duenik ere. (*El Diario Vasco* 2000-I-29)

Testuartekotasunari dagokionez, honela mintzatu zen Markos Zapiain:

Norberaren kontaktzeko bizialdi osoan irakurritakoa era sortzailean baliatzen daki narratzaile trebeak, kontuotan mende osoko ipuingintzaren oihartzunek aberastu egiten dute irakurketa. Hara Borges: “Haizeak gauza gozoak esan nahi zizkidala bururatu zitzaidan. Derrota bat ez dela derrota guztiak, maitasun bat ez dela maitasun guztiak. Gure zain izoztuen barruan odolak gatzatu gabe dirauela, bizirik, bero, ero”. Edo Joyce: Azpeitia Dublin da, erdi lo beti. Bertako giro hitsak paralizatu egiten ditu azpeitiarrak, sumindura ttikien ondoren berehala itzultzen da betiko asperdura.(...) Gibela, azkenik, irlandarren tankerakoa dute azpeitiarrek antza, horregatik edan dezakete are poloniarra edo errusiarra zingilipurka utziko lituzkeen eran. (*Egunkaria* 2000-III-4)

6. KAPITULUA: Ipuin askeak

Luis Fernandez: *Kontaktua* (1996)

Garai jakin batean kokaturiko ipuinarekin topo egin dugu. 1994ko abenduan hasten da kontakizuna eta amaiera 1995 urteko

hasieran (urtarrila edo otsailean) koka dezakegu. Istorio honetan orduko hainbat gauzari egiten zaie erreferentzia: Goenkale, ETA, GAL, ... Gainera, istorioaren jolasa osatzeko 1995eko urtarrilaren 23an gertaturiko atentatu bat darabil: Gregorio Ordoñezen hilketa. Beraz, “errealitatea da narrazioaren atzeko oihala.” (Aldalur, Mikel: *Egunkaria* 1996-XII-14)

Kioskero ero batek ETAn sartu nahi duela-eta Herriko tabernara doa kontaktuaren berri izateko. Bertan, tabernariak gezurra esaten dio eta nahi gabe Patxi oso egoera arriskutsuan sartuko du. Izan ere, tabernariak Patxi izendatuko baitu ETAn kontaktu gisa. Patxi, bestalde, zubererazko katixima baten inguruko tesia egiten ari den gazte bat da. Beraz, jolas modura hasi dena nahastuz joango da. Joko honen amaierak ezustea dakar. Umorez eta ezustez beteriko kontaktuzuna da. Errealitatearekin jolastu egin du.

Kontatzen dena garai hartako Donostian kokatzen da. Beraz, kokaleku eta denbora jakin batean irudikaturiko istorioa dugu, jarraikortasunaren bidez kontatua. Horretarako, kronotopo determinatua darabil, noski.

Karlos Linazasoro: *Gret* (1998)

Ipuin trinko baten aurrean gaude. Hona hemen adierazpen argigarri batzuk:

Azpi-istorio konplikatu horren gainetik, idazketa sendoa dago. Idazketa konpultsiboa lortu du honetan. Grafikoki puntu gutxi eta koma asko ditu, pertsonaiaren oroimen-erritmoaren arabera doa ipuina aurrera, atsedetik gabe, pertsonaiak oroimena arnasarekin batera bota nahiko balu bezala. Bestetan bezala, doinu hitsa da oraingoan ere, munduan esperantzarik ez dagoela adierazten digu pertsonaiak hasieratik bertatik. (Juaristi, Felipe: *El Diario Vasco* 1998-VI-27)

Ipuin honetan ezustea eta zentzugabekeria etengabeak dira. Rob deituriko mutil batek Greta bere aspaldiko maitaleari hitz egiten dio, bere bizitzaren berri emanez. Bakarrizketa honetan zehar, Roben bizitzaren inguruko gertaera batzuk argituz joango dira, etengabeke ezusteek aurrera jarraitzeko jakinmina piztuz.

Felipe Juaristik egoki laburtzen du ipuin honen argumentua:

Idazle bat, Rob (Robert Taylorren omenez), bere herrira itzultzen da 40 urteren buruan, omenaldi bat egingo baitiote bertan: seme kuttun izendatu eta holako... Bere herrian dago-

elarik, behin maite izandako emakume batekin topo egiten du, Gretekin hain zuzen (Greta Garboren omenez noski), eta hari, hain zuzen, bere bizitzako gorabeherak kontatzen dizkio. (*El Diario Vasco* 1998-VI-27)

Arestian esandakoa kontuan hartuz, beraz, lehenengo pertsonako narratzailea dugula garbi dago, are gehiago, narratzaile autodiegetikoa. Gainera, narratario intradiegetiko jakin bati zuzentzen zaio: Gretari. Honi izenburutik egiten zaio deia.

Estiloari begiraturaz, oso hizkera trinkoa darabilela ikusten dugu:

Orrialde gutxitan gauza asko kontatzen dira eta gauza askoren inguruko gogoetak egiten: maitasunaz, heriotzaz... Pirandelo, Weiss, Nietzsche eta beste batzuei buruzko erreferentziak ere badira... Oso ipuin trinkoa da. (Zabala, Juan Luis: *Egunkaria* 1998-I-25)

Bestalde, pertsonaien oinazea etengabe islatzen da ipuinean zehar. Horretarako, istorioa 40ko hamarkadan girotu du. Idazleak berak elkarrizketa batean “bi frakasaturi buruzko istorio intimista bat zela” adierazi zuen. (Zabala, Juan Luis: *Egunkaria* 1998-I-25)

C. **AZKEN OHARRAK**

80ko eta 90eko hamarkadan literaturaren sistemaren finkatzea eta indartzea izan da euskal literaturaren indarberritzea ekarri duen gertakaririk aipagarriena. Jon Kortazarrek aipatu zuen bezala¹⁷, gertakari honen ondorioz narratiba gailendu da; izan ere, batetik, narratiban erabilitako teknikak ikus-entzunezko komunikabideekin parekotasun handia baitute; eta bestetik, eskoletan poesia baino narratiba lan gehiago lantzeko joera dago (eta ondorioz, narratiba da gehien saltzen dena). Hartara, artikulu berean aipatzen duen bezala, 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera poeta asko narrazioak idazteari ekingo diote. Joera honek 90eko hamarkadan ere jarraipena izan duela ikus dezakegu: hitzaurrean aipatu dugun modura, besteak beste, Iñigo Aranbarri, Xabier Montoia, Edorta Jimenez, Manu Erzilla, Jose Luis Otamendi, poesiatik narrazioetara igaro dira. Haatik, bilakaera honen urratsak garai ezberdinetan ikusi dira. Izan ere, 90eko hamarkadaren hasieran ekin zioten narrazioak idazteari X. Montoiak, E. Jimenezek eta L.M. Mujikak. Iñigo Aranbarrik, berriz,

¹⁷ Ikus *Grial* 140 aldizkaria, 1998ko abendua.

hamarkadaren erdialdean ekingo dio narratiba argitaratzeari; eta azkenik, hamarkadaren azken urtean, 1999. urtean, alegia, M. Erzi-llak eta J.L. Otamendik argitaratu zituzten bere lehen narratiba lanak. Hortaz, azkeneko bi idazle hauen kasuan, ikustear dago narra-tibaren bidetik jarraituko dutenentz. Aranbarrik, bestalde, *Emon biar yako* eleberriaz gain *Zapata-ren oihana* narratiba lana besterik ez du argitaratu. Hamarkadaren hasieran narratiba lanak kaleratzen hasi zirenek, berriz, jarraikortasunez ekin diote aukera horri, ibilbide zehatzak zedarrituz. Hau da, X. Montoiak lau narratiba lan argitara-tu ditu; E. Jimenezek sei; eta Mujikak zazpi. (ikus I eranskina)

Ondoren, 90eko hamarkada honetan argitaratzen hasi direnak izango ditugu hizpide. Idazle berriek belaunaldi aldaketa ekarri dute-la pentsatzekoa den arren, ez dugu horrelakorik ikusi. Izan ere, hamarkada honetan narratiba lanak argitaratzen hasi direnen artean, lau besterik ez baitira 70eko hamarkadan jaiotakoak: Harkaitz Cano, Ur Apalategi, Jasone Osoro eta Unai Iturriaga. Are gehiago, hauetatik batek bakarrik zedarritu du norabide jakin bat (Harkaitz Canok), besteek oraingoz liburu bakarra argitaratu baitute. Bestalde, idazle berri gehienak 60ko hamarkadan jaio dira: hala nola, Jon Arretxe, Yolanda Arrieta, Joxe Belmonte, Arantxa Iturbe, Karlos Linazasoro, Jabier Muguruza, Jokin Muñoz. Ondorioz, ez da belaunaldi berri-kuntza berezirik sumatzen. Badira, gainera, 50eko hamarkadan (Iñaki Irazabalbeitia, Edorta Jimenez) eta 40ko hamarkadan (M.A. Min-tegi) jaiotako zenbait idazle ere. Haatik, garrantzitsua da liburu bakarreko idazleak besteengandik bereiztea: hauek oraindik ez bai-tute ibilbiderik zedarritu. Hona hemen liburu bakarreko zenbait idazle: Abelin Linazisoro, Jon Urrujulegi, Xanti Begiristain, Lourdes Oñederra, Rikarte, Javi Cillero, Unai Iturriaga, Antton Gomez, Felipe Rius, Jasone Osoro, ... Idazle hauen narrazioetan lan interesgarriak aurkitu baditugu ere, ezin da jakin ibilbiderik zehaztuko duten. Etor-kizunak hitz egingo du.

Joerei bagagozkio, era anitzetako errealismoa gailentzen dela aipa-tu beharra dago (bai errealismo historikoa, bai gaur egungoa) bestela-ko estiloak ahantzi behar ez badira ere. Are gehiago, Harkaitz Cano-ren eleberrigintzan esaterako, bi eleberrietan eleberri lirikoa edo poe-matikoa jorratzen badu ere, bere bigarren eleberrian errealismoaren eragina nabari da. Hortaz, honek nagusia den korrontearen eragina-ren berri ematen digu. Errealismoari dagokionez, garai historiko jakin baten inguruko narrazioek leku garrantzitsua bete dute. Haatik, badi-ra hiria oinarri izanik errealismo zikinera jo dutenak ere. Izan ere, narratibazko lan hauetako gehienetan hiritartasuna eta kaletartasuna

islatzen dira, nekazal giroa idazle gutxi batzuek besterik ez baitute irudikatu (besteak beste, Mujika, Muñoz, Legorburu, Luku). Gainera, hiriarekin batera ikus-entzunezko komunikabideen eragina nabaria da narrazioak eratzeko garaian: batik bat, zinemaren eta musikaren eragina. Hortaz, literatur lanen inguruko erreferentziaz gain, zinema eta musikaren inguruko aipuak ugalduz doaz. Bestalde, metaliteratura egiteko joera nabaria da, honela, idazle askok bere liburuan bertan liburuari berari buruzko gogoetak eskainiz. Honekin guztiarekin, Pott Bandaren eragina nabarmena dela garbi ikusten dugu: literaturaren literatura, literaturaren autonomiaren aldarrikapena,... Hiria eta zinea eta musika ere, haien lanetan askotan aipatu izan dira. Gainera, bai Bernardo Atxaga bai Joseba Sarrionandiaren ibilbidean ere errealis-morako edo zehaztasunerako hurbiltzeko joera nabari da.

Halaber, hiriaren agerpenarekin batera tabernen giroa eraman da liburuetara: beraz, narrazio hauetan musikarekin batera etengabea da droga ezberdinen aipamena: alkohola, tabakoa, speeda,...

Pertsonaiaik aztertuz gero, antiheroiak irudikatzen joera nabaria da. Hau da, heroiak desmitifikatu, eta galtzaileak mitifikatzeko joera. Hemen ere Pott Bandakoen eragina nabarmentzen da, antiheroiaren agerpenaren bidez. Horretarako, eguneroko egoerak islatzea izango dute helburu idazle askok: izan ere, egunerokotasuna oinarri izanik arrunta azalarazi eta bitxi bilakatzeko joera ikus daiteke. Gainera, aro modernoa niaren exaltazioarekin hasten denez, literaturaren genero autobiografikoaren ildotik idatziriko istorioak nagusitzen dira: egunkariak, biografiak, memoriak,...

Bestalde, ipuingintzak indar berezia hartuz doa. Izan ere, gero eta gehiago dira argitaratzen diren ipuin-bildumak. Gainera, *flash* moduko ipuin laburra deituriko joera (bi orrialde edo bakarrekoak) ere zabaldu da. Hartara, 1999. urtean kaleraturiko Felipe Rius eta Javi Cilleroren bildumetan ugariak dira era honetako ipuinak.

Bukatzeko, egokia iruditu zaigu Iban Zalduak Jon Arretxeren *Ostegunak* liburua zela-eta eginiko adierazpenak aipatzea. *Hegats* aldizkarian eginiko iruzkinean (ikus 4.2.) euskal literaturaren sisteman lehen eta bigarren mailako literatura bereizteko joerarik ez dagoela aipatzen du. Honakoa ere lan honetan ikus dezakegu, non lehen eta bigarren mailako literaturako lanak era berean tratatu eta iruzkindu ditugun. Izan ere, Zalduak aipatzen duen bezala, argitaletxeek ere ez dute horrelako bereizketarik egiten lan hauek guztiak sail bertsuetan biltzen baitituzte. Hortaz, ez dagokio lan honi horrelako sailkapen eztabaidatsuekin hastea. Halere, garrantzia handikoak iruditzen zaizkigu Zalduak esanikoak.

III. ERANSKINAK

A. IDAZLEEN INGURUKO ZENBAIT DATU

ALONSO FOURCADE, JON.

Jaiotze-data eta lekua: 1958, Iruñea.

Argitalpenak: 1995. *Katebegi galdua*, narrazioa, Susa.

1995. *Idiaren eraman handia*, saioa, Euskaltzaindia-BBK.

1998. *Camembert helburu: Toulouse-Lautrec mende bat geroago*, saioa, Susa.

APALATEGI IDIRIN, UR.

Jaiotze-data: 1972, Paris.

Argitalpenak: 1995. *Erdi guneak*, Maiatz. (Unai Goiaskoetxearekin batera)

1997. *Gauak eta hiriak*, narrazioa, Elkar.

ARANBARRI, IÑIGO.

Jaiotze-data eta lekua: 1963, Azkoitia.

Argitalpenak: 1986. *Jonas Poisson*, poesia, Susa.

1989. *Dordokak eta elurrak*, poesia, Susa.

1994. *Emon biar yako*, narrazioa, Susa.

1996. *Gerraurreko literatur kritika*, saioa, Labayru Ikastegia. (Koldo Izagirrerekin batera)

1997. *Zapata-ren oihana*, narrazioa, Susa.

1998. *Harrien lauhazka*, poesia, Elkarlanean.

ARRETXE, JON.

Jaiotze-data eta lekua: 1963, Basauri.

Argitalpenak: 1991. *Hakuna Matata*, narrazioa, Labayru Ikastegia.

1994. *Tubabu: gizon zuri bat Afrikan*, kronika, Elkar.

1995. *Urrezko triangelua*, narrazioa, Elkar.

1996. *Tuparen seme-alabak*, kronika, Elkar.

1997. *Ostegunak*, ipuinak, Elkar.

1997. *Harresi Handirantz*, narrazioa (gazte literatura), Alfaguara.

1998. *Oroituz*, narrazioa, Elkarlanean.

1999. *Ostiralak*, narrazioa, Elkarlanean.

ARRIETA, YOLANDA.

Jaiotze-data eta lekua: 1963, Etxebarria.

Argitalpenak: 1992. *Badago ala ez dago?*, antzerkia, Eusko Jaurlaritza.

1992. *Begigorritarren erlojua*, narrazioa (gazte literatura), S.M. (Baporea).
1994. *Hegaldiak*, narrazioa (gazte literatura), S.M. (Baporea).
1996. *Nola bizi, zazpi bizi*, narrazioa (gazte literatura), Desclee de Brouwer.
1998. *Jostorratza eta haria*, narrazioa, Kutxa Fundazioa.

BELMONTE, JOXE.

Jaiotze-data eta lekua: 1960, Bilbo.

Argitalpenak: 1990. *Ez dira ilunak*, narrazioa, Erein.

1999. *Amodio zoroak*, narrazioa, Elkarlanean.

CANO, HARKAITZ.

Jaiotze-data eta lekua: 1975, Lasarte-Oria.

Argitalpenak: 1994. *Kea behelainopean bezala*, poesia, Susa.

1994. *Paulov-en txakurrak*, narrazioa, Erein.

1995. *Radiografiak*, narrazioa, Elkar.

1995. *Beluna jazz*, narrazioa, Susa.

1997. *Telefono kaiolatua*, narrazioa, Alberdania.

1998. *Bizkarrean tatuaturiko mapak*, narrazioa, Elkar.

1999. *Pasaia blues*, narrazioa, Susa.

CILLERO GOIRIASTUENA, JABIER.

Jaiotze-data eta lekua: 1961, Bilbo.

Argitalpenak: 1994. *Eddy Merckexen gurpila*, narrazioa (gazte literatura), Erein.

1995. *Norena da Virginia City?*, kronika, Desclee de Brouwer.

1999. *Uztailaren laua, Renon*, antzerkia, Kutxa Gizar-te-Ekintza.

1999. *Hollywood eta biok*, narrazioa, Alberdania.

EGAÑA, ANDONI.

Jaiotze-data eta lekua: 1961, Zarautz.

Argitalpenak: 1989. *Sokratikoek ere badute ama*, narrazioa (gazte literatura), Erein.

1990. *Aitaren batean, artikulu-bilduma*, Elkar.

1997. *Zozoak beleari*, saioa, Alberdania. (Jon Sarasuarekin batera)

1999. *Pausoa noiz luzatu*, narrazioa, Alberdania.
2000. *Zaudete geldi pixka batean*, narrazioa (gazte literatura), Elkarlanean.

ERZILLA, MANU.

Jaiotze-data eta lekua: 1953, Bilbo.

Argitalpenak: 1977. *Hitzik ainitz idatzi dut*, poesia, La Editorial Vizcaina (Irrisko xorta).

1989. *Ezpondetako pneuma*, poesia, Bizkaiko Foru-Aldundia.

1999. *Ez*, narrazioa, Alberdania.

FERNANDEZ, LUIS.

Jaiotze-data eta lekua: 1966, Eibar.

Argitalpenak: 1996. *Kontaktua*, narrazioa, Elkar (Enbido Txikira).

GABIÑA, JUANJO.

Jaiotze-data eta lekua: 1949, Donostia.

Argitalpenak: 1996. *Su xahutzailea*, narrazioa, Prospektiker.

GAZTELUMENDI, JON.

Jaiotze-data eta lekua: 1961, Orereta.

Argitalpenak: 1999. *Haizea mindu gabe*, narrazioa, Susa.

GOMEZ, ANTXON.

Jaiotze-data eta lekua: 1964, Gasteiz.

Argitalpenak: 1999. *Abere madarikatuak*, narrazioa, Susa.

GORRINDO ETXEANDIA, KARLOS.

Jaiotze-data eta lekua: 1958, Gernika.

Argitalpenak: 1992. *Ni naizen hori*, narrazioa, Txalaparta.

1994. *Trostan, hegan zein narrazean*, narrazioa (gazte literatura), Txalaparta.

1995. *Amaren begietan*, narrazioa, Autoprodukzioa.

1999. *Hodei artean kulunka*, narrazioa (gazte literatura), Alberdania.

IRAZABALBEITIA, IÑAKI.

Jaiotze-data eta lekua: 1957, Donostia.

Argitalpenak: 1991. *Arrotza paradisuan*, narrazioa, Elkar.

1995. *Uda guztiak ez dituk berdinak, Isi*, narrazioa, R & B.

1999. *Ipuin deslaiak*, narrazioa (gazte literatura), Gero (Ekilore).

ITURBE MAIZ, ARANTXA.

Jaiotze-data eta lekua: 1964, Alegia.

Argitalpenak: 1992. *Ezer baino lehen*, narrazioa, Erein.

1992. *Maite, maite, maitea*, antzerkia, HABE.

1995. *Lehenago zen berandu*, narrazioa, Alberdania.

1999. *Ai ama!*, saioa, Alberdania.

ITURREGI, PATXI.

Jaiotze-data eta lekua: 1952, Laudio.

Argitalpenak: 1996. *Haize kontra*, narrazioa, Elkar.

ITURRIAGA, UNAI.

Jaiotze-data eta lekua: 1974, Durango.

Argitalpenak: 1997. *Isladak*, narrazioa (gazte literatura), Zubia.

1999. *Berandu da gelditzeko*, eleberria, Susa.

JIMENEZ, EDORTA.

Jaiotze-data eta lekua: 1953, Mundaka.

Argitalpenak: 1984. *Itsastxorien bindikapena*, poesia, Susa.

1986. *Egutegi esperimentalak*, poesia, Susa.

1986. *GizaEuropa*, poesia, Susa.

1987. *Gaua zulatzen duten ahausietan*, poesia, Susa.

1989. *Odoleko eskifaia: hirugarren gerrateko olerki begetalak*, poesia, Elkar.

1990. *Atoiuntzia*, narrazioa, Susa.

1991. *Speed gauak*, narrazioa, Susa.

1993. *Azken fusila*, narrazioa, Susa.

1994. *Manhattan*, narrazioa, Elkar.

1996. *Laudanoa eta sutautsa*, narrazioa, Txalaparta.

1997. *Baleen barbaroa*, narrazioa, Txalaparta.

LEGORBURU, MAILUIX.

Jaiotze-data eta lekua: 1965, Biarritz.

Argitalpenak: 1993. *Zozoaren kanta*, narrazioa, Maiatz.

1998. *Apoa eta beste*, narrazioa, Maiatz.

LINAZASORO, KARLOS.

Jaiotze-data eta lekua: 1962, Tolosa.

Argitalpenak: 1991. *Udazkeneko karabana erratua*, poesia, Elkar.

1991. *Besterik gabe*, Albina, narrazioa (gazte literatura), Kutxa.
1991. *Eldarnioak*, ipuinak, Erein.
1993. *Apunteak eta ahanzturak*, Kutxa.
1994. *Zer gerta ere*, narrazioa, Alberdania.
1994. *Ipuin arriskutsuak: Berardo L-ren azken idazlanak*, narrazioa (gazte literatura), Erein.
1995. *Euriaren eskuak*, poesia, Alberdania.
1996. *Altzeta*, narrazioa (gazte literatura), Alberdania.
1997. *Gau, gau, gau*, narrazioa (gazte literatura), S.M. (Baporea). (Juan Kruz Igerabiderekin batera)
1998. *Gret*, narrazioa, Kutxa Fundazioa.
1998. *Burdindenda: tragikomedia sasieruditoa ekitaldi bakarrean*, antzerkia, Euskaltzaindia.

LINAZISORO, ABELIN.

Jaiotze-data eta lekua: 1942, Zumaia.

Argitalpenak: 1995. *Axun*, narrazioa, Susa.

LUKU, ANTTON.

Jaiotze-data eta lekua: 1959, San Frantzisko.

Argitalpenak: 1996. *Tu quoque fili*, antzerkia, Kutxa Fundazioa.

1997. *Antso azkarra edo Miramamolinen esmeralda*, antzerkia, Kutxa Fundazioa.

1998. *Botoiletan*, narrazioa, Maiatz.

MINTEGI, MIGUEL ANJEL.

Jaiotze-data eta lekua: 1949, Ataun.

Argitalpenak: 1991. *Udazkena (urtearen lehena eta azkena)*, narrazioa, Kutxa.

1996. *Esker mila, Marlowe*, narrazioa, Erein.

MONTOIA, XABIER.

Jaiotze-data eta lekua: 1955, Gasteiz.

Argitalpenak: 1983. *Anfetamiña*, poesia, Susa.

1985. *Likantropo*, poesia, Susa.

1988. *Narraztien mintzoa*, poesia, Susa.

1991. *Non dago Stalin?*, narrazioa, Susa.

1992. *Emakume biboteduna*, narrazioa, Susa.

1997. *Gasteizko hondartzak*, narrazioa, Susa.

1998. *Plastikozko loreak erregearentzat*, kronika, Susa.
1999. *Hezur gabeko hilak*, narrazioa, Susa.

MUGURUZA, JABIER.

Jaiotze-data eta lekua: 1960, Irun.

- Argitalpenak: 1994. *Sei lagun, sei sekretu*, narrazioa (gazte literatura), Erein.
1994. *Gabon Guanito*, narrazioa (gazte literatura), Erein.
1996. *Bizitza pusketak*, narrazioa, Erein.
1999. *Laura kanpoan da*, narrazioa, Erein.

MUJIKA, LUIS MARI.

Jaiotze-data eta lekua: 1939, Lizartza.

- Argitalpenak: 1963. *Bide-giroak*, poesia, Sendo.
1965. *Urdin eta burni*, poesia, Auñamendi.
1975. *Hitzak ebakitzean*, poesia, Kriselu.
1978. *Zortziko Hautsiak: barren ibarrak*, poesia, Ediciones Vascas.
1979. *Arnas gaiztoa: Erromantzeen airera*, poesia, Kriselu.
1993. *Loitzu herrian uda partean*, narrazioa, Erein.
1995. *Udarbe eta Urtuella lekuko*, narrazioa, R & B.
1996. *Hiru egun larburun*, narrazioa, BBK-Euskaltzaindia.
1996. *Ipuin ubelak*, narrazioa, R & B.
1996. *Abuztuaren hamabosteko tren*, narrazioa, Erein.
1997. *Bidean ihes...*, narrazioa, Kutxa Fundazioa.
1998. *Ladix Petrirenekoa*, narrazioa, Erein.

MUÑOZ, JOKIN.

Jaiotze-data eta lekua: 1963, Castejon.

- Argitalpenak: 1995. *Hausturak*, narrazioa, Alberdania.
1997. *Joan zaretenean*, narrazioa, Alberdania.

OÑEDERRA, LOURDES.

Jaiotze-data eta lekua: 1958, Donostia.

- Argitalpenak: 1999. *Eta sugeak emakumeari esan zion*, narrazioa, Erein.

OSORO IGARTUA, JASONE.

Jaiotze-data eta lekua: 1971, Elgoibar.

Argitalpenak: 1998. *Tentazioak*, narrazioak, Elkarlanean.

OTAMENDI, JOSE LUIS.

Jaiotze-data eta lekua: 1959, Azpeitia.

Argitalpenak: 1980. *Egunsenti biluzia*, poesia, Ustela.

1983. *Azken undinaren kaira*, poesia, Ustela.

1987. *Zainetan murrailak*, poesia, Susa.

1990. *Poza eta gero*, poesia, Susa.

1995. *Lur bat zure minari*, poesia, Susa.

1999. *Euri kontuak*, narrazioa, Susa.

REKALDE, PADDY.

Jaiotze-data eta lekua: 1964, Bilbo.

Argitalpenak: 1996. *Aizu, Paddy!*, narrazioa, AEK.

1999. *Whiskey koloreko gauak*, narrazioa, Txalaparta.

RIKARTE, ISIDRO.

Jaiotze-data eta lekua: 1955, Lerin.

Argitalpenak: 1998. *Desioen hiria*, narrazioa, Pamiela.

RIUS, FELIPE.

Jaiotze-data eta lekua: 1961, Iruñea.

Argitalpenak: 1999. *Bi argazki eta hainbat polaroid*, ipuinak, Pamiela.

UNZUETA, JOSU.

Jaiotze-data eta lekua: 1961, Durango.

Argitalpenak: 1991. *Gauerokoak*, narrazioa, Elkar.

URRUJULEGI, JON.

Jaiotze-data eta lekua: 1940, Zegama.

Argitalpenak: 1997. *Arragoa*, narrazioa, Txalaparta.

B. LITERATUR TERMINOEN HIZTEGIXOA¹³

. **ANAKRONIA:** denboraren jarraikortasunean ematen den edozein eratako hausturari deritzo; hots, jarraipen kronologikoa apurtzeari.

. **ANALEPSI: anakronia** (ik.) mota bati deritzogu analepsi: denboran atzeranzko jauzi bat eginez kronologia apurtzeari deritzogu; oro har, memoriaren aktibatzearekin lotuta egoten da. Hortaz, besteak beste, oroitzapenen bidez egiten diren atzerakako mugimenduei deitzen zaie honela. Hau da, *flash back* deitu izan dena. Hiru eratako analepsiak ditugu:

- a) Barne analepsia: atzera egitearen bidez, narrazioaren ekintzaren hasiera baino lehenagoko denbora batera igarotzen ez garenan: hots, liburuan kontaturiko denboraren barruan kokatzen dugunean atzerakako begirada hau.
- b) Kanpo analepsia: kasu honetan, berriz, atzera egitearen bidez narrazioaren ekintzaren hasiera baino lehenagoko gertakizunetara igarotzen gara, ordura arte aurkezturiko narrazioaren denbora eremua gaindituz.
- c) Analepsi mistoa: analepsi mota hauetan, aurreko bi analepsi motek bategiten dute. Hortaz, atzera egitearen bidez, narrazioaren denboraren hasiera baino lehenagoko denbora batera igarotzen bagara ere, erretrospekzioaren bidez kontaktzen zaiguna narrazioaren hasierarekin bat egin eta hau gainditzen du.

. **BARNE FOKALIZAZIO: fokalizazio** (ik.) mota honen bidez, narratzaileak pertsonaia batzuen edo pertsonaia jakin baten barne munduari, honen kontzientziari arreta eskaintzen dio. Hortaz, egoera aurkezteko ikusmenaz gaindiko beste zentzuez ere baliatuko da. Fokalizazio mota hau zehaztasun osoz erabiliz gero, ez litzateke deskripziorik edo fokalizaturiko pertsonaien inguruko kanpo azalpenik eman beharko, soilik barne bakarrizketak aurkeztu beharko lirateke. Hala ere, era orokor batean barne munduaren berri ematen denean

¹³ Eranskin hau osatzeko garaian, batik bat bi liburu hauek izan ditugu esku artean: Sulla, Enric (arg.) 1996. *Teoría de la novela. Antología de textos del siglo XX*. Crítica, Bartzelona.

Reis, Carlos (Coautor)/ Lopes, Ana Cristina (Coautor) 1996. *Diccionario de narratología*, España, Salamanca.

ere deitu ohi diogu honela. Hiru barne fokalizazio ezberdin bereizten dira:

- a) Iraunkorra: pertsonaia bakarraren barne mundua islatzen denean.
- b) Anitza: pertsonaia talde baten barne mundua islatzen denean.
- c) Aldakorra: pertsonaia anitzen barne mundua islatu nahi denean, horretarako fokalizazioa pertsonaia batetik bestera mugituz.

. **DIALOGIA:** Honen bidez hiztunen arteko elkarrekintza adierazi nahi da: elkarrekintza honetan aniztasunak eta *bestearen* ahotsaren garrantzia onartzea beharrezko da. Dialogia, beraz, pentsatzeko modu integratzailea da: goi-mailako kontzientzia bakar bat onartzen duten ikuspegien aurka agertzen da, hauen arabera onarturiko kontzientzia hori dutenak bakarrik izango lirateke gauzak neurtzeko gai (gizarteko talde batzuk ahotsik gabe geratuz). Mundua aldiberekotasunean ulertzeko aldarrikapena egiten da. Literaturari bagagozkio, testuaren interpretazio anitzerako aldarrikapena da, horretarako beharrezkoa delarik ahots ezberdinen parte hartzea, polifoniaren erabilera aldarrikatuz. Hartara, ahots ezberdinen testuratzea egon ohi da sarri.

. **FOKALIZAZIO OROJAKILE:** **fokalizazio** (ik.) mota honetan narratzaileak ezagutza ahalmen mugagabea erakusten du. Genettek, bestalde, fokalizaziorik gabeko narrazioak deitu zituen mota honetako narrazioak.

. **FOKALIZAZIO:** ikuspuntuarekin hertsiki loturiko kontzeptua dugu honako hau. Izan ere, fokalizazioaren bidez, narratzaileak narrazioaren eremuan murriztapenak egingo ditu. Honela, fokoa leku jakin batera bideratuz, kontakizumari norabide konkretu bat ematen zaio. Hiru fokalizazio mota ditugu: **kanpo fokalizazioa** (ik.), **barne fokalizazioa** (ik.) eta **fokalizazio orojakilea**. (ik.). Bestalde, fokalizazioa narrazioan zehar alda daiteke.

. **IDAZLE INPLIZITO:** idazle implizitoaren irudia irakurleak berak eratzen du narrazioaren irakurketaren bidez. Idazle implizitoak ez du ahotsik, irakurleak narrazio horren idazleaz duen irudia besterik ez da. **Narratzaile** (ik.) eta **narrataria** (ik.) hautazkoak diren bitartean, **idazle** eta **irakurle implizitoa** (ik.) beti egongo dira.

. **IRAKURLE INPLIZITO:** egileak auresuposatzen duen irakurleaz mintzo gara. Hau da, egileak testua idazterakoan gogoan duen irakurlearen irudia. **Narratzaile** (ik.) eta **narrataria** (ik.) hautazkoak diren bitartean, **idazle** eta **irakurle inplizitua** (ik.) beti egongo dira.

. **KANPO FOKALIZAZIO: fokalizazio** (ik.) mota honen bidez, gainazaleko ezaugarriak, ekintzak, espazioak,... aurkeztera mugatuko da narratzailea. Hots, materialki ikus daitekeenaz mintzatuko da, batzuetan, objektibotasunari bidea irekitzeko asmoz.

. **KRONOTOPO:** denbora eta espazioaren ezaugarriak eta hauen arteko loturari dagokio. Hartara, denbora eta espazioaren arteko lotura banaezinaren bidez, denboraren elementuak espazioan islatzen dira, eta espazioa denboraren bidez ulertu eta neurtu daiteke.

. **MAILA ESTRADIEGETIKO:** fikzioaren gertaera nagusitik kanpo dagoen maila da, narrazioaz arduratzen dena, baina, narrazioaz at dagoena.

. **MAILA INTRADIEGETIKO** (edo **DIEGETIKO**): kontaturiko gertaeren maila da: narrazioaren maila. Beraz, kontakizunean parte hartzen duen pertsonaia batek aurkezturiko maila da.

. **MAILA METADIEGETIKO** (edo **HIPODIEGETIKO**): narrazio baten barruko beste narrazio bat da, bigarren mailako fikzioa. Hots, maila intradiegetikoan txertaturiko beste maila narratibo bat.

. **MAILA NARRATIBO:** hiru maila narratibo bereiztu izan dira: **estradietiko** (ik.), **intradiegetiko** (ik.) eta **metadietiko** (ik.). Maila narratibo eta narratzaile moten arteko konbinaketak eginenez honelako sailkapena lortuko genuke:

- a) Estradietiko-heterodietiko: istoriaren fikziozko pertsonaia ez den kanpoko narratzailea.
- b) Estradietiko-homodietiko: bere istorioa kontatzen digun kanpo narratzailea. (kasu honetan, askotan, narrazioa kontatzen duen “ni”a estradietiko bada ere, eta iraganeko “ni”a intradietiko da).
- c) Intradiegetiko-heterodietiko: fikziozko narratzaileak (bigarren mailakoak) kontatzen dizkigun gertaeretan ez badu parte hartzen.

- d) Intradiegetiko-homodiegetikoa: fikziozko narratzaileak (bigarren mailakoak) kontatzen dizkigun gertaeretan parte hartzen badu.

. **NARRATARIO:** narratzaileak sorturiko diskurtsoa norbaiti zuzendua egon ohi da. Istorioa kontatzen zaion horri deritzogu narratariora. Narratariora ez dugu irakurlearekin nahastu behar, bata fikziozkoa baita, eta bestea erreala: izan ere, narratariora narratzailearen maila berean aurkitzen da. Hortaz, narratzailea estradiegetikoa denean, narratariora ere estradiegetikoa izango da, irakurle birtuala. Narratzailea intradiegetikoa denean, ordea, narratariora fikziozko narratzaile intradiegetikoa zuzentzen zaion fikziozko pertsonaia izango da. Izan ere, narratzaileak eta narratariorak bata bestearen dependentzia dute.

. **NARRATZAILE:** narratzailea eta egilea bereiztea funtsezkoa da, izan ere, funtzionalki nahiz ontologikoki bi kontzeptu zeharo ezberdin baitira. Egilea entitate erreal eta empirikoa den bitartean, narratzailea fikziozko entitatea den testuko egile modura ulertu beharko genuke. Hau da, narratzailea komunikazio narratiboaren protagonista izango litzateke, diskurtsua enuntziatzea dagokiona. Bestalde, narrazioaren kontalariak ikuspuntu ezberdinak aukera ditzake istorioaren berri emateko: **narratzaile heterodiegetikoa** (ik.), **homodiegetikoa** (ik.) eta **autodiegetikoa** (ik.). Narratzaile motaren hautaketak, noski, istorioaren eraketa zeharo baldintzatuko du.

. **NARRATZAILE AUTODIEGETIKO:** lekuko zuzenaren jarrera hartzen duen narratzaileari deritzogu: hortaz, istorioaren narratzaileak, istorioaren pertsonaia nagusia izaki, bere esperientzien berri ematen digu. Beraz, pertsonaia hau narrazioan kontaturiko gertaeren mailan kokatzen da.

. **NARRATZAILE ESTRADIEGETIKO:** maila estradiegetikoan kontaketaz arduratzen den narratzailea da, narrazioaren maila nagusitik kanpoko maila batean dagoena: narraziotik at dagoena (eta beraz, gertaeretan esku hartzen ez duena, nahiz eta batzuetan bere iritzia ematen duen.)

. **NARRATZAILE HETERODIEGETIKO:** narratzaile hau ez da istorioan esku hartzen duen pertsonaia bat, izan ere, narratzaileak kanpoko zaion istorio bat ezagutaraziko digu. Narratzaile mota honek

oro har hirugarren pertsona badarabil ere, batzuetan lehenengo pertsonara igaro daiteke. Mota honetako narratzaileak askotan autoritate eztabaidea sortzen du. Narratzaile mota hau **maila estradiegetikoan** (ik.) kokatu ohi denez, egile eta narratzailearen arteko identifikazioa erraztu egiten da. Gainera, **barne** nahiz **kanpo fokalizazioak** (ik.) erabiltzeko askatasun gehiago du, baita denbora bere gustura moldatzekoa.

. **NARRATZAILE HOMODIEGETIKO:** narratzaile autodiegetikoaren modura, kasu honetan ere narratzailea narrazioan parte hartzen duen pertsonaia bat bada ere, ez da pertsonaia nagusia: izan ere, behatzaile zein bigarren mailako pertsonaia modura parte hartzen duen narratzailea da.

. **NARRATZAILE INTRADIEGETIKOA:** maila intradiegetikoan kontaketa arduratzen den narratzailea, narrazioan parte hartzen duena.

. **PARALEPSI:** erabilitako **fokalizazioak** (ik.) onartzen duen informazioa baino gehiago eskaintzeari deritzo. **Barne** nahiz **kanpo fokalizazioa** (ik.) dagoenean bakarrik hitz egin dezakegu paralepsiaz, izan ere, bi kasu hauetan soilik murrizten baita narrazioaren informazio eremua.

. **PARALIPSI:** erabilitako **fokalizazioak** (ik.) eskatzen duen informazioa baino gutxiago eskaintzeari deritzo. Hortaz, **barne fokalizazioaren** (ik.) edo **fokalizazio orojakilearen** (ik.) arau-urratze baten aurrean egongo ginateke.

. **PERTSONAIA BIRIBILAK:** narrazioan zehar garapen psikologikoa duten pertsonaiak dira: hots, pertsonaia gatazkatsuak. Bere barne munduan sartuz, pertsonaia hauen aldaketan berri izango dugu. Horrelako pertsonaiekin ezin dugu zer egingo duten aurreikusi.

. **PERTSONAIA LAUAK:** barne gatazkarik aurkezten ez duten pertsonaiak dira, narrazioan zehar garapenik jasaten ez dutenak. Askotan, beraz, ideia edo ezaugarri baten inguruan eraikiriko estereotipoak izango dira. Era honetako pertsonaiek egingo dutena aurreikus dezakegu.

. **PROLEPSI:** **anakronia** (ik.) mota bati deritzogu prolepsia: hau da, denboran aurreranzko salto bat emanez kronologia apurtzeari deri-

tzogu prolepsia: oro har, iragartzearekin lotuta egoten da. Hala ere, ez da testuan zehar ageri diren indizioekin nahastu behar. Hiru eratako prolepsiaak ditugu:

- a) Barne prolepsia: aurrera egitearen bidez, narrazioaren ekintzaren amaieraren ondorengo denbora batera igarotzen ez garenean: hots, liburuan kontaturiko denboraren barruan kokatzen dugunean aurrerakako begirada hau.
- b) Kanpo prolepsia: kasu honetan, berriz, aurrera egitearen bidez narrazioaren ekintzaren bukaeraren ondorengo gertakizunetara igarotzen gara, ordura arte aurkezturiko narrazioaren denbora eremua gaindituz.
- c) Prolepsi mistoa: prolepsi mota hauetan, aurreko bi prolepsi motek bategiten dute. Hortaz, aurrera egitearen bidez, narrazioaren denbora bukatu aurreko denbora baterako aurrerapeña egiten badugu ere, aurrera egite honen bidez kontaktzen zaigunak narrazioaren amaieraren denbora gainditzen du.